



JESU-KRISTOREN IMITAZIONEA

Leon Leon

Iturria: *Jesu-Kristoren imitazioea*, Leon Leon. Brepols, 1929.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeonImitazioea.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

JESU-KRISTOREN IMITAZIONEA

L. LÉON
APHEZAK ESKUARALAT ITZULIA

Turnhout'eko hirian, Beljikan
Brepols liburu-egileen etxean
1929an moldatua

NIHIL OBSTAT.
Baïonae, die 18a Aprilis 1927.
P. DAGUERRE c. d.

INPRIMATUR.
Baïonae, die 30a Aprilis 1927.
J. P. DIHARCE, v. g.



AITZIN-SOLAS

Zaharrak berri, Eskualdun maiteak. Liburu zahar bat berritu dugu guk ere, mami berari axal berri bat eman. Eskuarazko Imitazione asko izan da orai arte ere: gehienak elgarren haurride edo bederen ahaide hurbil.

Hunek ez du aitzineko bihi bati deus zorrik; erran nahi dugu ez diotegula deusik ebatsi ez maileatu. Lan huntan hasi ginelarik, iduritu zaikun, orhe bera hartuz, zerbait pollitagorik egin zitakela.

Badakigu segur obra hunen bururatzeko, hogoi-ta bortz bazirela Eskual-Herrian gu baino zaharragorik eta beraz trebeagorik eta argituagorik: gazte bati behar zaio hanitz barkatu, zeren egiten baitu hanitz bekatu.

Bekatu egin badugu lan huni lotuz, liburu hunek ere huts eta itzal asko balin badauka, doala halarik ere bi hegalez: badakigu zuen jakitatea aski handia dela huts hoiien bethetzeko eta zuen bihotza aski zabala itzal hoiien barkatzeko.

Hitz bakhar batzu kausituko ditutzue han hemenka, orai arte behar-bada bakan ikusi ditutzuenak. Beltzuririk ez egin, othoi; ez dira den gutienik berriak, bainan zaharrez hiltzerat zoazin hitz batzu: gaixoak hil-herri-rat bidaltzeko orde, zuen gana ditugu igortzen, zuen aldean gazteturik eta odol-berrizkaturik bizi ditezen Eskuarak diraueno eta beraz mundua mundu deno. Ez badiozute ere ginarrria berehalakoan atzemaiten, ez lotsa, ez etsi: emeki emeki aldeko hitzek eginen dautzuate argi.

Jainkoa baitan agur.

L.L.

LEHEN LIBURUA



LEHEN KAPITULUA

Jarrai Jesus Jaunari eta munduko ezdeuseria guziak erdeina.

1. Jarraikitzen zaitana ez dabil ilhunbetan, dio Jaunak. Hitz hoitaz, Jesus Jaunak bere biziari eta bizi-moldeari jarraikitzerat deiezen gitu, bihotza egiazki argi eta itsumendu guzietarik garbi nahi badugu. Jesus Jaunaren bizia bekigu beraz gure gogoaren alhabide lehena.

Jesusen erakaspina sailduen erakaspin guzietarik nagusi da; eta bere gogoa Jesusen arakoa lukeenak, hazkurri gorde bat aurki lezoke.

Bainan gertatzen ohi dena: frangok, Ebanjelioa maiz entzuna gatik, haren obratzeko su gutixko dute, Jesusekilakoak ez direlako.

Jesusen erranak osoki aditu nahi dituenak eta barnea hetaz goxatu, bere bizia harenaren arabera moldatu behar du lehiatuki.

2. Trinitate Sainduko gauza gordeenez jakintsu bezala mintzatzetik zer dukezu, baldin umiltasun eskasez Trinitate Sainduari hastio bazaizko? Zinez, ez dute ez solas ederrek saildutzen eta zuzentzen gizona; bertuteari darraiona du baxharrik Jainkoak maite.

Bekatuen urrikia nahiago dut bihotzean, jakintsuek hartaz zer dioten jakin baino.

Liburu Saindu guziak eta zuhur hitzak oro bazinazki ere gogoz, zer onbidetu zintu, Jainkoaren amodiorik eta grazietarik ez bazinu? *Ezdeuserien ezdeuseriak eta oro ezdeuseriak, Jainkoaren maitatzeaz, baxharrik Jainkoaren zerbitzatzeaz bertze guziak.* Zuhurtzietarik handiena, mundua oinkaturik zeruaren bilhatzea.

3. Ezdeuseria beraz, ontasun iragankorren bilhatzea eta hetan nork bere esperantzaren jartzea.

Ezdeuseria oraino, ohoren ondolik ibiltzea eta bizi-molde ospetsuetarat heltzea.

Ezdeuseria, gorputzaren nahieriet jarraikitzea eta geroxago hain garrantziki gaitzituak behar diren gauzen gutiziatzea.

Ezdeuseria, bizi luze baten agiantzea, eta bizitze on batez guti axolatzea.

Ezdeuseria, oraino biziari xoliki gogo emaita eta gerokoaz ez orhoitzea.

Ezdeuseria, hain laster iraganak direnen maitatzea eta bethiereko zorionaren arthazki ez bilhatzea.

4. Erran huntaz orhoitu zite ardura: *begiak ez dira ikusiaz asetzen, ez eta beharriak entzunaz akitzen.* Lur huntako zer guzietarik amodiotik begiratuki urrunt zazu beraz bihotza eta zerukoetararik altxa, gorputzaren irritser darraizkotenek kontzientzia lohitzen baitute eta Jainkoaren grazia galtzen.



2. KAPITULUA

Nork bere burua behar duela gutiatsi.

1 Jitez eta izaitez gizon guziek ikasi nahi dute; bainan, Jainkoaren beldurra gabe, zer on duke ikasteak?

Jainkoaren zerbitzari xume bat, hau izanikan ere laborari, dudamudarik gabe nagusi zaio, bere arimaz ezazoldurik, izarrer so dagon jakintsu urgulutsuari.

Bere jitea ontsa ezagutzen duenak, bere burua gutiasten du eta gizonen laudorioez den gutienik ez da kilika.

Lurreko zer guziak jakinik ere gogoz, karitaterik ez banu, zer probe-txu nuke, nere obretarik jukatuko nuen Jainkoaren begietan?

2. Ikasteko gutizia soberarik ez ukan, horrek baitauka gogoia barreiatu-rik eta enganaturik.

Jakintsuen atsegin handiena, jakintsu agertzea eta gizon argituak direla entzutea. Bada gauza frango, arimarentzat on guti baizik edo bate-re ez dutenak. Handizki zoro, zerurat deraman jakitatea bazterrerat utzi-rik, gauza hoier begiak landaturik daudenak. Ez du elhasturiak asetzen arima; bizitze zuzenak du gogoia jabaltzen, eta kontzientzia garbiak fidan-tza handia emaiten Jainkoa baitan.

3. Zonbat gehiago baitakizu eta hobeki, hanbat garrazkiago zitu Jainkoak jujaturen, non ez ziren are saildukiago bizi.

Zure jakitateaz eta antzeaz ez ar beraz aho betheka; izaitekotz, ukan argiez egon ikharetan.

Zer-nahi badakizula eta kasko ona duzula iduri balin bazaitzu, ez dakizunik biziki gehiago badela jakin zazu. Kopeta ez goregi altxa; aithor izaitekotz deusik ez dakizula. Huni edo hari nagusi zirela zendako uste duzu, zu baino jakintsuagorik eta Jainkoaren legetan trebeagorik hoin-bertze izanki-ta bazterretan?

Zure onetan zer bait jakin nahi duzu eta ikasi? Izan zite gordegura eta deus ez zirela utz zazu jendea erraiterat.

4. Huna erakapen handien eta beharrena: nork bere buruaren eza-gutzea eta hastiatzea. Nork bere buruaren gutiastea eta bertzeenaren bethi handiastea: hori, hori gain gaintetik zuhur eta saildu izaitea.

Norbait ikusten bazinu ere agerian huts baten egiten, huts hori han-dia izanikan ere, zeure burua ez zinuke hobetzat iduki behar, ez baitakizu noiz arte diraukezun ongian zuhauk. Guziak erorkor, bainan sinets zu baino ahulagorik ez dela nehor.

3. KAPITULUA

Egjaren erakapenaz.

1. Dohatsu Egia bera duena erakasle; Egia, ez itxuraz eta hitz joan-korrez, bainan den bezala ikasten duena!

Gure gogo-bihotzek enganutzen gituzte maiz, behakoa labur baitute.

Gauza gorde batzu jakin beharrez ibiltzetik zer dukegu? Ezjakinaz ez gitazke berdin Jainkoaren begietan hobendun.

Zer zorokeria, gauza beharrenak bazterrerat utzirik, alferren eta gal-garrien ondotik ibiltzea! Begiak ba eta ez dugu ikusten; jakintsuen arteko eztabadez zergatik axola gu?

Bethiereko Hitza edo Berboa entzuten duena, asko eztabada alfe-rretarik kanpo dago. Guzien ithurburua da Berboa; eta izaite guziak har-taz bakharririk dira mintzo, *hura baita guzien hastapen, guhauri mintzo zaikuna.*

Hura gabe nehork deus ez du aditzen; nehork ez zuzenki jujatzen.

Oro Berboari itzultzen dituen, oro Berboaren ganat bihurtzen, oro Berboaren baitan ikusten, bihotza azkar dagoke hura bai eta bakean Jainkoa baitan.

O Jainko ziren Egia, bat nezazu zurekin bethiereko amodioan. Asko gauzen irakurtzea eta entzutea hastio zait; zu baitan daude nik nahi eta lehiatzen ditutanak oro. Ixil bedite jakintsu guziak, ixil kreatura guziak zure aitzinean: bakharririk zu mintza zakizkit.

2. Zonbat ere baita bilduago norbait eta bihotzez lañoago, hanbatez du hak nekerik gabe gehiago eta barnago aditzen, haren adimenduak zerutik baitauka bere argia. Garbi, laño eta bakean dagon bihotza ez du lan hanitzak barreiatzen, den guzia Jainkoaren ospearentzat duelakotz egi-ten eta bere buruarekilako estekarik gabe bizitzerat lehiatzen delakotz.

Zure bihotzeko khar basak baino gehiago, zerk zitu koropilatzen eta nahasten?

Gizon zuhur khartsuak bere egitekoak gogoan ontsa orhatzen ditu, kanporat ager aitzin. Ez dabil hura norat ixurki harat errexki, bainan non zer den zuzen eta harat du jotzen.

Bere buruaren hezterat lehiatzen denak baino gudu bortitzagorik nork du? Gure buruaren garaitzea, egunetik egunerat hartaz jabeagotzea



eta egun oroz ongian urrats baten egitea, ontsalaz horra zer behar litaken gure lana.

3. Lur huntako zerek, nahi bezain onak eta itzal-gabeak izanikan ere, zerbait buztan tzar badakarte denek, eta gure argi guziek zerbait ilhunbe.

Bere burua den bezain xume ezagutzen duena, Jainkoaren ganat joaki, zer-nahi ikasi beharrez dabilana baino xuxenago. Lañoki ikastea eta jakitea ez da berez tzarra; on da eta Jainkoaren gogorako; kontzientzia zuzena eta bizitze saildua haatik bethi hobe. Bainan hanitzak ontsa bizitza baino lehiatuago baitira ikasterat, hortakotz dira maiz bidetik makurtzen, beren lanetik uzta guti edo batere ez dutela biltzen.

4. O! ikasteko bezanbat su baginu gure baitako azturen erroetik jalgitze eta hek utzi lekuan bertutearen finkatzeko, ez bide litake jendearen artean hoinbertze gaixtakeria eta gaitzbide, ez eta komentuetan hoinbertze ezazolkeria!

Segur, jujamendu egunean Jainkoak ez dauku zer irakurtu dugun galduaren, bainan ba zer dugun egin; ez eta zoin ontsa mintzatu giren, bainan ba saildutzeko zer dugun obratu.

Erradazu: non dira orai, bizi zirelarik eta jakitatean trebe, hain ontsa ezagutu dituzun jakintsu eta erakasle hek guziak? Heien ontasunak jadanik bertzeen eskuetan dira, eta hetaz orhoitzen ere direnez nago. Bizi zireno zerbait iduri zuten eta orai nehork ez ditu aiphatzen ere.

5. Oi munduko loria, zoin laster eroria! Heien bizi-moldea, zuten jakitatearen bethe izan balitz, orduan zuketean orduan behar bezala ikasi eta erakatsi!

Jakitate alferren bidez mundu huntan zonbat den galtzen, Jainkoaren zerbitzuko axola guti dutelakotz! Xume baino nahiago baitute handi, hortakotz dira beren gogoeta alferretan galtzen.

Egiazki handi, karitate handia duena! Egiazki handi, bere burra xumetzat eta ohore guziak ezdeustzat dauzkana!

Egiazki zuhur, *Jesus beretza gatik, lurreko zer guziak lohitzat dauzkana!* Egiazki jakintsu handi, bere nahari uko eginik, Jainkoarena bethetzen duena!

4. KAPITULUA

Egitekoetan behar den zuhurtzi.

1. Entzuten edo asmatzen ditugun guziak ez dira sinestekoak, bainan artharekin eta aizinarekin haztatu behar dira denak, Jainkoak egin litzazken bezala.

Deitoragarri ez denetz! bertzeetaz dioten gaizkia maiz ongia baino errexkiago sinesten dugu, hain gira ahulak. Bainan gizon osoki zuzenke nekez sinesten dituzte entzun guziak, baitakite gaizkirat lerrakor dela gizona eta bere solasetan arin.

2. Gain gainetik zuhur, bere egitekoetan lasterregi ez doana eta bere asmuetan buru-gogor ez dena! Berdin zuhur, edozoinen elheak sinesten ez dituen, eta entzunak edo sinetsiak bertzeen beharrietarat abian husten ez dituen!

Galda kontseilu gizon zuhur eta zuzener; zuhauk asmatuer eta amesuer uko eginik, bilha zu baino hobeen argiak.

Bizitze onak du gizona Jainkoaren arabera zuhurtzen, ikusiek ikusi arau dutelarik argitzen. Nor bere baitan umilago eta Jainkoaren menago, hanbat ere hura zuhurtziaz eta bakez orotan betheago.



5. KAPITULUA

Liburu Sainduen irakurtzeaz.

1. Liburu Sainduetan egia behar da bilhatu, ez hizkuntzaren ederra. Liburu Sainduak heien egileen gogo berarekin behar dira irakurri. Hetan mintzaiaren goxotasuna baino gehiago gure ona behar dugu bilhatu.

Atsegin berarekin irakurri behar ditugu liburu khartsuak eta xumeak, nola liburu eder jakintzazkoak. Ez beha liburuaren egilea jakintsua den ala ez; irakur xoilki egia maitez. Ez beha erraileari, beha erranari.

Gizona iragankor, *Jaunaren egia aldiz bethierekoa.*

2. Nehor berexi gabe, asko gisaz mintzo zaiku Jainkoa.

Liburu Sainduen irakurtzean, gure begi-luzeek daukute maiz egiten kalte, sobera nahi baitugu behatu eta bahetu, aitzina joan behar ginukelarik gelditu gabe.

Liburu Sainduen esnea nahi baduzu xurgatu, irakur umilki, lañoki eta fedeekin, jakintsu agertzeko gutizia izpirik gabe. Sainduer galda gogotik zer dioten eta hek errana ixilik entzun. Ez gutiz utz zahar hitzak, ez baitira itsurat erranak izan.

6. KAPITULUA

Azturez.

1. Haizu ez den negurrian zerbait gutiziatzen duen gizona, laster asaldatzen.

Urgulutsuak eta zikoitzak nehon ez dute onik; aberastasunari bihotzez uko eginik dagona eta gizon umila, bake nasaiaren jabe dira.

Bere azturak osoki heziak ez dituenak, laster duke gudu eta den gutienekotzat behaztopatzen da.

2. Bihotzez ahul eta, oldez edo moldez, oraino gorputzaren irritsen meneko denak, bai eta lur huntako zeretarat ukurturik dagonak, gutizia lurtiarer nekez du uko egiten osoki. Hortakotz dago hits, heietarik urruntzen denean; errexki khexatzen ere ba, norbaitek ihardukitzen badio. Bainan gogoan zuena beretzen badu, abian har batek kitzikatzen dio bihotza, zeren den bere azturari jarraiki: bilhatzen zuen bakea ez dio eman.

Azturer ihardukiz da bihotzeratzen egiazko bakea, ez bere burua azturer utziz. Bakerik ez da beraz haragiaren meneko den gizona baitan, ez eta ere kanpoko gauzetarat ixuria dagon bihotzean; bakea bere arimaren ona bilhatzen duen gizon khartsuak du bakharrik.



7. KAPITULUA

*Esperantza alferrari eta urgulari
behar dela ihes egin.*

1. Bere esperantza gizonetan eta lurreko zeretan jartzen duen gizona, gizon ezdeusa.

Ez ahaltze izan bertzeen zerbitzatzeaz Jesusen gatik, ez eta pobre agertzeaz.

Ez fida zuhauri; jar zure esperantza Jainkoa baitan. Zure ahala egizu zuk; zure nahikunde ona lagunduko du Jainkoak. Ez fida zure jakitateari ez nehoen antzeari, baina ba Jainkoaren graziari, umilak altxatzen eta urgulutsuak aphaltzen dituen Jainkoari.

2. Ez ar espantuka zure ontasunez, aberatsa bazira; ez eta zure adiskideez, jende handietarik direlakotz; jar zure ohorea guzien emaile den eta oroz gainetik bera, den guzia, eman nahi duen Jainkoa baitan.

Zure gorputzaren irazkiaz eta itxura ederraz ez egon hanturik, eritasun txar batek aurtik eta pirtzil baitezazke. Zure antzeaz edo adimenduaz ez ukan urgulurik, Jainkoari gaitzi ez dakion; dukezun ongia Jainkoak emana duzu dena.

3. Bertzeak baino hobea zirela ez uste ukan, bihotzen berri dakien Jainkoak bertzeak baino tzarrago aurki ez zitza. Ez urgulutan sar zure obra onen gatik, bertzelakoak baitira Jainkoaren jujamenduak eta gizoneak, maiz gizoner laket zaiotena Jainkoari higuin baitzaio.

Zerbait onik balin baduzu, sinets, umil egoitekotz, zerbait hoberik badutela bertzeek.

Guzien azpiko jarriz, kalterik ez dukezu; kalte handia aldiz, zure burua bati berari nagusi badaukazu. Gizon umila bethi bakean da; urgulutsuak aldiz bihotza maiz bekaizti du eta khexu.

8. KAPITULUA

Nehorekin ez dela behar adiskidegi.

1. *Ez nor-nahiri ager zure bihotza*, baina zure egitekoez mintza zite gizon zuhur eta Jainkoaren beldur denarekin.

Gazteekin ete arrotzekin bakan egon. Aberatsak ez lausenga; ez izan handikari. Har adiskidetzat jende ahalak eta xumeak, jende khartsuak eta bertutekoak, eta khartsutasunerako gauzez mintza heiekin.

Emazte nehorekin ez izan adiskidegi, baina emazte gisako guziak arthamenda Jainkoari. Lehia zite xoilki Jainkoarekin adiskidetzerat eta haren aingeruekin; ez axola jendeen arteko aiphamenaz.

2. Guziak behar dira maitatu, nehorekin ez adiskidegitu.

Askotan, omen ona duelarik, arrotz batek urrunerat distiratzen dau-tzu, zu hurbiltzearekin ttanpalahara bere dirdira histen zaiona.

Noiz edo noiz gure adiskidetasuna bertzeer laket zaiotela uste dugu, gure eskaser ohartzen diren ber, hastiatzen gituztelarik.



9. KAPITULUA

Bat-bederak bere burujopeari uko egiteaz.

1. On baino hobe da norbaiten azpiko egoitea, buruzagi baten ukaita eta nor bere buruaren nagusi ez izaita. Jaun baino biziki segurago da sehi bizitzea. Asko jende beren onez baino ezin-bertzeagoz daude sehi; holakoak atsegabeen bizi dira eta ezdeustzat errangura.

Sehigoa, Jainkoaren gatik, bihotz onez onhartzen ez duteno, ez ditazke beren arimaren nagusi.

Jo hunat ala jo harat, nehon onik ez dukezu, non ez ziren norbaiten meneko jartzen. Tokiz aldatzeko ametsek eta bertze nonbait hobeki izaiteko usteak hanitz jende enganatu ditu.

2. Egia segur, nor bere asmuen arabera gogotik ari dela eta gogo bereko jendeak maiteago dituela. Bainan Jainkoa gure artean bada, gure asmuer uko egin behar diotegu noiztenka, bakearen onetan.

Nor da othe aski zuhur, guzien osoki jakiteko? Zuhauk asmatuer beraz ez sobera fida; entzun gogotik bertzeek zer dioten. Zuk asmatua zuzena bazen eta Jainkoaren gatik utzi baduzu, bertze bati jarraitzeko, on gehiago baizik ez dukezu utzirik.

3. Maiz entzunik nago, kontseilu emaita baino, entzutea eta hartzea dela segurago. Zuzena ditake nor-bederaren iduripena; urgulutsu halere eta thematsu, bertzeenerat, berdin zuhurra delarik onez onean, jausten ez dena.

10. KAPITULUA

Elhasturitik baztertzeaz.

1. Urrunt, ahal bezanbatean, gizonen arteko elhe-harrabotsetik, munduko zerez solastatzeak kalte handia baitakar, xede hoberenarekin eginik ere. Alabainan urguluak laster beretzen gitu eta zikintzen.

Askotan nahiagoko nuken ixilik egonik eta gizonen artean ez izanik. Zertako bada hain gogotik ari gira elheka eta solasean, maizenik arima zauritan baizik ez girenaz geroz elgarretarik berexten? Zertako? zeren, elheka elgarri, elgar kontsolatzea baitugu bilhatzen, eta gure bihotz, asko gogoetek leherturik daukatena, nahi baitugu arinduz jabaldu. Atseginekin elgarri erraiten dugu orduan eta elgarrekin asmatzen zer dugun maite edo gutizia, edo zer hastio. Bainan ondikotz alferretan eta debaldetan ardura. Ezen kanpoan bildu kontsolamenduek bihotzeko kontsolamenduer eta Jainkoarener kalte handia dakarte.

2. Behar dugu beraz ernerik egon eta othoitz egin, gure egunen ez galtzekotz. Mintzatzerat haizu bazira eta mintzatzea gisa bada, ongirat deramaten gauzez mintzatu behar zira. Gaizki usatuak girelakotz eta bertuteen biltzerat ezazol, gira gehienik hain mihilazo.

Bizkitartean, bertutean aitzinatzeo, on baino hobe, bereziki gogoz eta bihotzez bat Jainkoa baitan egiten duten jende khartsuen arteko solasak.



11. KAPITULUA

Bakearen eta bertutean aitzinatzeko suaren biltzeaz.

1. Bake nasaia ginuke, bertzeek egin eta erranetan ez baginu sudurrik sartzen, eta gure egitekoez baizik ez baginu axolarik. Bakea nondik nola luke luzaz bertzeen egitekoetan sudurra sarturik daukanak; bere hartarik kanpo ausagailuketa dabilanak; bere baitan guti edo bakan biltzen denak?

Dohatsu lañoak, bake nasaia baitukete!

2. Zendako dira batzu osoki saildutu eta othoitzari hola josi? Gutizia lurtiar guzien osoki hiltzerat bermatu direlakotz: hola beren bihotz guziaz Jainkoarekilakatu baitira, eta beren arimaren onari garbiki lotu.

Gure jaidura tzarrek sobera hartzen gituzte gu eta gauza iragankorrek sobera koropilatzen. Aztura bat bakan dugu osoki garaitzen, eta egun oroz bertutean aitzineko ez dugu griñarik; hortakotz gaude ephel eta hotz.

3. Gure buruari osoki uko egina baginio, eta bihotzean deus poxelurik ez baginu, orduan Jainkoarekilako bitarteaz ontsa goza ginitazke, eta haren begirestea zoin den gozo baginakike aphur bat. Poxelu egiten daukun gauza bakharra eta handiena: gure aztura eta nahikari tzarren ez heztea eta Sainduen bide arruntari lotzerat ez lehiatzea. Den atsegaberik ttipiena dathorla, abian, lotsaturik sobera, gizonen kontsolamenduen ondolik gabiltza.

4. Gizon bihozduen pare, gudian tente egoiterat lehiatzen bagina, berehala lathorke Jainkoa gure laguntzerat. Nagusituren gitzaizkotelakotan, guduak igortzen dauzkigun Jainko Jauna gure laguntzerat dago bethi, azkarki gudukatzen bagira eta haren laguntzari fidatzen.

Erlisioeko erakaspén eta eginbideen axialari balin bagaude xoilki eta bertutea hortan badugu jartzen, dukegun khartsutasuna laster itzaliko da. Gaitza errotik motz dezagun, gure azturetarik bihotza garbitu ondoan, bake osoaz jabe gitezen.

5. Urthe bakotx, aztura bat idokitzen baginu, laster saildu ginitazke ondarra. Aitzitik maiz ohartzen gira hobeak eta garbiagoak ginela, khartsutasunari lotu berrian handik zombait urtheen buruan baino.

Egunetik egunerat khartosuago eta sailduago behar ginitazke, bainan ora; asko zaiku hastean ginuen sutik pindarño baten begiratzea. Hastean den gutien indarra egiten baginu, gauza guziak errexi eta gogotik egin ginitazke.

6. Gaitz da aztura zaharren uztea, gaitzago oraino nor bere nahia- ren kontra ibiltzea. Gauza ttipietan eta errexetan zure burua garaitzen ez baduzu, nondik nola eginen dukezu handietan? Zure irrirsari iharduk hastetik, jalgi errotik aztura makurra, emeki emeki handiagotarat ez erortzekotz.

Oi gogoari emaiten baginu, ontsa ibiliz zer bakea ginuken guhauk eta bertzeek zer atsegina, daukat bertutean aitzinatzeko artha gehixago baginukela!



12. KAPITULUA

Atsegabearen onaz.

1. On dugu, noizetik noizerat, atsegabe eta nahigabe zombaiten jasaita, gizona bere-baitaritzen baitute ardura, gogoratzten diotelakotz bidekari bat dela eta lur huntako zeretarik ez duela igurikatze deus.

Artetan aiherkunde zombaiten jasaita on dugu; on ere, bertzeek gu baitan behar ez bezalako zer asko eta eskasia badela uste ukan dezaten, gu xede hoberenekin eta zuzenki bagabiltza ere. Nahigabe hoik maiz on ditugu umil egoiteko eta urgulutik begiratzeko: gizonak erdeinatzen gitudtelarik eta ez direlarik guri fida, orduan dugu Jainkoa gure bihotzaren lekukotzat nahiago.

2. Hortakotz gizonak behar luke Jainkoari hainbertzetaraino bermatu non, ez bailuke gizonen kontsolamenduen ondotik ibiltzerik. Xede oneko gizonari sor dakiola nahigabe, tentazione, gogoeta tzar, orduan da ohartzen Jainkoaren zer beharra duen: Jainkoa gabe ongi ttipienaren egiteko ez dela. Orduan ere da histen eta hasperenka othoitzari lotzen, jasaiten dituen atsegabeen gatik. Orduan luzazegi bizitzea hastio du, herioari minki hel egiten dio, *hil bezain laster Jesusekin izaita gatik*. Orduan ere da ohartzen ontsa lur huntan ezin ditakela sosegu ez bake osorik.

13. KAPITULUA

Tentazioneari gogor egiteaz.

1. Mundu huntan gireno, atsegaberik eta gudurik gabe ezin gitazke izan. Hortakotz zion Job gizon sainduak: *gizonaren bizia bururen buru da gudu*.

Beraz nork bere guduer buruz erne behar luke izan eta atzarririk othoitz egin, nondik lot aurki ez diezon debruak, debrua nehoiz ez baitago lo, *bainan itzulika baitabil nor ausik*. Nehor ez da hain saindu non ez duen noiztenka gudu; osoki tentazionerik gabe ezin gitazke.

2. Guduak badira bizkitartean, gizonari maiz on handia dakartenak, nahi bezain akitgarriak eta dorpeak izanikan ere, gizona aphaltzen dutelakotz, garbitzen, trebatzen.

Hanitz atsegabe eta gudu izanik daude saindu guziak eta bertutean aitzinatze baliatu zaizkote. Tentazioneak ezin jasan dituztenak aldiz, madarikatu izan dira eta galdu. Ordena hain saindurik ez da, ez toki hain gorderik, non ez den gudurik eta nahigaberik.

3. Bizi deno, gizonik ez da osoki tentazionerik gabe, tentazioneak baduelakotz gu baitan hazkurri, jaidura tzarrez baikira sortzetik orhatuak. Gudu bat edo nahigabe bat itzal, bertze bat dathor; bethi badukegu zer jasan, gure lehenbiziko dohatsutasuna galdua dugunaz geroztik.

Askok beren baitako gerlari ihes egitea bilhatzen dute, barnago baik ez baitira han sartzen. Tentazionea ezin dezakegu garait ihes eginez baxharrik; jasankor izanez eta egiazki umil, gitazke etsai guzier nagusi.

4. Erroak utzirik, gaizkiari axaletik baizik aztaparka lotzen ez dena, bertutean guti aitzinatuko da. Tentazioneak lasterrago bihurturen zaizko berriz eta gogorkiango dute joko.

Khexatuz eta gogorki ihardukiz baino errexkiago, tentazioneak urrunduko ditutzu jasankor izanez eta, Jainkoaren laguntzarekin batean, iraunkor. Tentazionetan galda kontseilu maizago; tentazionetan denaren alderat ez izan muthiri, izaitekotz kontseilu emozu, zuhauri emaita nahi zinuken bezala.



5. Tentazione gaixto guzien ithurburua, bihotzaren ahulezia eta Jainkoaren alderateko fidantza ttipia: uhinek lemarik gabeko itsas-untzia harat eta hunat derabilaten bezala, tentazioneek berdin baiterabilate gizon ahul bere xedetan ez dagona.

Suak frogatzen burdina; gizon zuzena tentazioneak. Gure ahala zonbatetokoa baikaude maiz; tentazioneak dauku erakusten haren bethea. Atzar egoiteko dugu bizkitartean, guziz tentazionea jazartzerakoan: etsaia erreaki garaituko dugu, arimaren barnerat sartzerat ez utziz, eta athea jo orduko hak, athean berean oldartzen bagitzaizkio.

Hortakotz dio norbaitek: iharduk gaitzari, erroak egin aitzin; beranduz, sendagailu guziak debalde. Badathorkigu lehenik gogoeta bat, laster gu baitan itxura bat hartzen duena; gero itxura hortan nahaspilatzen zaiku bihotza; azkenekotz dathorkigu higidura tzarra, eta baimena. Etsai maltzurra hola sartzen da baratxe baratxe, hastetik ez gitzaizkolakotz bihurtzen. Nor-bera zonbat ere baita oldartzerat uzkurrago, hanbatez da egunetik egunerat ahulago; etsaia aldiz azkarrago.

6. Batzuek zuzen-biderat itzuli berrian dituzte tentazione bortitzenak; bertze batzuek aldiz zuzenbidean gogortu direlarik. Bertze zombaitek kasik bizi guzia guduka deramate; bakhar batzuer arinki zaizkote tentazioneak jazartzen; hoik oro Jainko guziz zuhur eta zuzenak nola duen nahi: Jainkoak bat-bederaren heinari eta merezimenduer baitiote behatzen, denak bere hautetsien onetan egi ten dituela.

7. Ez dugu zeren etsi tentazionea jitearekin; izaitekotz, Jainkoa behar dugu are khartsukiago othoiztu, herstura guzietan gure laguntzerat jauts dadin. Jondoni Paulok diona: *probetxurekin jalgiiko gitu hortik, garaitzeko ahala emanik*. Tentazione eta nahigabe guzietan beraz, Jainkoaren eskupean apha dezagun burua, bihotzez umilak baititu Jaunak goratuko eta salbatuko.

8. Tentazione eta nahigabeetan du gizonak ikusten nondik zertaratua den: hoitan da merezimendua handitzen eta bertutea hobeki agertzen. On eta khartsu izaitea ez da gaitz, nekerik gabe bizi denean; baina, atsegabea jitearekin, bere burua umilki jasaiten duena, bertutean aitzinatzeari badagoke.

Batzuek tentazione handienak garaitzen dituzte, egun orotako ttipietan behaztopatzen direnak; tentazione ttipietan hain ahul izaiteak umiliaturik, handietan beren indarrer sekula ez ditezen fida.

14. KAPITULUA

Nehor ez dela ausartziarekin jujatu behar.

1. Beha ontsa zuhauren buruari, eta bertzeek eginen jujatzetik begira. Bertzeak jujatuz, alferretan akitzen da gizona, ardua enganatzen eta hutsean errexki erortzen. Aitzitik, bere barnea ikertzen eta jujatzen duena, bethi irabazitan doa.

Gure bihotzaren goiti-beheitien arabera jujatzen dugu bethi kasik, eta, gure burua maitez, errexki baztertzen gira egiaren ganik. Gure xede eta gutziak Jainkoarekilakoak balira bethi, gure jiteari ez doazkon gauzez ez ginitazke hain errexki asalda. Baina maiz gu baitan gorderik daukagun edo kanpotik gutarat jin zerbaitek, makur geramatza gu ere.

2. Hanitzek egintza guzietan beren burua dute bilhatzen gordeka; hori, berek jakin gabe. Bakean direla iduri dute oraino, gauzak beren gogo-bihotzen arabera doatzino. Baina kaskoan dutenaz bertzerik gerta dakiotela, abian asaldatzen dira eta histen.

Ez direlakotz jite eta gogo berekoak, elgarren artean hizkatzen dira arduraxko bai adiskide bai herritarrak, fraile, serorak, nola gizon emazte othoitz-zaleak.

Aztura zahar bat nekez galtzen; nor berak ikusi hartarik urrunago nehor ez gogotik johan.

Jesus Jaunaren laguntza boteretsuari baino gehiago zure adimenduari eta antzeari bermatzen bazira, bakan eta berant baizik ez dukezu haren argirik, zeren Jainkoak bere azpiko nahi baikitu osoki, eta, amodio suhar baten bidez, dituzkegun argi guziez gorago altxatu.



15. KAPITULUA

Karitatezko obrez.

1. Deuseren ez nehoren amodioz, gaizkirik ez egin. Bainan, noiz edo noiz, hasi obra on bat gerokotzat utz ditake, beharrezko zerbitzu baten egiteko; halaber bertze obra hobe bati lotzeko. Bide hortaz obra ona ez da galtzen, baizik handituz hobetzen.

Karitaterik gabeko obra edozoin, deusetako ez on; Jainkoa maitez eginek, aldiz, onik baizik ez dute, xumeenak eta herrestenak izanikan ere. Zer ari giren, zertako baino, Jainkoak gutiago behatzen du.

2. Hanitz du egiten, hanitz maite duenak; hanitz halaber, egiten duen hura ontsa duenak egiten. Bere buruari uko eginik bertzeentzat artzea, ederki. Maiz uste dugu bertzeak maitez ari girela, gure burua maitez ari girelarik; gure jaidura tzar, nahikunde makur, sari baten esperantza, ontsa izaiteko gutizia, bakan dira itzaltzen.

3. Jainkoa egiazki eta osoki maite duenak, bere burua deusetan ez du bilhatzen; orotan haren gutizia baxharra Jainkoaren ospea da. Nehorentzat ez da bekaizti, ez dabilalakotz bere atseginaren ez eta bere baitako zorionaren ondotik; oroz lehen, Jainkoa baitan dohatsu izaitiaz da gose. Nehor ez dauka ontasun izpiren ithurburu, bainan oro Jainkoari dakartza, Jainkoa delakotz ontasun guzien ithurburu eta Jainkoa baitan dutelakotz saildu guziek bake eta zorion aurkitzen.

Jainkoarentzat amodio pindarño bat bera lukeena, laster ohar litake munduko zerak hutsal eta ezdeusak direla.

16. KAPITULUA

Bertzeen itzalen jasaitez.

1. Gure ala bertzeen baitan ezin zuzent ditzazkegunak, pazientziarekin ditzagun jasan, Jainkoak bertzela antolatu arte. Sinets zeure frogarentzat eta pazientziarentzat hola dela hobe, ezen, pazientziarik gabe, gure merezimenduek ez lukete hazta handirik.

Halere holako hersturan Jainkoa duzu minki othoizteko, zure laguntzerat aphil dadin eta horren umilki jasaiteko ahala eman diezazun.

2. Norbait, behin edo bertze abisatu ondoan, ez bada zure hartarat erortzen, harekin ez gehiago hizka, bainan bego auzia Jainkoaren gain: Jainkoaren nahia eta ospea egin ditezen bere zerbitzari guzietan, badakielakotz berak gaizkiaren oneratzan.

Bertzeen itzalen eta hutsen pazientziarekin jasaiteat lehia zite, zuhauk bertzeer nasaiki emaiten baitiozute zer jasan. Zeure burua nahi bezala ezin molda-ta, bertzeak nola nahi ditutzu zure gogorat moldatu? Bertzeak itzalik gabe ikusteaz atsegin duzu, zeureer ez ordean uko egiten.

3. Bertzeak nahi ditugu bide zuzenean garrazki ezarri, bainan guhauk erasienez entzutea ere ez onhartzen. Bertzeek esku sobera ukan dezaten hastio zaiku; guk bizkitartean galdatauak oro nahi. Bertzeak nahi ditugu tinki tinkia atxikiak ikusi, guretzat denak haizu nahi ditugularik.

Hoiatarik ageri da beraz zoin bakan nahi ditugun bertzeak gure ozka berean ikusi. Guziak itzalik gabeak balira, Jainkoarentzat non noren ganik zer ginuke jasaiteko?

4. Bainan Jainkoak bertzela du egin, elgar jasaiten dezagun ikas: nork bere jasaitekoa badu: nehor ez da itzal gabekorik; nehor ez osoki berez bere doakenik; nehor ez bere doi denik; nehor ez beretzat aski zuhur. Jasan dezagun beraz elgar, elgar kontsola, elgar lagunt, argi, abisa.

Atsegabeetan da hobekienik ageri gizona. Ez gituzte bailezpada ahultzen atsegabeek, ba ordean erakusten nolakoak giren.



17. KAPITULUA

Komentuetako bizitzeaz.

1. Zure buruaren garaitzen behar duzu ikasi, bertzeekin ados eta bakean nahi bazira bizi. Ez da guti komentuan bizitzea, han aharrarik gabe egoitea, eta hil arte bide zuzenean irautea. Dohatsu, han sainduki bizi dena eta bere bizia heriotze on bateratzen duena!

Bertutean nahi baduzu gogortu eta aitzinatu, orhoit lur gainean bidekari zirela eta zure egiazko egoitza zerua dela. Zure burua behar duzu Jesusen gatik erhotzat iduki, bizi khartsu bat nahi baduzu ereman.

2. Jauntzia eta buruko koroa guti dira ari; egiazki khartsu izaiteko, bizi-moldea da behar oneratu eta azturak zaphatu.

Jainkoaz eta bere arimaren salbatzeaz bertzerik bilhatzen duenak, atsegaberik eta bihozminik baizik ezin dezake bil. Bertzeen meneko xume xume izaiterat lehiatzen ez denak, ez dirauke luzaz bakean.

Zerbitzari, jina zira, ez nagusi. Jakin zazu nahigabetarat eta lanerat deitua zirela, ez pausarat edo solas alferretarat. Komentuan frogatzen da beraz gizona, urhea labean bezala. Komentuan nehork ezin dezake iraun, non ez duen osoki bere bihotza Jainkoaren gatik aphanaldu gogo.

18. KAPITULUA

Sainduak eman erakuspenez.

1. Beha hain osoki saindu eta khartsu izan direnek eman erakuspen sanoer; ikusiko duzu deus guti dela, edo deus ez, zuk egiten duzuna. Ondikotz zer da zure bizia heienaren aldean? Sainduak eta Jesusen adiskideek Jainkoa zerbitzatu dute, izan zitezen ala gose eta egarri, ala hotz eta buluz, ala lanez ithoak eta unhatuak, ala beilari eta barur, ala othoitzari eta gogoeta sainduer josiak, ala laido eta nahigabeen pean lehertuak.

2. Oi zonbat atsegabe dorpe jasanik dauden apostoluak, martirak, kobesorak, birjinak eta Jesusen urratser jarraiki diren bertze guziak! Alabainan beren bizia higuin ukan dute mundu huntan, bethiereko biziaz jabetzeko.

Oi zer bizi hertsia eta nekatua, bortuetako sainduen bizia! Zer gudu luzeak eta bortitzak jasan dituzten! Etsaia zoin ardura eta saminki oldartu zaioten! Zer othoitz jarraiki eta khartsuak dituzten Jainkoari eskaini! Zer barur garratzak egin!

3. Egunak lanean, eta gauak othoitzean; lanean ari zirelarik ere, gogoa bethi othoitzari. Gau-egunak probetxurekin higitzen zituzten; Jainkoarekilako orenak laburrak zaizkoten; eta Jainkoari othoitzean egoiteak eman atseginarekin, ahanzten ere zituzten gorputzaren behar beharrenak.

Aberastasun, kargu, ohore, adiskide eta ahaide guzier uko eginik zauden; munduaren ganik ez zuten deusik nahi, bizitzeko behar den hura doi-doi zuten hartzen; gorputza arthatzen zutelarik ere, ezinbertzez eta hasperenka.

4. Lurreko ontasunez gabeturik zauden beraz, bainan graziaz eta bertutez zoin aberats! Itxuraz ororen eskasian, bainan bihotza Jainkoaren graziak eta kontsolamenduek azkarturik. Munduari arrotz, bainan Jainkoarekin adiskide min. Beren burua ezdeus zaukaten eta mundutiarren trufa-bazka, bainan Jainkoak negurrian gorensten zituen eta minki maite.



Egiazki umil ziren, bertzeen azpiko lañoki bizi. Jasankor ziren eta karitatez betheak, eta hola egun oroz bertutean aitzinatuz bazoatzen, Jainkoaren ganik grazia nasaienak ardiesten zituztela.

Jainkoak giristino guzier baititu erakuspentzat eman, sailduiek bertuteari buruz behar gituzte sustatu, jende ephelik ezazolkeriari buruz baino azkarkiago.

5. O zer komentuetako guzien kharra, sortu zelarik heien ordena! Heien othoizten beroa! Heien bertutearen sua! Beren egitekoen burutik buru bethetzeko zer lehia! Beren buruzagientzat zer herabea eta jauspena!

Utzi dauzkiguten hatzak hor dira lekuko oraino, zer gizon saildu eta bertutekoak izan diren, azkarki gudukatuz nola duten mundua oinkatu.

Handi zaiku orai, eman hitzaren ez jatea, eta hartu uztarriaren khexatu gabe jasaitea.

6. Oi gure oraiko epheltasuna eta ezazolkeria; hastean ginuen kharra zoin laster hil zaikun, orai hain baikira ephel eta nagi non bizitzea bera hastio baitugu.

Bertutean aitzinatzeko zure lehia ez ahal da osoki hilen, saildu khar-tsu hoiaren obren orhoitzapenez hain ardura berotu ondoan.

19. KAPITULUA

Jende Khartsuaren egitekoen.

1. Egiazko jende khartsua! bertute guzietz dadila jabe, kanpoz iduri duen bezalakoa izan dadila barnez. Eta oraino kanpoz iduri duen baino biziki sailduago behar da barnez, Jainkoa dugulakotz behari: non-nahi izan, haren ahalge behar gira gain gainetik eta haren aitzinean ibili aingeruak bezain garbi.

Gure xede onak egun oroz behar ditugu berri eta gure kharra piztu, khartsutasunari egun beretik lotuak bagina bezala, Jainkoari diogula: nere xede onetan eta zure zerbitzuan lagunt nezazu, Jauna; egizu erro-tik has nadin egun, egun arte deusik ez baitut egin.

2. Hartu xedeen azkarraren arabera ohi gira aitzinatzen bertutean: aitzinatu nahi dena, pikoz ari behar da.

Xede azkarrak hartzen dituen bera maiz erortzen bada, zer othe, bakan edo ahulki hartzen dituen? Xedeer ez jarraitzea bizkitartean gertatzen da asko moldez, eta gure egitekoetan hutsik ttipienari ondorio makurra darraio.

Hartu xedeen bethetzeko, beren zuhurtziari baino gehiago Jainkoaren graziari daude sailduak; zernahi gerta, Jainkoari fida dira bethi. Alabainan *gizonak hartzen du xede, bainan Jainkoak ditu bere nahitarat antolatzen gauzak, eta gizona bere bidez ez da nagusi.*

3. Jainkoa maitez edo lagunaren onetan, gure egitekoetarik bat huts-egiten badugu noizean behin, huts hori geroxago erreki bethetzen ahal dugu. Bainan huts hori nagikeriaz edo ezazolkeriaz egiten badugu, guti edo aski hobendun gira eta ondorio tzarrak dakarzke.

Indar egin dezagun beraz ahal bezanbatean; askotan, berdin, eroriko gira erreki. Halere xede bat edo bertze behar dugu bethi hartu, guziz poxeluenik ditugun gauzen urruntzeko. Artha berarekin behar ditugu kanpoa eta barnea aphaindu, biak baitezpadakoak baitira bertutean aitzinatzeko.

4. Ezin bazitazke zeure baitan bildurik egon alderat, bil bederen noiztenka, gutienetik egunean behin: goizean edo arratsean. Xedeak har



goizean eta zer egin duzun iker arratsean, iker nolakoak izan diren zure elheak, obrak eta gogoak, hoietan baititutzu segur Jainkoa eta laguna maizenik laidoztatu.

Gizon bati doakon bezala, debruaren maltzurkeriari ihardukitzeko zaude ernerik; neurt jan-edanak eta errexkiago heziko ditutzu haragiaren nahikeriak.

Ez egon behinere osoki alferrik, bainan ar bethi zerbait, edo irakurtzen, edo idazten, edo othoitzean, edo guzientzat on den zerbait lanetan. Bizkitartean gorputzeko lan ala jostetak egin negurrirekin, ez baitira guziak guzientzat berdin on.

5. Bertzeekin batean egin behar ez ditugunak ez dira agerian egitekoak, egiteko bereziak hobeki egiten direlaket lekukorik gabe. Ez izan ere uzkur ororekilako lanetarat, ez eta lan berezietarat ernegi; bainan zure egitekoak eta eginbideak osoki eta leialki bethe ondoan, aizinarik gelditzen bazaitzu, egin zure khartsutasunak galdatzen dautzuna.

Ezin dezakete denek khartsutasunerako bide bera har: bati doakona bertze bati ez. Bertzalde bide hoiendatzea laket zaiku, zoin egunez bat, zoin egunez bertzea: humelako bidea besta egunetan laketago, horrelakoa aste-egunetan. Bide hoitarik batzu tentazione orduetan hartzekoak dira, bertzeak bake eta deskantsu egunetan. Batzu har ditzazkegu ilhun gaude-larik, bertze batzu Jauna baitan botz girenean.

6. Gure khartsutasunezko urratsak besta egunetan berritzekoak dira, eta sailduen laguntza minkiago eskatzekoa. Besta batetik bertzerat arima behar dugu aphaindu, mundu huntarik orduan ilkitzekoak bagina bezala eta bethiereko bestarat heltzekoak. Hola gure bihotza besta egunetan art-hazkiago behar dugu aphaindu: khartsukiago ginuzke erabiltzeko gure solasak Jaunarekin, hertsikiago ginuzke bethetzeko gure eginbide guziak, Jainkoa ganik gure nekeen sariaren biltzeko hinkan bagina bezala.

7. Eta hinka hau Jainkoak luzatzen badu, sar dezagun buruan Jainkoak egin tenorean ikusiren dugun zeruaz ez ginela oraino gai, eta hobetzerat lehia giten, mundu huntarik athera baino lehen.

Dohatsu, dio Jondoni Luc Ebanjelio idazleak, dohatsu Jainkoak jitearekin atzarririk haizemanen duen zerbitzaria! Egiaz derraizuet, bere ontasan guzien jabe ezarriko duela.

20. KAPITULUA

Bakhartasunaren eta ixiltasunaren maitatzeaz.

1. Zure arimaren arthatzeko astia bilha zazu eta orhoit zite ardura Jainkoaren ongi-eginez. Utz ergelkeriak; zure irakur-geiak hauta ontsa, gogo-ausagarri baino bihotz-hunkigarriago izan ditezen.

Elhasturitik eta harat-hunat alferretarik begiratzen bazira, bai eta elhe puruxken entzutetik, gogoeta sailduentzat aizinarik aski kausituko duzu.

Gizonen batzarretarik ahal bezanbatean urruntzen ziren saildu handienak; bakhar bakharrik nahiago zuten egon, Jesusen zerbitzatzeko.

2. Beihalakoak zion: gizonen artean izan nizan aldi guziz, eskasago itzuli niz. Horri ohartzen gira gu ere, luzaz elhekatu girelarik. Izariz mintzatzea baino errexago, ixilik egoitea; eta etxean gorderik egoitea ere, kanporaz geroz behar bezala bere buruaren zaintzea baino. Bizitze saildu eta khartsu baterat heldu gogo duenak beraz, Je usekila baitezpada munduko harrabotsetik urrundu behar du.

Lanjerik gabe nehor ez ditake kanporat ager, non ez duen gorderik egoitea maite. Izarian nehor ezin mintza, artetan gogo onez ixiltzen ez badaki. Maipuruan jarririk nehor ezin egon segurki, bertze burua berdinean laket ez bazaio. Irriskurik gabe nehor ezin mana, non ez duen obeditzen ontsa ikasi. Nehor ez egiazki botz, non ez duen lekukotzat kontzientzia garbi baten argia.

3. Hoik hola, sailduen fidantza Jainkoaren alderateko beldurraz bethena zen; bertutez nahi bezain distirant izan gatik, graziaz nahi bezain aberats, ez ziren gutiago erne eta umil. Tzarrak aitzitik trebe dira, urgulutsu direlaket eta beren buruari fidegi; bainan azkenean, trebearen trebez, berak enganatzen dira.

Mundu huntan bake osorik nehoiz ez igurika, komentuan edo bortuan bizirik ere sailduki eta khartsuki.

4. Askotan, beren buruari sobera fidaturik, jendeek saildu handitzat zauzkaten gizonak galbide handienerat erori izan dira. Hortakotz, hantzek on baino hobe dute, tentazionerik batere gabe bizitzea baino, maiz



tentatuak izaitea: hori, beren buruari ez ditezen sobera fida, ez eta urgulutan sar; ez ditezen ere bazterrez bazter ibil kontsolamendu-keta.

Atsegin iragankorren ondotik nehoiz ibil ez litakeenak, munduaz sekula ez lukeenak axolarik, o zer kontzientzia garbia luken hak! Behar gabeko griña guziak bazter litzazkeenak, bere salbamenduarentzat eta Jainkoarentzat baizik gogorik ez lukeenak, bere esperantza guzia Jainkoa baitan jar lezakeenak, hak luke, hak, bake eta sosegu!

5. Nehor ez da zeruko atseginen gai, non ez duen bere bekatuen urrihia bihotzean artharekin hazten.

Bihotzaren zolaraino nahi bazira urrikitu, sar zure gelan, munduko harrabotsetik urrunt. Errana den bezala: *oheraturik ere, urrikiarekin egizu lo*. Kanpoan maizenik gal zinezakeena, zure gelan duzu kausituko. Bakan atheraz da, bakharrrik egoitea goxo bilhakatzan; ardura aire hartuz, bakharrrik egoiteaz asetzen da jendea. Khartsutasunari lotu berrian, bihotz onez bazaude bakharrrik, bakharrrik egoitea gero-ta gehiago maitaturen duzu eta atseginekin gozaturen.

6. Ixiltasunean eta bakean du egiten bide arima khartsuak eta Liburu Sainduen mamia ikasten; han du gau oro, bere arimaren garbitzeko, nigarren ithurria kausitzen; zonbat ere baita munduko harrabotsetik urruntzen, hanbatez izaiteko Jainkoaren adiskide. Bere ahaidetarik beraz eta adiskidetarik urruntzen denari Jainkoa hurbiltzen zaio, bere aingeru-sainduekin.

Gorderik egoitea eta bere arimaren arthatzea hobe da, ezazol izaitea eta mirakulu egiten artzea baino. Laudagarri, bakan ilkitzen den jende khartsua, gizonetarat agertzea higuin zaiona; gizonik nehor, ikusteko atseginez ikusi nahi ez duena!

7. Zendako nahi duzu ikusi, jabetzea haizu ez zaitzuna? Iragakor mundua eta haren gutziak.

Harat eta hunat ibiltzerat ixuriak gira jitez, bainan hola ibilirik zer zaiku gelditzen, kontzientzia zauritu eta bihotz barreiatu batez bertzerik? Alegera ilkitzen dena, maiz hits itzultzen. Bozkariozko gauak, biharamun ilhuna. Lurtiar atsegin edozoin emeki emeki sartzen da bihotzean, dena phereka, eta ondarrerat ausikian hiltzen du.

Non zer ikus dirozu, ziren tokian ikusten ez duzuna? Horra zerua, lurra, airea, sua eta ura: hoiekin eginak dira guziak.

8. Non zer ikus dirozu, luzaz iraun dezakenik iguzkipean? Zure gutzia guziak betheko ditutzula uste duzu, bainan ez zitazke bortarat hel. Zeure begiez ikusten bazinitu ere denak, zer litake hori, ikuste alfer bat baizik? Goiti begiak, Jainkoari buruz, eta egin othoitz zure bekatu eta ezazolkerientzat. Utz gauza alferrak alferrer; zaude xoilki zu Jainkoak manatu.

Hets barnetik zure gelako athea, eta deit zure ganat Jesus maitea. Gelan zaude harekila: nehon ez duzu halako bakerik aurkituren. Atheratu ez bazina, munduko azantzatarik ez bazinu entzun deus, bakean hobeki zinitazken egon. Zerbait berri entzutean atsegin hartzen duzun ber, nahi-t'ez bihotza nahasirik zira gelditzen.



21. KAPITULUA

Bihotzeko urrikiaz.

1. Bertutean aitzinatu nahi bazira, atxik bihotzean Jainkoaren beldurra; zeure burua ez sobera erein, bainan zure jaidura guziak zaint hertsiki eta bozkario alferrer ihes egin. Urrikia landa zazu bihotzean eta khartsutuko zira. Bihotz barreiatuak galtzeko ohi dituen ontasunak, bihotz urrituak beretzen ditu.

Harrigarri da gizona nola ditaken osoki alegera mundu huntan, bidekari bat dela orhoitzearekin, bere arima holako galbide handietan ikustearekin.

2. Bihotzez arin girelakotz eta gure hutsen xuxentzeko nagi, gure arimaren gaitzer ez gitzaizkote ohartzen; bainan maiz, nigar egiteko orde, gure zorokerian irriz gaude. Nehor nehon ez da egiazki libro eta botz, non ez den bihotzez garbi eta Jainkoaren beldur.

Dohatsu, bihotzaren barrea-bide guziak bazterturik, bere burua urriki saindu baterat bil dezakeena! Dohatsu, bihotza karga edo lohi dezaketen guziak, bere baitarik urruntzen dituena!

Guduka gizonki: ohidurak ohidura garaitzen baitu. Alde baterat gizonen uzten balin badakizu, gizonek ere zu zeure egitekoen bethetzerat utziko zituzte.

3. Bertzeen zeretari sudurrik ez sar, ez eta ere buruzagien egitekotan. Zeure buruari beha zorrozki lehenik; adiskideer oilarkatu baino lehen, zuhau zuhauri oldar.

Ez baduzu jendeen ara egiten, ez sar atsegabetan; gogoari eman ordean gaizki zoatzila, ez zirelakotz Jainkoaren zerbitzari khartsu bati doakon bezain bildu eta gurbil.

On baino hobe du gizonak, eta maiz segurago, mundu huntan atsegin sobera ez dezan jasta, guziz haragiaren arabera. Bainan Jainkoa ganikako atseginik ez badugu edo bakan baizik, hobendun gu, bihotzeko urrikia ez dugulakotz bilhatzen, ez eta kanpoko atsegin alferrer uko egiten.

4. Onets ez zirela zerutikako atseginen gai, atsegabe hanitz duzula izaitekotz merezi. Bihotzean urrikia duen gizonari mundu guzia kirets eta

dorpe zaio, hasperen eta nigar-biderik aski bere baitan kausitzen duela-kotz gizon jainkotiarak. Bere buruari so egin ala bertze bati egon beha, mundu huntan nekerik gabe nehor ez dela badaki. Bere buruari hurbil-gotik beha, eta nigar gehiago du egiten.

Bihotzeko urrikiaren eta nigarren ithurburu zuzenak gure bekatuak dira eta hobenak; hala gauzkate iraulirik non, zeruko gauzak bakan baizik ez baitetzazkegu gogora.

5. Luzaki bizitzeaz baino maizago orhoitzen bazina heriotzeaz, duda-mudarik gabe khar gehiago bazinuke zure bizi-moldearen zuzentzeko. Ifernuko eta Purgatorioko oinhazeez ontsa orhoitzen bazina, daukat edozer lan eta nahigabe gogotik jasan zinezakela, eta edozoin neke ikharatu gabe onets.

Bainan egia hoik ez ditugulakotz bihotzerainotzen, eta gorputzaren mainak maite ditugulakotz, gaude ephel eta nagi.

6. Maiz, ez girelakotz aski khartsu, da gure gorputza errexi erran-guratzen. Othoitz zazu beraz umilki Jainko Jauna, urrikia eman diezazun bihotzean; errozu profetarekin: *haz nezazu, Jaunar, nigarrez bustizko ogjarekin eta nigarra emadazu edaterat untzitik.*



22. KAPITULUA

Gizonaren atsegabeaz.

1. Non-nahi izan ziten, edozoin eskualdetarat ziten itzul, dohakabe zu, non ez ziren Jainkoari buruz itzultzen.

Zendako asalda, gauzak ez direnean zure nahiaren eta gutziaren araberakoak! Nork non ditu oro, berak nahi bezala? Ez nik, ez zuk, mundu huntan ez nehork. Nehor ez da mundu huntan atsegaberik eta griñarik gabe, izanikan ere errege ala Aita Saindu. Nor da zorionsuena? Jainkoarentzat zerbaiten jasaiteko on dena.

2. Asko jende ahul, buru arinek derasate: holakoak behazue zer bizi ederra deraman, zoin den aberats, zoin ahaldun, zoin handi! Beha bada zeruko ontasuner, eta ikusiren duzu lurrekoak ez direla deus: egun ba, bihar ez, jasangaitz, gozatzeko bethi ikhara eta griñabide.

Gizonak, zorionsu izaiteko, ez du nasaiki aberats behar, bizitzeko doi hura aski du. Egiazko atsegabea, mundu huntan bizitzea. Gizona jainkotiarago eta bizi hau kiretsago zaio, bere gorputz ustelkorraren eskasak hobeki senditzen dituelakotz eta garbikiago ikusten. Ezen jatea, edatea, atzarririk egoitea, lo egitea, pausatzea, lanean artzea eta gorputzeko berzte beharren meneko izaitzea, hoik oro atsegabe zaizko eta nigargarri gizon khartsuari, bihotzez nahi bailuke lokarririk gabe eta bekatu guzietarik garbi bizi.

3. Gorputzaren beharrak alabainan poxelu ditu gizon jainkotiarrak. Hortakotz zagon profeta Jainkoari oihu-minez: *nere beharretarik garbi neza-zu, Jauna*. Zorigaitz ordean beren atsegabearen berri ez dakitener; arre zorigaitz bizi herresta eta ustelkor hau maite dutener! Nahiz esketik edo lanetik herrestan bizi diren, zonbaitek bizi hau hain dute maite non, zeruaz ez bailukete axola mikorik, hemen egoiten ahal balira bethi.

4. Oi bihotz argalak hek eta fede gabekoak! lurreko gauzer hain dira josiak non, hetaz landa, deusentzat ez baitute gosturik, Bainan, dohakabeak, azkenean ohartuko dira ondikotz, maite zituzten gauzak zoin diren huts eta ezdeusak.

Sainduak aldiz eta Jesusen adiskide khartsuek gorputzaren nahikerientzat eskerrik ere ez zuten, ez eta beren mendeko edergailuentzat; bet-

hiereko ontasunentzat baizik ez zuten bihotzik, gogorik eta hatsik. Gutziarik ez zuten zeruko gauza bethierekoentzat baizik; lurreko ontasunen amodioak errekarra zitzaiz beldur baitziren.

Anea maitea, bertutean aitzinatzeaz ez othoi etsi: hemendik goiti ere epe badukezu.

5. Lan horri lotzeko, bihar arte zendako igurika? Xuti zite eta has berehala, diozularik: orai da xedeen obratzeko tenorea, orai gudukatzeako orena, orai zuzenagoki bizitzeko danga.

Nekeak eta nahigabeak jitearekin, merezimendu irabazteko tenorea ere da jina. *Suaren eta uraren artetik behar duzu iragan, goza-lekurat heldu aitzin.*

Zure jiteari ez badiozu ihardukitzen, zure ohidura tzarrak ez ditutzu garaituko. Gorputz herbail hau dakarkeguno, ezin gitazke bekatu gabe, ez neke eta bihozminik gabe.

Gogotik bizi ginitazke bakean, atsegabe guzietarik maldan; ba gogotik, bainan, bekatu eginez, inozentzia galdu dugulakotz, galdu ere baitugu egiazko zoriona! Baitezpada pazientzia hartu behar dugu beraz eta Jainkoaren urrikalmendua igurikatu, *gure arimako lohia ezeztatu eta haren hiltahia bethiereko biziak iretsi arte.*

6. O zoin den ahul gizonaren gemena, bethi gaizkirat lerratzen denaz geroz! Zure bekatuak egun aithor, eta bihar beretar eror. Zure buruaren zaintzeko xedea har orai, eta, oren bat barne, xederik hartu ez bazinu bezala ibilki. Zinez gure burua aphaltzeko dugu; harrokeriatik begira giten bethi, hain ahul eta aldakor girenaz geroz. Lan handirekin, graziaren bidez, bilduxea duguna gal dezakegu, begiak itzul artean, ezazolkeriaz.

7. Nola izanen othe gira egunaren ondarrerat, goiz goizetik hoin bihotz-gabe girenean? Zorigaitz guri, pausa nahiz baikabiltza, jadanik bakearen eta soseguren jabe bagina bezala, gure bizi-moldean saindutasunaren itzalik ere ez delarik ageri oraino!

On ginuke, khartsutasunari lotu berrian bezala, bertutean nola aitzina berriz ikasten hastea, ikusteko ordutik harat, gure jaidurak xuxenduz, bertutean geroago aitzinatuago goazkenetz.



23. KAPITULUA

Heriotzearen gogoan erabiltzeaz.

1. Zure lur huntakoak laster egina duke; ikus beraz zertan duzun arima. Gizona egun ba, eta, bihar ez. Begietarik itzali orduko, gogotik ere laster itzalia.

Oi gizonaren zorokeria eta bihotz gogorra, oraikoaz xoilhi orhoitze-ko eta geroaz ez gehiago axolatzeko! Zure xede eta obra guzietan erabili behar zinueke, egun berean hil behar bazina bezala.

Kontzientzia garbi bazinu, hiltzeaz ez zinueke holako beldurrik. Heriotzeari ihes egitea baino, hobe litake bekatuari uko egitea. Egun hiltzeko ez on, nola zinitazke bihar? Biharamuna ez da nehoren eskuko; zer dakizu ikusiren duzunetz?

2. Zer du balio luzaz bizitzea, hain guti girenaz geroz ontzen? Luzaz bizitzeak ez ditu bethi ontzen, hobendunagotzen ba ardura. Jainko Jauna! ai bagina, mundu huntan, egun bat bera behar bezala higatu!

Askok Jainkoari eman urtheak kondatzen ba, bainan ez ohartzten zonbatetaraino diren agorrak.

Hiltzea izigarri, luzazegi bizitzea izigarriago nere ustez. Dohatsu, bere heriotzeko orena bethi begien aitzinean daukana eta ontsa hiltzeari egun oroz ari dena! Gizon bat ikusi baduzu hiltzen behin, ateka bera zuretako ere dagola orhoit.

3. Goizetan egizu arratserat ez zirela helduko. Ilhuntzetan zure buruari ez hitzeman biharamuna. Zaude beraz bethi ernerik; bizi zite, herioak uste gabean ez hatzemaiteko gisan. Tipustapan eta uste gabeka hiltzen dira hanitzak, *gizonaren Semea nehork uste ez duen tenorean heldu baita*. Azken oren hori jinen zaitzularik, iragan biziari bertzela behatuko diozu, eta hain nagi eta ezazol izanik urriki handia dukezu.

4. Zoin zuhur hura eta dohatsu, hala bizitzerat lehiatzen dena, nola ere nahi bailuke aurki dezan heriotzeak! Heriotze on bat igurika dezakegu, mundua osoki oinkatzen badugu, bertutean aitzinatzea haidurki gutiziatzen, bizitze bildu bat maitatzen, urrikizko eginkariak arthazki obra-

tzen, bethi obeditzen gozoki, gure buruari uko egiten eta, Jesus maitez, zoin-nahi atsegabe jasaiten.

Ongi frango egin dirozu, osagarritan zireno; bainan, erituz geroz, ez dakit zer egin dezakezun. Eri guti, eri egoiteak hobetzen duenik; beilatiar guti, beilan ardura ibiltzeak saindutzen duenik.

5. Ez fida zure adiskide eta ahaideer, eta zure salbamendua ez utz geroko; zuk uste baino lasterrago ahantziko zituzte gizonak. Bertzeen laguntzaren aiduru egojtea baino, hobe duzu, ordu deno, ongi zerbait aitzinetik zerurakotzat egitea.

Zure arimaz artharik ez baduzu orai, nork duke hartaz gero? Ora; da ordu guziz baliosa, orai aldeko eguna, orai salbamendurako tenorea. Bainan ondikotz ephe hori alferretan baderamazu, bethiereko biziaren irabazteko on zinukelarik. Zure bizi-moldearen zuzentzekotan, egun baten edo oren baten galdatzea gertaturen zaitzu, ez baitakit ardietsiren duzunetz.

6. O aneia guziz maitea, zonbat lanjer eta lastura zeure ganik urrunt zinitzazken, orai beretik bethi herioaren beldurrarekin bazinaude! Lehia zite oraidanik bizitzerat, heriotzeko orenean beldur baino atsegin gehiago ukaiteko gisan. Munduari hiltzen ikas orai, gero Jesusekin bizitzen haste-ko. Guzien oinkatzen ikas orai, gero Jesusen ganat hegaldatzeko. Zure burua neka garrazki orai, gero fidantza oso baten jabe izaiteko.

7. Ai zoroa! luzaz bizitzea zendako asma, egun baten segurtamena ere ez duzularik? Zonbatak ez dira enganatu eta gutienik ustean hil! Zoin ardura ez duzu entzun holakoa ezpataz hil dela, halakoa itho, bertze batek erori-ta duela lepoa hautsi; hau jatean hil, hura josteta ari zelarik, bat erre, bertzea izurriak ereman, bertze bat burdinak, bertze bat ohoinek garbitu: eta hola guziak hiltzen, eta gizonaren bizia itzalaren pare iragaiten.

8. Zu hil-eta, nor da orhoituren zutaz? Zuretzat nork du othoitz egi- nen? Egizu, egizu orai, aneia maitea, ahal duzun ongia, ez baitakizu noiz hilen ziren, ez eta, hil ondoan, zeri zagozken. Ephea duzuno, bil bethie- reko ontasunak.

Ez erabil gogoan zure salbamenduaz bertzerik, Jainkoarekilakoez baizik ez axola, Jainko Jaunaren Sainduekin adiskida zite oraidanik hek ohoratuz eta heien obrer jarraikiz, mundu huntarik bertzeratzean, bethie- reko egoitzan onhar zitzaten.



9. Munduko zerak deus ez zaizkon bidekari eta arrotz bat bezala ereman zazu zure bizia. Atxik bihotza libro eta Jainkoari buruz altxaturik: ez duzu hemen bethiko egoitzarik. Bida zerualde zure egun guzietako othoitz, auhen eta nigarrak, hil ondoan Jainkoaren ganat dohatsu igaiteko on izan dadin zure arima.

24. KAPITULUA

Jujamenduaz eta bekatuen gaztiguaz.

1. Gauza guzietan beha ondorioer; orhoit juje garratzaren aitzinerat agertzekoa zirela: emaitzek hura ez dutela ematen, estakururik ez duela onhartzen, bainan zuzentasunekin duela jujatuko.

Oi bekatore guziz dohakabea eta zoroa! Khexu den gizon baten aitzinean ikharan zaudena, zer ihardetsiren diozu zure tzarkeria guzien berri dakien Jainkoari? Jujamendu hari buruz, zure arima zendako ez oraidanik aphaint? Orduan aitzakia emaiteko edo bere buruaren gerizatzeke nehork nehor ez duke, nor-berari bere zama askiko baitzaio.

Zure lanek orai dukete zerbait balio: Jainkoak zure nigarrak orai ditu onhartzen, zure hasperenak entzuten; atsegabeak orai dira zure bekatuen erosteko eta garbitzeko gai.

2. Bere bekatuen garbitzeko ez du segur bide eskasik nahigabeen jasaiten dakien gizonak, hala nola: ukan laidoaz baino laidoegilearen maltzurkeriaz bihozmin gehiago duenak; bere etsaientzat othoitz egiten duenak; bihotzaren erditik barkatzen diotenak; bertzeer barkamendu abian galdatzerat uzkur ez denak; hasarrez baino maizago urrikariz ari denak; bere jitea ardura zaphatzen duenak; eta bere gorputza osoki arimaren meneko ezartzerat bermatzen denak.

Gure bekatuak hemen garbitzea hobe dugu eta gure azturak hernen heztea, hil ondoan egiteko uztea baino. Zinez guhauaren burua dugu engatzen, gure gorputza hoin itsutuki maitatuz.

3. Ifernuko suak zer bazka duke, gure bekatuez bertzerik? Orai zure buruarentzat ahulago eta zure azturer jarraikiago, gero gaztiguak garratzago eta su hak bazka gehiago. Zertan ere gizonak egiten bekatu, hartan garrazkienik beharko pekatu.

Han nagiak suzko xitez akulatuak izanen dira; hordiak aldiz, gose eta egarriak zurpilduak. Han lizunak eta atsegaleak bikhe erakitan eta sofre okaztagarri batean pulunpatuko dira; eta, zakur errabiatuen pare, gizon bekaiztiak marrumaka auhenduren.



4. Han bekatu bihirik ez da izanen bere auhen berezia gabekorik. Han urgulutsuak ahalgeak urturik egonen dira eta zikoitzak ezeria gorriean. Han, auhen karrasketan oren bat luzeago, hemen penitentzian ehun urthe baino. Ifernutiarrentzat ephe gozorik batere, atsegin limarrik; hemen bederen gure lanetan arteak baditugu eta adiskide zombaiten laguntza ere, bihotz-altxagarri.

Ohartuki pitz orai bihotzean zure bekatuen urrikia, jujamendu egunean dohatsuekin emana izan ziten.

5. Orduan ezen fidantza handirekin xutituen dira dohatsuak, beren nektazale eta laido-egileen kontra. Gizonen jujatzeko xutituen dira orduan, gizonen jujamenduak umilki jasan, dituztenak. Jende xume apha-lek fidantza handia erakutsiren dute, urgulutsuak aldiz dira iletarik zango-etaraino ikharaturen.

Orduan ageriko da zuhur izan dela mundu huntan, bere burua Jesusen gatik zoro eta ezdeustat zukana. Gogo onez jasan atsegabea atsegin bilhakaturen da orduan, eta gaixtagin guziak geldituko dira mutu.

Orduan bethikotz jende khartsu guziak botz izanen dira; ilhun, Jainkoaren etsaiak. Bere gorputza nekatu duenak bozkario gehiago ukanen du orduan, bethi mainetan hazi duenak baino. Orduan soineko arruntek distiraturen dute, eta soineko aberatsak dira ilhunduren. Jauregi urhezatuak baino ohore gehiago ukanen du orduan etxola txarrak.

Iraupenekin jasaile izan denarentzat ondorio hobeak orduan, munduko ahaldunenarentzat baino. Mende guzietako abilena baino gorago altxaturen da orduan, lañoki bertzeen azpiko egon dena. Arima garbi eta khartsuak orduan bozkario gehiago ukanen du, jakintsu zuhurrenak baino. Lurreko aberastasunak bildu dituenak baino ospe gehiago orduan, ontasun guziak oinkatu dituenak. Orduan aphairu hoberenak baino atsegin gehiago ekarriren du othoitz khartsu batek.

Hanitz solastatu dena baino gehiago bozkariaturen da ixilik egon dena. Mintzaldi ederrenak baino gehiago baliaturen dira orduan obra sailduak. Bizitze hertsia eta nekatu batek atsegin gehiagoz betheko du orduan, lurreko lizunkeriek baino.

6. Ikas orai oinhaze xumeen jasaiten, orduan dorpeagoetarat ez erortzeko. Ikas hemen lehenik, geroxago zer dukezun jasaiteko. Oinhaze xumeenak orai ezin jasan-eta, bethiereko auhenak nola ditutzu jasanen? Oinhaze ttipi batek orai hola nardatzen-eta, zer egingen othe duzu ifernuko suan?

Zinez bi atsegin hotaz ez zitazke batean goza: ez dezakezu mundu huntan atsegin har, eta gero, bertzean, Jesusekin erregina.

Egun arte ohoretan eta atseginetan igerika bizi izanikan ere, zer on zinuek hoitarik, orai berean hiltzen bazina? Ezdeuskeriak beraz oro, Jainkoaren maitatzeaz, Jainkoaren bakharririk zerbitzatzetaz bertzeak.

Jainkoa bihotzaren erditik maite duena, ez da ez heriotzearen, ez auhenen, ez jujamenduaren, ez ifernuaren beldur, Jainkoaren alderateko amodioa baita harenganatzeko bide xuxena. Bekatuan oraino atsegin hartzen duena, ez da harrigarri heriotzearen eta jujamenduaren beldur izanikan ere.

On dugu halere, Jainkoa maitez ez bada, bederen ifernuaren beldurrez bekatutik urruntzea. Jainkoaren beldur ez denak, ez dezake luzaz iraun ongian, bainan debruaren saretarat laster da eroriko.



25. KAPITULUA

Khartsuki behar dugula gure bizi molde guzia onerat bidatu.

1. Zaude erne eta khartsu Jainkoaren zerbitzuan, zure buruari maiz diozula: zertarat jina hiz? munduari zergatik egin diok uko? Ez othe Jainkoarentzat bizitzeko? ez othe khartsutzeko?

Zoazi beraz lehiatuki aitzina bertutean, laster bilduko baituzu zure nekeen saria, eta ordutik ez baitukezu bihotzean ez minik ez beldurrik. Hemengo neke xumeen ondotik, bake handiaz, erran nahi baita, bethiereko zorionaz zira jabeturen. Zure egitekoak leialki, khartsuki bethetzen badituztu, Jainkoak segur saristatuko zitu leialki eta aberaski. Sari hortarat helduko zirela, zailki behar duzu igurikatu, bainan ez sobera fidatu, ez nagitzeko edo urgulutan ez sartzeko.

Griñak jana, bere salbamenduaz batean segur, bertzean dudan zagon gizon bat, behin, egundaino haino hitsago, eliza batean sartu zen eta han aldare baten oinetan ahozpetu, bere buruari ziola: «Ai! banaki bederen bururaino iraunen dutala!». Eta berehala hitz hok entzun zituen bihotzean: «Bazinaki hori, zer zinueke bada xede? Orduan egin nahi zinuekena, egizu orai beretik eta segura dukezu salbamendua». Hitz hoiek bihotza altxatu eta azkarturik, osoki Jainkoaren eskuko jarri zen gizona, bai eta haren duda-muda lotsagarriak itzali denak. Handik harat, ez zuen gehiago bere geroa jakin beharrez ibili nahi; denik ere, arthazkiago lehiatu zen jakiterat *Jainkoaren nahi hoberen eta osoena zer zitaken, bere obra guzieren ontsa hasteko eta osoki bururatzeko.*

3. *Jar zure esperantza Jainkoa baitan eta egin ongía, dio profetak, eta lurtean egiten baduzu zure egitza, aberaski haziko zitu.*

Bertutean aitzinatsetik eta beren bizi-moldearen xuxentzetik, gauza batek hanitz jende gibelatzen ditu: nekearen iziak eta gudukatzeari datxikon lanak. Urrats handienak alabainan nork ditu egiten bertutean? Bere aztura makurren eta behaztopagarrienen garaitzerat azkarkienik bermatzen denak. Zertan ere alabainan gizonak bere burua baitu garaitzen eta gogotikago nekatzen, hartan ere da gehiago aitzinatzen eta du grazia nasaikiago merezitzen.

4. Ez dituzte denek aztura berak zaphatzeko eta garaitzeko. Arima khartsua eta ernea bizkitartean, jaidura tzarrek ithoa izanikan ere, bertutean lasterrago aitzinatzen da, bere egitekoen bethetzeari nagí dagon jite oneko bat baino.

Bertzeak bertze, bi bide badauzkagu gure arimaren ontzeko: Jehena, gure jite makurra norat ere baitago eta handik gogorki urruntzea; bigarrena, bertutetarik zoin ere baitugu eskas eta haren biltzeari gogotik artzea. Bertze gizonetan zer ere baituzu gehienik hastio, hura behar duzu zu baitarik urrundu eta garaitu.

5. Bertutean aitzinatzeko balia orotaz; erakuspen onak ikusten badituztu edo entzuten, berma obratzerat. Gaizki zerbaiti ohartzen bazira, begira hartarat erortzetik. Edo noizbait erori bazira, xut; lehen bai lehen.

Zu bertzeer so zauden bezala, bertzeak so daude zuri. Zoin laket eta goxo den aneien ikustea khartsu eta suhar, sainduki eta bilduki bizi! Zoin hits eta nigar-egingarri, barreiatuak eta beren egitekoer batere ez jarraikiak ikustea! Zoin galgarri den, nork bere egitekoak utzirik, manatuak ez direner lotzea!

6. Hartu xedeaz orhoit, eta zure begiak iduk Jesus kurutzefikatuari. Ahalgetzekoa baduzu segur, Jesusen biziari behatu-ta, ez zaizkolakotz hobeki jarraiki, nahiz aspalditik Jainkozko bidean sartua ziren.

Bere gogoia Jesusen bizi sainduan eta oinhazeetan alha daukan gizon khartsuak, han kausituko ditu nasaiki on eta behar dituen guziak, eta Jesusez kanpo ez du zeren deusik bilha. Jesus kurutzefikatuia bihotzera-tzen balitzaiku, laster baginakizke jakiteko ginuzkeenak oro.

7. Gizon khartsuak gogo onez hartzen ditu eta onhartzen manatu guziak. Nagia eta ephela atsegabez atsegabe dabil; itzul ala mitzul nahigaberik baizik ez du kausitzen; bihotzeko gozoa eskas duelakotz, eta kanpotikako atseginen bilhatzerat ez delakotz haizu. Bihotza barreiaturik dagona, handizki galtzeko menea dago. Bizi-molde errexenaren eta eztenaren ondotik dabilana, atsegabetan dagoke bethi, batean hau, bertzean hura hastio baituke.

8. Nola egiten dute bada hoinbertze fraile eta serorek, beren erregularen azpian hoin hertsiki egoiteko? Bakan atheratzen dira, jendetarik urrun bizi, xuhurki jaten dute, soineko arruntak ibiltzen, azkarki lanean



ari, guti mintzo, luzaz beilatzan, goizik jeikitzen, othoitz hanitz egiten, maiz irakurtzen, eta beren egiteko guzietan josirik egoiten.

Beha Chartrusak, Ciztokoak eta bertze ordenetakoak, beha gau oroz nola jeikitzen diren Jainkoaren othoizteko. Ahalgegarri litake goizalderako oren sainduak alferkerian higitzen bazinitu, hoinbertze komentulariek dutenean Jainkoa ordukotz othoiztua.

9. Oi, bihotzez eta ahoz Jainkoaren goresteaz landa, bertze deus egitekori ez baginu! Ez baginu nehoiz ez jaterik, ez edaterik, ez lo egiterik, baina Jainkoari othoiztean eta gure arimaren onari artzen ahal bagina bethi! Orduan ginitazke, orduan zoriontsu: ezinbertzez orai gure gorputza arhatzen dugularik baino zoriontsuago. Ai, ez baginu holako behar-ordurik! Bana gertatzen zaikuna ondikotz, gure arimaren arhatzea baizik ez baginu!

10. Kreatura bihi bati deus atsegirik ez galdatzeko heineratzen delarik norbait, orduan ere da hasten osoki gozatzen Jainkoaz, ordutik ere bakean dagoke bethi, zernahi gerta dakion. Orduan, hanitz ala guti ardiets, ez da hortakotz ez arraitzen ez ilhutzen, baina den guzia tente Jainkoari dago, orotan Jainkoa baizik ez baitu ikusten; baitaki ere Jainkoarentzat deus nehon ez dela ez galdurik ez hilik denak haren baitan bizirik daudela, denak osoki bere eskupean dauzkala.

11. Orhoit bethi heriotzeaz eta galdu orenak gal direla.

Ez bazaude erne eta arhatsu, nehoiz ez duzu bertuterik bilduko. Epheltzen hasten hazira, zira ere gaizkiratzen hasiko. Baina khartsu bazaude, bake handia kausituen duzu, eta bai Jainkoaren graziak bai bertutearen amodioak zure lana erreturen dautzute.

Jende khartsu eta erne edozeri dago. Esku-lanetan artzea baino bortitzago da ohidura eta jaidura tzarrer ihardukitzea.

Huts ttipietarik urruntzen ez dena, emeki emeki handiagotarat erortzen. Arratsean bozkariatuko da bethi, eguna bere arimaren onetan higitzen duena.

Zaint zure burua, akula eta hertsia; bertzeer edozer gerta, zeure arimaren arhatzeari ez egin uko zuk. Zonbat ere baituzu zure jitea zaphatuko, hanbatez zira bertutean aitzinatuko.

BIGARREN LIBURUA

KHARTSUTASUNERAKO ERAKASPENAK



LEHEN KAPITULUA

Gure bihotzean dagon Jainkoarekin solastatzeaz.

1. *Jainkoaren erresuma zuhauren baitan da*, dio Jaunak. Itzul Jainkoaren ganat zure bihotz guziaz, utz bere alde mundu hits bau, eta bakea kausituen du zure arimak.

Ikas atze zaizkitzun gauzen oinkatzen eta zeure baitakoer gogoaren eratzikitzen: Jainkoaren erresuma zure baitan jartzen ikusiko baituzu. Jainkoaren erresuma, ezen, bake da eta Izpiritu Sainduaren ganikako zorion, —gaixtaginek ezin ukan ditzazketen bake eta zorion.

Zu ganat jinen zaitzu Jesus, bere gozoaz bethetzen zituela, doakon egoitza zu baitan aphaintzen badiozu. *Haren ospe eta edertasun guzia barnetikakoa da*: eta bihotz barnea zaio egoitzatzat laket. Gizon bilduak ardura duke Jesus ikusliar; ardura dituzke haren bake nasai, elhe gozo, kontsola-mendu eztiak, eta harekin adiskidetasun bat harritzekoa.

2. Eia, arima leiala, aphaint zure bihotza adiskide harentzat, zu ganat jiterat eta zu baitan egoiterat jauts dadin. Berak dio ezen: *Nork ere maite bainu eta hak begiratuko ditu nik erranak... eta haren ganat jinen gira, eta gure egoitza haren baitan dugu eginen.*

Egizu beraz leku Jesusentzat, eta hets athea bertze guzier. Jesus zurekila, aberats zira, hura aski baituzu. Behar ditzun guziak hak emanen dauzkitzu eta orotan zainduko zitu; hola gizonetarik ez dukezu deusen igurikatzerik. Gizonak ezen aldakor dira eta laster itzaltzen, Jesus aldiz bethi badago, eta leial bururaino zinki.

3. Gizon flako eta hilkorrari ez berma, lagun eta adiskide izanikan ere; ez zazula ere barna har, noiz edo noiz jazartzen bazaitzu eta oldartzen. Ora; alde ditzunak, etsai ditzuketzu bihar; egun etsai ditzunak aldiz, biharko lagun haizea bezain aldakor da gizonaren gogo.

Berma bakharrik Jainkoari; hura bedi xoilki zure beldurra eta zure amodioa. Hak ihardetsiko du zuretzat, eta, hoberena zer ere baita, hura zuretzat eginen.

Ez zira mundu huntan egoitekoa bethi; non-nahi izan, arrotz zira eta bidetari; nehon ez dukezu onik, non ez duzun Jesusekin bat egiten.

4. Mundu huntan zendako beha eskualde guzietarat, mundu hau ez denaz geroz zure pausa-lekua? Zure egoitza zeruetan beharra da, eta lurreko gauza hoberener, begi bazterrez behar diozute behatu. Oro badoatzi, eta zu heiekin. Begirautzu heier esteka, bethikotz gal ez zitzaten.

Jainkoa baitan koka zazu gogo; doala goiti zure othoitza, bethi Jesusi buruz. Gogoeta mamitsu zerutiarretaraino ezin hel bazitazke, Jesus Jaunaren oinhazeetan goxa zite. Ezen Jesusen zauri eta sarraskiak balin badira zure arimaren atherbe eta geriza, indar handia dukezu nahigabean; jendeek arbuiaturik ere, axola guti zinueke, eta heien elhe makurrak errexi zinitzazke jasan.

5. Jesus ere arbuiatu dute gizonak lur gainean; behar-ordurik handie-nean, ahaide eta adiskideek debalde utzi. Bere onez jasan du Jesusek oinhaze eta laido, eta zerbaitez erranguratzeko kopeta bazinuke zuk? Etsaiak eta gaizkierraileak ukan ditu Jesusek, eta zuk oro adiskide eta ongi-egile nahi zinuezke?

Zure pazientzia nola saristatuten du Jainkoak, deus atsegaberik ez bazaitzu heldu? Nahigabe bihirik ez baduzu jasan gogo, nola zinitazke Jesusen adiskide? Jasan oro Jesusekin eta Jesusen gatik, harekin nahi baduzu erreginatu.

6. Jesusen xedeetan osoki sartu bazina behin, eta haren baitako amodio pindar batek berotu bazinitu, axola izpirik ez zinueke zer zaitzun laket edo hastio; izaitekotz, jin atsegabeez bozkaria zinitazke: Jesusen maitazteak bere buruaren gutiesterat baiterakar gizona.

Jesus eta egia maite dituena; jaidura tzarretarik garbi, arimako gauzer zinez dagon gizona, berak nahi izarian ditake hurbil Jainkoaren ganik; bere buruaz gorago ditake ere altxa eta Jainkoaz bakean goza.

7. Egiazki zuhur, oro diren bezala, eta ez bertzeek erranen edo asma-tuen arabera, ikusten dituena; hak bere jakitatea, gizonak baino gehiago, Jainkoak emanik dauka.

Kanpoko zeretarat gogo barreiatu gabe, bere baitan bizi dena ez dago ez holako tenorearen, ez halako tokiaren beha bere khartsutasunaren alhatzeko. Bere baitarat laster biltzen da hura, ez baitauka nehoiz bere athea kanporat osoki idekia. Kanpoko lanak ala ardurazko egitekoak ez ditu poxelu; bainan, gerta-aldiak nola, eta araberan hala dabil bere urrutsetan.



Bihotza ongiari eta eginbideari daukanak, axolarik ez du batere munduak zer duen ederrik edo bertzerik. Gizona berri hoitarat trebeago, othoitzerat ere poxelu eta traba gehiago.

8. Bihotza xuxena bazinu eta garbia, ore zure ontzeko eta zuzenbidean aitzinatzeke litazke. Asko gauza hastio zaizkitzu eta maiz nahasbide, zeure buruari ez zirelakotz oraino aski hila eta lurreko gauza guzier ez diozutelakotz osoki uko egina. Gizonaren bihotza deusek ez du hala zikintzen eta nahasten, nola kreaturaren amodio lohiak. Kanpotikako atseginer uko egiten badiozute, zerutikakoak ardiesten ahalko ditutzu, eta bihotza ardura dukezu botz.

2. KAPITULUA

Nahigabeen onhartzeaz.

1. Ez griña batere nor duzun alde edo aiher, baina egiten dituzun guziak egitzu Jainkoa zure aldetzekotan. Garbi atxik bihotza, eta Jainkoak ontsa gerizaturen zitu. Ezen Jainkoak lagundu nahiko duenari, jendeen maltzurkeriak kalte izpirik ezin dezoke egin.

Ixilik egoiten eta nahigabeen jasaiten balin badakizu, Jainkoak lagunduko zituela ez ukan dudarik. Zure laguntzeko ara eta izari hobereenen berri badaki berak; zure burua haren eskuetan ezar beraz. Zure laguntzea Jainkoari dago baxharrik, bai eta nahasdura guzietarik zure khentzea.

Maiz on dugu, umilago egoiteko, gure hutsen berri jakin dezaten bertzeek eta larderia gitzaten.

2. Bere hutsen gatik aphaltzen denak, errecki ditu jabaltzen bertzeak eta khexatu zitzaizkonak bereganatzen.

Jende umila Jainkoak zaintzen du eta gerizatzen; umila Jainkoak maite du eta bere zorionaz bethetzen. Umilari mendutzen zaio Jainkoa; umilari grazia nasaia igortzen daizko Jainkoak; eta, aphaltu ondoan, bere loriarat du altxatzen. Umilari Jainkoak bere izaite gordeena agertzen dio; Jainkoak bereganatzen du umila eta amultsuki goratzen. Jende umila, laido handienen erdian, bake osoan dago: Jainkoari bermatzen delakotz, ez munduari.

Bertutean joana zirela barna ez uste ukan, guzietarik xumeena zu zirela ez badaukazu.



3. KAPITULUA

Bihotzeko bakeaz.

1. Zaude lehenik bakean zuhau, eta, ondorioz, bertzeak baketzen ahalko ditutzu. Onez on, jakintsu handiari bakezko gizona nagusi. Bere jaidura gaixto suharren meneko dagonak, ongia gaizkirat bihurtzen du, eta errexki sinesten gaizkia. Gizon baketiar onak onerat bihurtzen ditu oro.

Egiazki bakean dagonak, ez du nehorentzat pikorik. Bethi khexu eta hasarretsu dena, gehienez errangura da. Holakoak ez du bakerik eta bertzeer ere bakerik ez utzi nahi. Erran behar ez lukeena, maiz erraiten du, eta bere onetan egin behar lukeena, egin gabe uzten. Bertzeen egitekoer begiak xurituak dago; bereer, ñarro.

Zure kharra beraz atxik zuhaurentzat lehenik, gero bertzeetarar hedatzekotz zuzenki.

2. Zuhauk eginentzat baduzu estakuru, bertzeen aitzakiak ordean ez onhartu ere nahi. Zuzenago litake zeure buruaren hobendun aithortzea, eta bertzeen aitzakien onhartzea. Bertzeek zu jasaitea nahi baduzu, jasan zuk ere bertzeak. Egiatzko amodiotik eta umiltasunetik beha zoin urrun ziren oraino: jende umilak, ezen, ez daki khexatzen eta hasarretzen bere buruaz baizik.

Jende on eta goxoekin bizitzea ez da gaitz, jitez guzier laket baitzaiote hori guziek alabainan bakea maite, eta gogo bereko jendeak nahia-go. Bainan jende idor eta gaixtoekin, mokor eta mokokariekin bakean bizitzea, hori, hori grazia handia, lan neke eta laudagarria!

3. Badira beren baitan bakearen jabe direnak, bai eta bertzeekin bakean daudenak. Badira ere beren bihotzean bakerik ez dutenak eta bertzeak bakean uzten ez dituztenak. Holakoak bertzeentzat nekagarri, bainan berentzat bethi nekagarriago. Badira ere bakean daudenak berak, eta bertzeen baketzerat lehiatzen direnak.

Bizkitartean, mundu hits huntan gireno, bake osoa nahigabeen umilki jasaiteari datxiko, atsegaberik ez ukaiteari baino gehiago. Nork ere baitaki hobeki jasaiten, hak ere duke bake handiena. Halakoa bere buruaren eta munduaren nagusi, halakoa Jesusen adiskide eta zeruko premu.

4. KAPITULUA

Bihotzeko garbitasunaz eta xedeen lañotasunaz.

1. Gizonak bi hegal baditu lurretik altxatzeko: lañotasuna eta garbitasuna. Lañotasuna xedeetan behar; garbitasuna, maitatzean. Lañoak Jainkoari buruz altxatzen du, garbiak Jainkoa kausitzen eta gozatzen.

Obra on bihi batek ez zitu lotsatuko, bihotza atxikimendu makur guzietarik garbi badaukazu. Jainkoaren nahia eta lagunaren ona baizik ez balin baduzu hartzen gogoan eta bilhatzen, bihotza lokarri guzietarik garbi badatxikikezu.

Bihotza xuxena bazinu, kreatura guzietarik ikas zinezake nola bizi eta zer erakaspen sailduen arabera ibil. Ezen ez da bat hain ttipirik eta hain txarrik, Jainkoaren onezia erakusten ez duenik.

2. Bihotza xuxena bazinu eta garbia, guziak lanbrorik gabe ikus zinitzazke eta errexki adi. Bihotz garbiak zeru-ifernuak xilatzen ditu. Bihotza nolako, begia halako.

Lur gainean balin bada zorionik, bihotz garbiak dauka segurenik. Atsegabe-griñarik nonbait balin bada, bihotz makurrak dakike hobekien heien berri.

Suan ezarri burdina, herdoila galduz, gorri gorria jartzen den beza-la, Jainkoari buruz osoki itzultzen denak, bere nagitasuna galtzen du eta bertze gizon bat bilhakutzen da.

3. Gizona, epheltzen hastearekin, lan ttipienak izitzen du, eta kanpotikako atseginak gogotik onhartzen ditu hak. Bainan bere buruaren zinez garaitzen eta Jainkoaren bideari lotzearekin, orduan errex kausitzen du aitzinean dorpe zitzaiona.



5. KAPITULUA

Gure buruaren ezagutzeaz.

1. Gure buruari ez gitazke sobera fida, graziak eta adimenduak maiz huts-egiten daukutelakotz. Argi guti dugu gu baitan; duguna ere nagikeriaz laster galtzen. Maiz ez gira ohartzen zoin itsuak giren bihotzez. Gure obrak ardura tzarrak; tzarrago estakuruak. Batzutan jaidura tzarrek gerabiltzate, khar onak gerabiltzala baitugu uste.

Bertzeen huts ttipientzat behakoa zorrotz dugu, handiak guharen-tzat zaizkularik haizu. Bertzeen ganik zer dugun jasaiteko, laster ikusten dugu eta haztatzen; bainan bertzeek zer duten jasaiteko gu ganik, gogoratzen ere ez zaiku. Bere egintzak behar bezala hazta litzazkeenak, bertzeen obrak ez litzazke hain hertsiki juja.

2. Barnez barna bizi denarentzat, arimaren artha bertze artha guzier nagusi. Bere buruari ontsa beha dagona, bertzeek guti mintzo. Nechoiz ez zira zeure baitan sartu eta khartsutuko, non ez duzun, bertzeak beren gisa utzirik, zure buruari bereziki behatzen. Zure buruari eta Jainkoari bazau-de osoki, zure inguruan ikusiek guti zituzte durduzatuko.

Non zira, zu baitan ez zirelarik? Gauza guzier hunkika zer on duke-zu, larre utzi baduzu zure arima? Bakea nahi baduzu eta egiazki bat egin Jainkoarekin, bertze guziak bazterrerat utzi behar ditutzu, zeure buruaz bakharrik orhoitzeko.

3. Bertutean eginen duzu bide, munduko zerez axola mikorik ez baduzu; hanitz galduko aldiz, munduko zerak zerbaitentzat badauzkatzu. Deus ez bekizu handi, ez eder, ez atsegingarri, ez gutiziagarri, Jainkoaz eta Jainkoaren ganikakoez landa. Ezdeustzat iduk kreatoretarik jin atsegin guziak. Jainkoa maite duen arimak, Jainkoaz gutiagoko guziak erdeinatzen ditu. Jainkoa da bakharrik bethierekoa, negurririk gabekoa, ororen betha; Jainkoa, gure arimaren gozo bakharra eta bihotzaren bozkario egiazkoa.

6. KAPITULUA

Kontzientzia onaren zorionaz.

1. Gizon prestuaren ohorea, kontzientzia on baten lekukotasuna. Iduk garbi kontzientzia, eta botz izanen zira bethi. Kontzientzia onak hanitz dezake jasan, eta atsegabeen erdian badu atsegin. Kontzientzia makurra bethi herabe, eta nehoiz ez bake osoaren jabe. Goxoki bazagozke bakean, bihotzeko errangurarik ez baduzu. Ez bozkaria, ontsa eginaz baizik.

Gaixtaginek nehoiz ez dute egiazko bozkariarik, ez eta bihotzean sosegurik; ezen, dio Jaunak, *gaixtoentzat ez da bakerik*. Eta balin baderasate: «Bakearen jabe gira gu, gaitzik ez zaiku gainerat eroriko, eta gaizki egi-terat nor mentura lizaguke guri?». Zuk ez othoi sinets, Jainkoaren hasarrea nehork uste gabeen altxatuko baita, eta heien obrak ezarriko baititu ezeztaturik, suntsiturik ere ba heien gogoetak.

2. Jainkoa maite duenari ez zaio gaitz atsegabeez bozkariatzea, baita ki hori dela *Jesusen kurutzean bozkariatzea*.

Gizonen elgarri eman loria, laster eroria. Munduko loriari atsegabea darraio bethi. Onk kontzientziatik dute heren zorionaren loria, ez jendeen aho-mihietarik. Jende zuzenen bozkarioa, Jainkoaren ganik, Jainkoa baitan. Egiak ditu bozten.

Egiako eta bethiereko loria bilhatzen duenak, gauza iragankorren-tzat eskerrik ez du. Munduko loria, zinez erdeinatu gabe, bilhatzen duenak, zerukoa ez duela maite du erakusten. Laudorio ala erasiek kordokatzten ez dutenak, bake nasaia dauka bihotzean.

3. Bihotza garbi duena, gutik bozten du eta baketzen. Jendeen laudorioek ez zituzte hobetzen, ez eta heien erasiek gaixtoagotzen. Zer ere baitzira, eta hainbertze zira: jendeek nahi dutena eras bezate, Jainkoaren aitzinean ziren baino gehiago ez zitazke. Zu baitan zer ziren gogo emaiten baduzu, jendeek zutaz zer dioten ez zira hanbat izanen kilika. Jendeek axala dute ikusten; Jainkoak aldiz bihotza. Jendeek obrer behatzen, Jainkoak xedeak haztatzen.



Bethi ongirat artzea, bere burua gutietsiz, horra jende umilaren seinalea. Kreatura bihi baten ganik kontsolamendurik ez onhartzea, bihotz garbi eta Jainkoari fida den baten seinale.

4. Bere obren edertzeko lekukorik nahi ez duenak, den guzia Jainkoaren eskuko emana dela ageri du. *Bere burua on daukana, ez da horren-gatik ona*, dio Jondoni Paulok, *bainan ba Jainkoak on ezagutzen duena*. Bihotzez Jainkoarekin bizitzea eta inguruko zer deusi ez atxikitzea, hori da barneko egiazko bizia.

7. KAPITULUA

Jesusen oroz gainetik maitatzeaz.

1. Dohatsu, ontsa dakiena zer den Jesusen maitatzea eta Jesusen gatik bere buruaren gutiestea! Maite diren guziak utzi behar dira Jesus maitearen gatik, Jesusek oroz gainetik nahi duelakotz maitatua izan.

Kreaturen amodioa enganakor eta aldakor; Jesusen amodioa jarraikor eta iraunkor. Kreaturari datxikona, harekin eta hura bezala eroriko da; Jesusi loturik dagona, sekulakotz finkatuko.

Maita Jesus eta harekin adiskida: guziek utzirik ere, hak ez baitautzu huts-eginen, ez eta nahiko azken egunean gal ziten. Oro utzi beharko ditutzu egun batez, nahi ala ez.

2. Bizi ala hil, Jesus baitan egon zite eta hari zaude osoki, nehork ez dezakenean, hak lagunt baitzitzazke. Jesus maiteak halakoa du jitea non, zure bihotzean ez baitu nahi bertzerik onhar dezazun; nahi baitu bakhar bakharrik zure bihotzaren jabe eta berberak han erreginatatu.

Kreatura guzier osoki uko egiten bazinaki, zurekin egoitea laket litzaioke Jesusi. Sinets gal dela zuretzat, Jesusez kanpo gizonentzat egiten duzun guzia. Haizeak derabilan seskari ez fida, ez berma: *edozoin jende beharraren iduriko delakotz eta duken omen handia behar-lorea bezain erorkor*.

3. Gizonak itxuratik haztatzen baditutzu, laster zira enganatuko. Zure ona eta zoriona bertzeetarik bilhatzen baditutzu, ardurenik zeure kaltetan zira ariko.

Jesus bilhatzen baduzu guzietan, Jesus kausituko duzu. Bainan zeure buruaren ondotik bazabiltza, segur kausituko duzula, eta zeure kaltetan. Jesus bilhatzen ez duenak, mundu guzia eta etsai guziak baino etsaiago du bere burua.



8. KAPITULUA

Jesusekilako adiskidetasun xeheaz.

1. Jesus bihotz batean delarik, bihotz hartan oro goxo. Bainan Jesus han ez delarik, oro gaitz. Jesus bihotz batean mintzo ez delarik, atsegin guti. Bainan, hitz bat baizik ez erranikan ere, Jesus mintzo denean, zer gozoa bihotzean! Nigarrez zagon tokitik Madalena ez othe zen abian xutitu, Marthak erran zaiolarik: *Jauna hor da, galdatzen zitu?*

Tenore gozoa, nigarretarik bozkariorat Jesusek deitzen gituen tenorea? Jesus gabe, zoin ziren agor eta idor! Zoin ziren ezdeus eta zoro, Jesusez kanpo zerbait gutiziatzen duzunean! Hori ez othe duzu kalteago, mundu guzia galtzen bazinu baino?

2. Jesus gabe, zer emaiten ahal dautzu munduak? Ifernu gorri, Jesusez gabetzea; zeruko gozo, Jesus jabetzea. Jesus zurekin, etsai nehork ez dezazuke makurrik egin.

Jesus kausitzen duenak, ontasun egiazkoa kausitzen du, erran nahi baita: ontasun guzietz gorago den ontasuna. Jesus galtzen duenak, mundu guzia galtzen balu baino biziki gehiago du galtzen. Jesus gabe bizitzea, gabeziarik gorriena; Jesusekin adiskide bizitzea, ontasunik handiena; Jesusekin bizitzen dakiena, jakintsu handia; Jesusen begiratzen dakiena, handizki zuhur.

3. Izan umil eta baketiar, eta Jesus zurekin dukezu. Egon khartsu eta bildu, eta Jesus zurekin badagoke. Jesus laster urrunduko duzu eta haren grazia galduko, zure gogoaz bazterrerat alderatu nahiz. Jesus urruntzen baduzu eta galtzen, noren ganat eginen duzu ihes, nor duzu adiskidetzat bilhatuko?

Adiskiderik gabe ez zitazke zoriontsu bizi: Jesus ez bada zure lehen adiskidea, zoin ilhun eta hits izanen ziren! Zorokeria beraz, bertze norbaiti fidatzea eta zorionaren eskatzea. Bietarik batean, Jesusen hegalpetik urrun izaita baino, mundu guzia etsai ukaitea hobe duzu. Beraz zure adiskide minenen artean, minena bekizu Jesus.

4. Gizon guziak maitatu behar dira Jesusen gatik; Jesus aldiz, bere gatik. Jesus bakharrrik duzu behar maitatu bereziki, adiskide guzietarik hura baita leialena eta hoberena.

Bai adiskideak bai etsaiak maita Jesusen gatik eta Jesus baitan; batzuentzat eta bertzeentzat egin othoitz, guziek Jesus ezagut dezaten eta maita. Gizonek bereziki maita zitzaaten eta lauda, ez zazula gutizia behinere: Jainkoari baizik, ez zaio holakorik zor, parerik ez duen Jainkoari baizik.

Norbaiten bihotzaren alhapide izaiteko tirriarik ez ukan; zeurean nehoren amodio berezirik ez sar, bainan Jesus bedi zu baitan eta jende prestu guzietan.

5. Iduk bihotza garbi eta libro, kreatura bihi batentzat atxikimendurik gabe. Guzietarik behar zira buluzi eta Jainkoari bihotza garbi eman behar diozu, Jainkozko gozoa hutsik nahi baduzu jastatu. Segur ez zira hortaratuko, aitzinetik eta ondoan haren graziak ez bazira, traba guziak bazterturik eta debalde utzirik, Jainkoarekin osoki bat egiten lagundua.

Jainkoaren grazia alabainan norbaiten ganat jausten delarik, zernahiren egiteko ahala dio emaiten. Eta grazia itzaltzen denean, orduan gizona behartsu jartzen da, herbail eta gaztiguen aztaparretan bezala. Ez du hargatik lotsatzekorik, ez etsitzekorik; bainan dagola gizonki Jainkoaren nahiari; gertatzen zaizkon guziak Jesusen gatik ditzala onhar, ezen neguari uda darraio, gauari eguna, eta ekaitzari jabaldura handi bat.



9. KAPITULUA

Kontsolamendurik gabe bizitzeaz.

1. Gizonen kontsolamenduen gutiestea ez da gaitz, Jainkoarenak sendi ditugularik. Bainan handi da, biziki handi gero, bai gizonen kontsolamenduez bai Jainkoarenez gabeturik bizitzea, eta gabezia horren gogotik jasaitea Jainkoaren ohoretan; handi oraino, bere buruaren deusetan ez bilhatzea eta bere merezimenduer batere ez behatzea.

Grazia heldu zaitzularik, zer da harrigarri botz eta khartsu izanikan ere? Ez gaudea guziak holako aldarte baten aiduru? Ontsa goxoki dabil, Jainkoaren grazia duena zamari. Zer da mirakulu gorputzeko hazta ez senditurik ere, Jainko guziz boteretsuak airean geramatzalarik eta aitzindari soberanoa dugularik bidari?

2. Arinduko gituen zerbaiten ondotik gabiltza bethi; nekez du gizonak uko egiten bere buruari.

Bere aphezpikuari leial egonez, Jondoni Laurendi martirak garaitu zuen mundua, munduak dematzen atsegin guziak zituelakotz zangopilatu; goxoki ere zuelakotz onhartu, Jesus maitez, hain atxikia zen Sixto Aita Sainduaren ganik urrundua izaitea. Jainkoa maitez, gizon batekilako lokarria hautsi zuen, eta, gizonetikako kontsolamenduak utzirik, Jainkoaren nahia hautetsi.

Ikas beraz zuk ere adiskide hoberen eta minenaren uzten Jainkoaren gatik; adiskide batek bazter utzirik ere, ez sar atsegabetan: dakizun bezala, oro egun batez elgarretarik berexi behar gira.

3. Gizonak hanitz eta luzaz du gudukatu behar, bere burua osoki garaitu aitzin, bere bihotz guzia Jainkoari eman aitzin.

Bere buruari bermatzen den gizona, kanpotikako kontsolamenduen ondotik errexki dabil. Bainan Jesus egiazki maite duena eta bertuteen bilzteari arthaz ari dena, kontsolamenduetarat ez da aphaltzen; ez du lurreko eztekerier amor emaiten: izaitekotz, neke eta lan bortitzenen ondotik dabil, Jesusen gatik.

4. Jainkoak beraz bihotzeko gozoa igortzen dautzularik, har diezozu, eskerrak bihurtuz; bainan Jainkoaren emaitza bat dela sar ontsa huruan,

ez zure merezimenduen saria. Ez ukan urgulu ez bozkariarik, ez eta zu baitan fidantza soberarik: bainan ukantza bat erori zaitzularik, izan umilago, atzarriago, herabeago zure urrats guzietan, oren hura itzaliko baitzaitzu eta tentazioea jinen ondotik.

Bihotzeko gozo hori itzaltzearekin, ez ordu berean etsi, bainan umiltasunekin eta pazientziarekin egon Jainkoaren aiduru; ezen, eman dautzun baino gehiago emaiten ahal dautzu oraino. Jainkoaren bideak ezagutzen dituztenek, gauza hoi berri badakite xeheki; saindu handiak ezen eta ohiko profetak berak graziaren joan-jin hoier ohartu dira ardura.

5. Hargatik zion batek, grazia berekin zuelarik: *Nere nasaizian erran dut: deusek ez nehorik ez nu sekula kordokatuko ni.* Bainan grazia itzali-ta, bere baitan zer senditu zuen erakusten dauku, diolarik: *Zure begitarte ni ganik baztertu duzu, eta oraj hor nago nahasirik.*

Herstura hortan ez du etsitzen halere, bainan ba minkiago Jainkoa othoizten, hunela: *Zuri buruz, Jauna, eginen dut oihu, eta nere othoizta zu ganat dut allxatuka.*

Azkenean bere othoitzaren ondorioa erakusten dauku eta Jainkoak entzun duela erraiten, diolarik: *Jaunak entzun nu eta urrikaldu zait, Jaunak azkarki nu lagundu.*

Bainan nola lagundu? *Nere deithorea*, dio berak, *egin duzu bozkario, eta alegantziaz nuzu inguratu.*

Saindu handiener hola gertatu zaiotenaz geroz, guk, giren bezalako herbail gaixoeak, batzutan khartsu girelakotz eta bertzetan hotz ez dugu zeren etsi: Jainkoaren grazia Jainkoak nahi duen bezala zaiku jiten eta joaiten. Hargatik ziotson Job sainduak: *goizean egiten diozu begitarte gizonari, eta handik laster atsegabetan duzu ezartzen.*

6. Zeri berma beraz eta nori fida, baizik Jainkoaren urrikalmenduari eta graziari? Jende prestuek, haurride khartsuek, adiskide leialek, liburu sailduak, idazti ederrek, eliza-kantu gozoeak, hoik guziek guti nute laguntzen, guzier gozo guti diotet kausitzen, grazia ez badut nerekin, eta nere gabezian baxharrik utzia baniz. Orduan sendagailurik hoberena pazientzia, eta gure buruaren uztea Jainkoaren nahia.

7. Behinere ez dut ikusi gizon hain jainkotiarrik eta khartsurik, non ez zaion grazia noiztenka itzali edo kharra ttipitu. Saindurik ez da izan zeruko argi betherat hain gora altxaturik, non ez duen, goiz edo berant,



tentazionerik ukan. Alabainan Jainkoarentzat atsegaberik jasan ez duena, Jainkoaren begiresteaz ez da gai.

Tentazione bat jasaiteko balin baduzu, ardura kontsolamendu bat ondotik darraiola marka: zerutikako kontsolamenduak tentazioneak garaitu dituztener baitira hitzemanak. *Garaituko duena*, dio Jaunak, *nerre Egiaren gñarritik dut hazika*.

8. Jainkoak emaiten ditu bere kontsolamenduak, atsegabeen jasaiteko azkarrago izan dadin gizona; gero badathorkio huni tentazionea, ukan ongiuz urgulutan sar ez dadin.

Ez dago lo debrua, haragia ere ez da emalditua; egon beraz erne heldu den guduari buruz: ezker eta eskuin etsaiak baititutu, nehoiz gel-dirik ez daudenak.

10. KAPITULUA

Jainkoak eman grazientzat behar den ezagutzaz.

1. Zendako duzu pausa bilhatzen, laneko sortua zuk? Sinets atsega-bea nagusi dukezula hil artean atseginari, bai eta bozkarioari kurutzea.

Zoin mundutiarek ez litzazke arimako atsegin eta kontsolamenduak gogotik har, bethiereko gozamentzat? Alabainan munduko eta gorputzaren atsegin guzier, arimako atseginak hanitzez nagusi dira. Munduko atseginak, edozoin izan ditezen, ezdeus dira eta ahalgegarri; arimako atseginak aldiz, Jainkoak bihotz garbietarat ixuriak, gozo eta garbi dira eta bertutearen ume. Atsegin hoitaz bizkitartean nehor ez ditake bere gogorat goza, tentazioneek utzi epheak ez direlakotz nehoiz luzeak.

2. Bihotzez lazoegi girelakotz eta gure buruari fidegi, Jainkoaren ganikako atseginak ez ditzazkegu bil gure baitarat nekez baizik. Jainkoak ontasun handia dohaintzen dio gizonari, kontsolamenduaren grazia emaiten dionean; gizona ordean gaizki dabil, ez aithortuz nondik jina zaion eta Jainkoari eskerrak ez bihurtuz.

Graziaren emailearentzat eskergabe girelakotz, gure ezagutza ez delakotz graziaren ithurbururaino heltzen, horra ere zendako ez ditaken gure baitarat jauts graziarik. Ukan graziez eskerdun denari, grazia berri bat ez zaio nehoiz eskupetik atxikia; Jainkoak umilari emaiten ohi dio, urgulutsuari khentzen duena.

3. Atseginik ez dut nahi, bihotzeko urriak khen lezaketanik. Jainkoaren beko-bekoaz ez niz gozagura, urguluz hanpatzekotan. Ezen gauza eder guziak ez dira saildu, gozo guziak ez dira on, ez eta nahikunde guziak garbi; Jainkoari ere ez zaio bethi laket guk maite duguna.

Zoin graziak ere bainu umiliagotzen, atzarriagotzen eta neure buruari ukotzeragotzen, grazia hura bera dut gogokoena. Badakiena grazia zer den, zer, graziaz gabeturik egoitea, ez da hura ausartaturen berez bere zerbait onik badaukala sinisterat; izaitekotz, min hitsa den eta dohakabea du aithorturen.

Jainkoarenak Jainkoari. Zure itzalak daudela zuretzat. Ukan grazientzat Jainkoari bihur eskerrak; zure bekatuak zure gain, onhar bekatuar dagokion atsegabeaz baizik ez zirela hartze.



4. Jar zite bethi azken mailean, eta lehena zaitzu emana izanen: zimendurik gabe ez baititake kaskorik.

Jainkoaren araberako saindu handienak, beren iduriko dira ttipienak: gorago deituago, eta bihotzez umilago. Zerutikako egiaz eta ospeaz betheak, hek, ez dira lurreko ohore gose. Jainkoa baitan landaturik baitaude eta finkaturik, urguluak ez ditu beren ozkatik harrotzen. Onik duten guzia Jainkoari dute gogoz bihurtzen. Ez dabilta gizonak elgarri dematen ospearen ondotik; Jainkoaren ganik dathorrena baizik ez dute nahi. Zertarat diren lehiatuenik, zer duten bakharrik nahikari, huna: Jainkoa izan dadin goretsia beren baitan eta saindu guzietan, izaite ooren gainetik.

5. Bihur beraz eskerrak grazia ttipienentzat, handienen ardiesteko hola baitzitazke gai. Handitzat iduk Jainkoaren emaitza ttipienak; edertzat, gizoner ezdeus zaizkotenak. Emailearen handitasunari behatzen badiozu, ukantza bihi bat ez zaitzu ttipi eta xarpil idurituko. Deus ez da ttipirik, Jainko guziz handiak duelarik emana.

Auhenak eta nahigabeak igorrikeri ere Jainkoak, eskerrak daizkogu zor, gertatzen zaizkun gure salbamenduaren kariatat baititu gertatzerat uzten.

Jainkoaren grazia begiratu nahi duenak, ukan grazientzat eskerrak bihur ditzala, eta, grazia itzaltzen zaiolarik, har dezala pazientzia. Othoitz egin beza, graziaren berriz ardiesteko; umil eta atzarri egon bedi, berriz ez galtzeko.

11. KAPITULUA

Jesusen kurutzeta gutik dutela maite.

1. Zeruaren maitatzeko, lagun hanitz badu Jesusek, kurutzearen bizkarreratzeko, kontsolamenduak hanitzek dituzte nahi; atsegabeak, gutik. Harekin mahainean jartzeko, hanitz bada; harekin barur egiteko, guti. Guziek nahi dute harekin bozkariatu; harentzat jasan, nehor gutik.

Hanitzak badarraizko ogi-hausterraino; gutiak, haren odolezko nigarretan ezpainen bustitzerraino. Haren mirakuluak hanitzek dituzte gores-ten; haren kurutzeta gutik hartzen. Hanitzek Jesus maite dute, nahigaberik gertatzen ez zaioteno. Hanitzek Jesus gores-ten dute eta benedikatz-ten, haren ganik atsegin zerbait biltzen duteno. Bainan Jesus gordetzen bazaiote eta den gutien bat uzten baditu, edo erranguratzen dira edo sobera lotsatzen.

2. Jesuentzat duenak Jesus maite, ez bere atseginaren gutik, Jesus benedikatz-ten du bere nahigabe eta herstura guzietan, atsegin handienetan bezala. Eta atseginik ez balaukio nehoiz igorri ere nahi, halere bethi gorets lezake eta eskerrak bethi bihurtu nahi litzozke.

3. O zoin den indartsua Jesusen alderako amodio garbia, gure buruaren amodioarekin nahasia ez bada. Haren kontsolamenduen ondotik dabiltzanak, ez othe dira oro sariketariak deitu behar? Beren onari eta mainari gogoa josirik daukateneak, beren burua Jesus baino maiteago dutela ez othe dute ageri? Non nor kausi, Jainkoarentzat urrikeri ari nahi lukeena?

4. Bakan gertatzen da jende bat aski khartsua, orotaz osoki gabeturik egoiteko. Non nor kausi, aberastasunari bihotzez ez datxikona eta kreatura guzier osoki uko eginik dagona? *Urrun, lurraren zedarrietaraino behar du joan batek holakoaren aurkitzeko.*

Dituen guziak emanik ere gizonak, hori ez da deus; penitentzia handi bat eginik ere, hori deus guti da oraino; munduko jakitate guzien jabe izanikan ere, Jainkoa ganik urrun dago; bertute handienak eta khartsutasun beroena bereturik ere, hanitz eskas du oraino; gauza bat du eskas, bainan beretzat beharren beharrena. Zer bada? Guzier uko egin



ondoan, bere buruari uko egitea, bere baitarik osoki atheratzea, eta bere buruaren amodiotik osoki buluztea.

5. Bere jakinean egiteko zituen guziak egin ondoan, errotik sinets beza deusik ez duela egin oraino; iduriz handi dena, ez beza handitzat har, bainan aithor zinez zerbitzari alfer bat dela, Jesusek dionaren arabera: *Manatu guziak egin-eta ere, errazue zerbitzari alfer batzu gira*. Orduan ditake gizona gogoz egiazki pobre eta guzietarik buluzia; orduan dezake profetarekin erran: *Bakharrik niz munduan eta gabezia gorrian*.

Bere buruari eta bertze guzier uko egiten dakienak, bai eta bethi azken mailean egoiten, nehor ez du bera baino aberatsagorik hak, nehor ahaldunagorik, nehor libroagorik.

12. KAPITULUA

Kurutze saindurako bideaz.

1. Hanitzer idorra zaiote hitz hau: *Uko egozu zure buruari, har kurutzea eta jarra; Jesusi*. Bainan ez othe da idorrigo azken jujamendu eguneko hau: *Nitarik urrun, madarikaluak, zoazte bethiereko surat? Kurutzearen ekartzeko manamendua orai beretik gogo onez entzuten duena eta bethetzen, bethiereko surat deraman hitzak ez du izituren.*

Horra zer gogetaratuko duen zeruko kurutzeak, jujatzerat jinen delarik Jesus. Orduan kurutzearen zerbitzari guziak, Jesus kurutzefikatuari jarraiki zaizkonak, Jesus jujearen ganat fidantza handirekin hurbilduko dira.

2. Kurutzearen eremaiteak zendako izitzen zitu, zeruko bidea izan-ki-ta? Kurutzean da salhamendua, kurutzean bizia, kurutzean etsaien kontrako geriza, kurutzean zerutikako gozoaren ithurburua, kurutzean arimaren indarra, kurutzean bihotzaren zoriona, kurutzean bertutearen goiena, kurutzean saindutasun osoa.

Arimak ez duke salbamendurik, ez eta bethiereko biziaren esperantzarik, kurutzean baizik. Kurutzea harturik beraz, jarrai Jesusi, eta bethiereko bizirat helduko zira. Berak ereman du lehenik bere kurutzea eta zuretzat hil da kurutzearen gainean, zuk ere zure kurutzea ereman dezazun, eta kurutzearen gainean hiltzeko lehia dezazun ukan. Harekin hiltzen bazira, harekin ere zira biziko. Oinhazeetan haren lagun bazira, zeruko lorian ere haren lagun zira izanen.

3. Bi alderdi baditu beraz kurutzeak eta kurutzearen gainean hiltzeak. Egiazko bizirat eta bihotzeko bakerat heltzeko bertze biderik ez da, kurutze sainduarekilakoa eta egun oroz hiltzekoa baizik. Joan norat-nahi, iker bazter guziak, beha goiti, so beheiti, gainean bide hoberik ez duzu kausituko, ez eta beherean bide seguragorik, kurutze sainduaren bidea baino.

Oro zure nahikunde eta xedeen arabera jiten bazaizkitzu ere, atsegarberik baizik ez duzu kausituko, zuk nahi ala ez, eta beraz bethi kurutzea duzu aurkituko. Alabainan bethi dukezu edo auhen gorputzean putzean edo nahigabe bihotzean.



4. Batean Jainkoak zitu debalde utziko, bertzean gizonek zaphatuko. Gehiago dena, zuhau izanen zira zure buruari poxelu, eta bizkitartean ez duzu zure burua ezeztatzen edo arintzen ahalko, bainan Jainkoak nahi dueno jasan beharko. Jainkoak nahi du alabainan nekeen jasaiten ikas dezazun kontsolamendurik gabe, haren eskupean osoki jar ziten eta zu baitan umilago egon.

Jesusen auhener nehor ez da hain minbera, auhen berak jasaiteko dituen bezala. Kurutzea beraz bethi xutik dago eta bethi zure bidean. Norat-nahi joan, kurutzeari ezin ihes egin: non-nahi, zure burua zurekin baderamazulakotz, zure burua duzu bethi kausituen. Itzul goiti, itzul beheiti, itzul kanporat, itzul barnerat, orotan kurutzea hatzemanen duzu; orotan baitezpada pazientzia hartu behar, bihotzeko bakea eta bethiereko saria nahi badituzu.

5. Kurutzea gogotik badakarrazu, hak ere ekarriko zitu zu eta helduko nahigaberik ez den lekuaren mugaraino; ez baita hura lur gainean. Kurutzea zinkurinaka eremanez, zure buruari zama bat gehiago diozu emaiten, eta bizkitartean berdin dukezu baitezpada ereman beharra. Kurutze bati ihes egiten badiozu, duda-mudarik gabe bertze bat aurkituko duzu, orobat dorpeagoa.

6. Gizonetan nehork bazter ez dezakeena, zuk baztertzea uste duzu? Sainduen artean, bizi zireno, nor izan da kurutze eta nekerik gabe? Jesus Jaunak berak oren bat ez du iragan auhenik gabe mundu huntako egunetan: *Kristok behar zuen*, dio berak, *baitezpada pairatu eta hiletarik piztu, eta bide hortaz bere aspean sartu*. Kurutzearen errege-bide hortaz bertze biderik zendako bilha beraz zuk?

7. Kurutze eta oinhaze izan da Jesusen bizi guzia: pausa eta zoriona zendako bilhatzen duzu zuk? Zure burua enganaten duzu, enganaten, bizi hilkor hau guzia nahigabez bethea, eskualde guzietarik kurutzez landatua izankita, atsegabeen jasaiteaz bertzerik bilhatzen baduzu.

Bertutean nor ere baita barnago sartzen, hak berak maiz kurutze dorpeagoak ditu kausitzen, desterruak emaiten dion bihozmina Jainkoarentzat duen amodioak handitzen diolakotz.

8. Bainan hola leherturik daukaten atsegabeen arintzeko ez du kontsolamendu eskasik, oharturik baitago kurutzearen jasaiteari ondorio hoberenak darraizkola. Kurutzea ezen gogo onez onhartzen duenetik,

haren nahigabeek beren hazta galtzen dute, Jainkoak lagunduren duelako fidantzak ezeztatzen baitiote. Eta auhenek zonbat ere baitaukote gorputza lehertuago, hanbat ere bihotza Jainkoaren graziak azkarturik dauko.

Jesus kurutzefikatuarekin eite nahiz, oinhazeak eta nahigabeak hain ditu maite, eta amodio horrek hainbertzetaraino du azkartzen, non ez bailuke auhen eta oinhazerik gabe bizi nahi: zonbat ere baitu nahigabe dorpe gehiago jasanen, Jainkoak hanbatez maiteago duela daukalakotz.

Segurantzaz hori Jesusen graziak dakar, ez gizonaren bertuteak; graziak gure gorputz ahulean badu hainbertze ahal eta indar, non, bere jitez higuin zituen eta bazter uzten zituenak oro, gizonak eskatzen baititu eta maitatzen, bihotza berorik.

9. Kurutzearen jasaitea, haren maitatzea, gorputzaren heztea eta ari-maren meneko ezartzea, ohorer ihes egitea, laidoen gogotik onhartzea, bere buruaren gutiestea eta bertzeek gutiets dezaten agiantzea, kalte eta nahigabe guzien gogotik hartzea, lurreko ontasunen gutiziarik batere ez ukaitea, hoik oro ez doazko gizonaren jiteari.

Hoi en egiteko zure indarrer bazaude, deusik ez duzu egiten ahalko. Bainan Jainkoari bermatzen bazira, zerutik igorriko dautzu hak indarra, eta bai mundua bai zure gorputza garaituko dituzu. Fedea balin bada zure erredola, eta kurutzea zure eskuetako makila, debruak ere —zure etsaiak— ez zitu izituko.

10. Beraz Jesusen zerbitzari on eta leial bati doakon bezala, kurutzearen gizonki eremaiteko erne zaude, Jesus, zu maitez, kurutze baten gainean hil denaz geroz. Hanitz atsegabe eta nahigabeen jasaitea zaude mundu hits huntan; non-nahi izan, bertzerik ez dukezu; non-nahi gorde, bertzerik ez dezakezu aurki. Ezin begira zitazkenaz geroz, gaitz hoi en gogotik jasaitea duzu ihes-bide baxharra. Jaunaren kalitazatik edazu gogotik, haren adiskide nahi bazira eta zeruan nahi baduzu harekin jarri.

Kontsolamenduak utz Jainkoaren gain, berak nahi bezala eman dietzatzun. Nahigabeen jasaiteari zaude zu eta sinets kontsolamendu handiena duzula hor; ezen *lur huntako oinhazeak ez dira zeruko loriaren bethe*, zeurez zeure jasaiten ahal bazinitu ere guziak.

11. Atsegabea, Jesus maitez, on eta gozo kausitzen duzunean, dohatsu zu: mundu huntan berean baituzu kausitu zerua. Nahigabeen jasaitea gogor zaitzuno eta heier ihes egitea duzuno bilhatzen, dohakabe zu: urrundu nahi duzun atsegabea jarraikiren baitaitzu bethi.



12. Nahigabeak jasan behar dituzunaz geroz eta ororen buruan hil, —jasaiteari bermatzen bazira eta ontsa hiltzeari jartzen, laster hobetuko zira eta bakea kausituko duzu. Jondoni Paulo bezala hirugarren zeruraino altxatua bazina ere, nahigabe bihirik ez jasaitea batere ez zinueke segura. *Nik, dio Jesusek, erakutsiko diot nere izenaren gatik zonbat behar duen jasan.*

Zure egiteko baxarra beraz nahigabeen jasaitea da, Jesus maitatu nahi baduzu eta bethi zerbitzatu.

13. Ai! Jesusen gatik zerbaiten jasaiteko on bazina, zer ohorea zuretzat! Zer bozkarioa luketen Jainkoaren saindu guziek, zer erakuspen ederak zure lagunek! Guziek pazientzia goستن, gutik ordean hartzen.

Zonbait atsegabe ttipi Jesusentzat jasan dezazun ez othe litake zuzen, hainbertzek munduarentzat handiagoak jasaiten dituztelarik?

14. Sinets errotik zure biziak egunetik egunerako heriotze bat behar duela izan. Eta nor zonbat ere baita bere buruaren alderat gehiago hiltzen, hanbatez da geroago azkarrago Jainkoarentzat bizitzen hasten. Zeruko gauzen aditzeko nehor ez da on, non ez dituen atsegabeak Jesusen gatik umilki jasaiten.

Jainkoari deus ez zaio laketago, zuhaurentzat deus ez da hoberik, Jesusen gatik gogo onez pairatzea baino. Bietarik batean, kontsolamendu ukaitea baino, Jesusen gatik atsegabeen jasaitea maiteago behar zinueke; hola eite gehiago bazinuke Jesusekin eta iduriago zinitake saindu guziekin. Zure merezimendua, ezen, eta aitzinamendua ez datxizkote kontsolamenduer eta atseginer, bainan atsegabe handier eta haien Jesusentzat gogo onez jasaiteari.

15. Pairatzea baino hoberik balitz gizonaren salbamenduko, segur Jesusek hitzez eta obraz erakutsi zaikuken. Bere dizipuluak, ezen, eta jarraiki nahi zaizkon guziak kurutzearen bizkarreratzerat garbiki deitzen ditu, diotelarik: *Nor ere nahi baita nere ondotik jin, bere buruari uko egin bezo eta, kurutzea harturik, jarrai bekit.*

Guziak irakurtu eta ikertu ondoan, hitz hau bekizu buruan geldi: *hanitz atsegabe behar dela jasan, Jainkoaren erresuman sartzeko.*

HIRUGARREN LIBURUA

BIHOTZEKO GOZOAZ



LEHEN KAPITULUA

Jesusen solas amultsuak arima leialarekin.

1. ARIMAK. *Entzunen dut zer dion ni baitan Jainkoak.*

Dohatsu arima, Jainkoa bere baitan mintzo aditzen duena, eta haren ahotik elhe gozoak entzuten dituen!

Dohatsu, Jainkoaren boz eztiari idekirik dauden beharriak, mundu huntako harrabotser gor direnak! Dohatsu, bazterreko elheer hetsirik dauden beharriak eta barnean mintzo zaioten Egiari erne daudenak!

Dohatsu begiak, kanpoko gauzer hetsirik eta barnekoer zabalik daudenak!

Dohatsu, beren arima-barneko gauzak xilatzen dituztenak, eta, beren egun orotako lanen bidez, zeruko gauza gordeen gero-ta gehiago ezagutzerat ari direnak!

Dohatsu, beren gogoa Jainkoaz alha derabilatenak, eta mundutikako traba guziak inharrosten dituztenak!

Gauza hoier gogo emazu, nere arima, eta hets zure gogo-bihotzen leihoak, zu baitan Jainko Jaunak zer dion entzuteko.

2. Hauxe dio zure Jesus maiteak: Ni niz zure salbamendua; ni, zure bakea eta zure bizia. Zaude nerekin eta bakea kausituko duzu. Gauza iragankorrak utz denak, bilha bethierekoak. Gauza iragankorrak zer dira, baizik eta enganakorrak? Kreatura guziek zer laguntza emanen dautzute, debalde uzten bazitu Jainkoak? Guzier uko eginik beraz, leial izan zite eta Jainkoaren gogorako, egiazko dohatsutasunaz jabetzekotan.

2. KAPITULUA

Bihotzean mintzo dela Egia, elhe harrabotsik gabe.

1. ARIMAK. *Mintza zite, Jauna, zure zerbitzariak entzuten zitu. Zure zerbitzaria niz ni; zure manamenduen ezagutzeko argia emadazu. Zure solasen entzuterat bil zazu nere bihotza; nere bihotzerat jauts bedite, ihintza bezala.*

Israeldarrek Moisi zioten beihala: *Mintza zakizkigu, zu, eta entzunen zitugu; bainan ez bekigu Jauna mintza, hil ez gitezen.* Holakorik ez, Jauna, holakorik ez dautzut galdatzen nik, bainan Samuel profetarekin umilki eta minki zitut othoizten: *Mintza zite, Jauna, zure zerbitzariak entzulen zitu.*

Ez bekit ez Moisi ez bertze profetarik mintza, bainan, othoi, mintza zakizkit zu, Jauna, zu profeta guzien argitzale eta gar-emailea; ezen, hek gabe, zuhauk osoki argitzen ahal nuzu, eta hek, zu gabe, ezin degikete deusik.

2. Solasak adi-araz ditzazkete, bainan ez ariman sar. Gain gainetik ederki mintzo dira, bainan, ixilik bazaude zu, heien erakaspeneak bihotza ez dezakete bero.

Liburu Sainduen axala emaiten dute, zuk baizik ez mamia. Misterioak erakusten dauzkigute, bainan ezagut-arazten zuk. Zure manamenduak erakasten dituzte, heien bethetzeko indarra zuk emaiten. Hek erakusten dute bidea, bainan ibiltzeko zuk azkartzen. Axaletik baizik ez dira ari hek, zuk dituzu gogo-bihotzak argitzen. Hek estalgitat dute ihintza ixurtzen, zuk hazia barnean pizten. Hek mintzoaz beharriak jotzen, zuk idekitzen adimenduko athea.

3. Ez bekit beraz Moisi mintza, bainan zu, nere Jainko Jauna, bethiereko Egia, hil ez nadin eta agor geldi: hori gerta bailitzaket, entzun elhe guzien gatik, bihotzean ez banu kharrik; mintza zakizkit, Jauna, zure begietan hobendun izan ez nadin, zeren dutan zure elhea entzun eta ez obratu, ezagutu eta ez maitatu, sinetsi eta ez begiratu; mintza arren, Jauna, zure zerbitzariak entzuten baitzitu, eta bethiereko biziaren hitzak zuk baitauzkatzu.

Mintza zakizkit, nere arimari gozo zerbaiten emaiteko eta nere bizi guziaren xuxentzeko; mintza ere, menderen mendetan izan ziten laudatua, ohoratua, goretsia.



3. KAPITULUA

*Jainkoaren hitzak umilki entzutekoak direla,
eta hanitzek ez diotela gogo handirik emaiten.*

1. JESUSEK. Haur maitea, entzun zazu nere solasa, goxotasunez beharrikako nere solasa, lurreko gizon zuhur eta jakintsu guzien erraner nagusi dena. Nere elheak bizitze eta izpiritu dira, ez dira gizonen gogoen arabera haztatzekoak. Ez duzu hetan atsegin alfer bat bilhatu behar, baina ixil ixila ditutzu entzuteko eta ahal bezain umilki eta khartsuki onharitzeko.

ARIMAK. Erran ere dut: Dohatsu, zuk argitzen duzuna, Jauna, eta zure legea zuhauk erakasten diozuna, haren egun gaixtoen eztitzeko eta kontsolamendurik gabe haren ez uzteko lur gainean.

2. JESUSEK. Nik, dio Jaunak, nik ditut haste hastetik argitu profetak, eta, geroztik hunat, egungo eguna barne, ez niz gelditzen zuer mintzatetik; baina hanitzak nere bozari gogor eta elkor daude. Hanitzek dute Jainkoa baino gogotikago entzuten mundua, Jainkoaren nahari baino errexkiago jarraitzen haragiaren irritser.

Munduak gauza guti emaiten du aitzinerat, direnak ere iragankorrak, eta haren aldekoak oro zerbitzari suhar dira; nik ontasun handienak eta bethierekoak agintzen ditut, eta gizona nere alderat bihotzez hotz dago. Orotan nere zerbitzazterat eta niri obeditzerat nor da bermatzen, bertzeak munduaren eta munduko nagusien zerbitzazterat bezala?

Ahalgez gorri hadi, Sidon, dio itsasoak. Nahi duzu jakin zendako?

3. Huna: irabazi ñimiño batentzat bide hanitz egiten du gizonak; zeruaren irabazteko aldiz zangoa ere ez altxatu nahi aldi bat. Sari txar baten ondotik herratua dabil gizona; ardit baten gatik, auzi ahalgegarrietan sartzen; gauza ezdeus baten, agintza txar baten gatik, gau eta egun lehertua ibiltzeko ez da lotsa; baina, deithoragarri ez denetz bada, beharrikako ontasunarentzat, ezin prezatuzko sariarentzat, negurririk gabeko ohore eta ospearentzat, den gutienik ez akitu nahi.

Ahalge zite bada, zerbitzari alfer eta zinkurinaria, zeren bertzeak beren buruaren galtzeko erneago diren, zu zeurearen salbatzeko baino. Ezdeuskerientzat berea dira hek, zu egiarentzat baino. Bizkitartean, igurikatzen zutena bakan zaiote eskurat jiten; nik aginduek, aldiz, ez dute huts-

egiten nehoi eta niri fidatzen dena ez dut ophor uzten. Leialki bururaino maitaturen nuenari emanen diot hitzeman, eta errana eginen diot.

Jende on guziak nik ditut saristatzen eta khartsu guziak nik frogatzen barnadanik.

4. Sar nere hitzak zure bihotzean eta lehiatuki gogoan erabil, tentazioe orduetan ontsa behartuko baitzaizkitzu.

Irakurtzean aditzen ez duzuna, ni zu ganat jitearekin adituko duzu. Bi moldez jausten niz nere hautetsien ikusterat: tentazioeak igorritz eta kontsolamenduak. Egundakotx, bi erakaspem emaiten daizkotet: bat, beren hutsentzat larderiatur; bertzea, bertuten biltzerat sustatur. Nere hitzak entzun ondoan, arbuatzen dituenak, nork juja baduke hak azken egunean.

5. *Kartsutasunaren galdatzeko* OTHOITZA.

Jainko Jauna, zu zira nere ontasun guzia. Nor niz ni, zuri mintzazterat ausartatzeko? Ni niz zure zerbitzariño txarren txarrena eta lurreko har herrestena, dakitan eta erran dezaketan baino biziki txarrago eta ezdeusagoa.

Orhoit zite bizkitartean, Jauna, ez nizala deus, deusen jabe ez nizala, deusik ezin dagiketala. Zu zira baxharrik ona, zuzena eta saindua, guzien egilea, ororen emalea, denen asetzalea; bekatorea baizik ez duzu eskuak hutsik uzten. Orhoit zite zure urrikalmenduez eta bethe zazu nere bihotza zure graziaz, zuk eginak alferretan eginak ikusi nahi ez dituzunaz geroz.

Nere burua nola jasan dezaket bizi dohakabe huntan, zure urrikalmenduak eta graziak azkartzen ez banute? Ni ganik ez othoi bazter, Jauna, zure begitarrea; ni ganat jitea ez othoi gehiago luza; zure kontsolamenduak ez khen nere bihotzetik, nere arima bilhaka ez dadin lur kazkar eta idor baten pare.

Zure nahi sainduaren egiten erakats ezadazu, Jauna; erakats ere zure aitzinean behar bezala eta umilki ibiltzen: nere zuhurtzia zu baitzira, nizan bezalako nakizuna, nihau eta mundua bera egin aitzinetik ezagutzen nuzuna.



4. KAPITULUA

*Egiaren arabera eta umiltasunekin
behar dela Jainkoaren aitzinean ibili.*

1. JESUSEK. Nere haurra, egiaren arabera ibil zite nere aitzinean eta bilha zabilzkit, bihotza librorik.

Nere aitzinean egiaren arabera dabilana, etsaiaren ukaldietatik zainduko dut, eta tzarren balaku nola gezur beltzgarrietarik begiratuko. Egiak libroturik, egiazki libro izanen zira eta jendeen solas alferrez ez dukezu axolarik.

ARIMAK. Egia, Jauna. Diozun bezala egizu othoi ni baitan. Argi nezala zure egiak, begira nezala eta heriotze on baterat hel. Amodio lizun eta gutizia makur guzietarik garbi nezala, eta zurekin nabilake, bihotza egiazki libro.

2. JESUSEK. Nik erakatsiko dautzut, dio Egiak, zer den zuzen eta zer zaitan laket. Zure bekatuak erabil gogoan urriki eta bihozminekin, zure obra onen gatik zerbait bazirela nehoiz ez sinets.

Egiazki bekatore zira, eta hanitz azturek estekaturik eta iraulirik zauzkate. Esdeusterat ixuria zira jitez; laster lerratzen zira, begiak hetsideki artean erortzen, abian nahasten, berehala lotsatzen. Zeurez zeure espantua renik ez duzu; zure buruaren gutiesteko aldiz bazinuke asko, ohar zitzaizeon baino biziki ahulago baitzira.

3. Zuk eginetarik ez beraz handizat iduk deus. Sar barna gogoan deus ez dela handirik, balios eta miresgarririk, deus aiphagarririk, deus ederrik, deus egiazki laudagarri eta gutiziagarririk, bethi eta bethi iraun behar duena baizik.

Oroz gainetik maita zazu bethiereko Egia; higuin ukan bethi zure ezdeustasun ezin gehiagokoa. Ez ukan deusentzat ez beldurrik, ez erasiarik, ez herrarik zure hutsentzat eta bekatuentzat baizik; hoiek munduko kalte guziak baino gehiago hastiatu behar ditutzu.

Batzu ez dabilta arraiki nere aitzinean; begi-luzez eta urguluz nere gauza gordeak eta Jainkoaren misterioak xilatu nahi dituzte eta jakin, beren burua eta salbamendua bazterrerat utzirik. Bainan beren urgulua-

ren eta begi-luzearen gatik aher nitzaiotelakotz, tentazione eta bekatu handienetarat dira erortzen.

4. Sar bihotzean barna Jainkoaren jujamenduen beldurra eta guziek boteretsu denaren hasarrearen izialdura. Jainkoak eginak ez kitzika, bainan iker hurbilik zure bekatuak; iker zonbat gauza egin duzun gaizki eta zonbat obra on egin gabe utzi.

Batzuek beren khartsutasun guzia elizako liburuak datxikote; bertzek hango idurier, bertze batzuek aldiz elizako urratser eta elizkizuner. Batzuek beren ahomihitan nute, bainan gutik beren bihotzean.

Bertze zonbait, adimendua argi eta bihotza garbi, bethiereko ontasunaren ondotik hats-bahi dabilta; lurreko erranak bihozminekin dituzte entzuten, beren gorputza ezinbertzez eta nigarra dariotela arhatzen. Izpiritu Sainduak zer diotsoten hek dute aditzen: erakasten diote Izpiritu Sainduak lurreko gauzak ostikaturik zerukoan maitatzen; munduari uko eginik, gau eta egun zeruaz nahikaritzen.



5. KAPITULUA

*Jainkoaren alderateko amodioaren
ondorio miresgarriez.*

1. ARIMAK. Benedikatzen zitut, nere zeruko Aita, Jesus nere Jaunaren Aita, zeren ni bezalako herresta batez orhoitzeko aski ona izan ziren. Oi urrikalmenduaren Aita eta kontsolamendu guzien Jainkoa, eskerrak zuri, zeren, nahiz ez gai, zure gozaldiekin azkartu nuzun noiztenka.

Benedikatzen zitut bethi, zure Seme bakotxarekin eta Izpiritu Saindu kontsolatzalearekin orozbat menderen mendetan goresten zitutala.

O Jainko Jauna, hain minki maite nuzuna, nere barne guzia bozkarioz jauziko da, nere bihotzerat jautsiko zirelarik. Zu zira nere ospea eta nere bihotzeko atsegin bethea; zu, nere esperantza eta ihes-lekua nere egun gaixtoetan.

2. Bainan ahulki maite zitutalakotz oraino, eta bertutea eskaxko dutalakit, zure laguntzaren eta kontsolamenduen beharretan niz. Zato beraz ardura ni ganat, zure erakaspen sainduetan nere argitzeko; garbi nezazu nere jaidura tzarretarik, amodio makur guzietarik senda nezazu: bihotza hola sendo eta garbi, zure maitatzeko gai izan nadin, nahigabe guzien jasaiteko indartsu, bururaino irauteko azkar.

3. Ba, zerbait handirik da amodioa, ontasun bat ontasun guzietz gora-gokoa: hak baxharrik ditu gauza dorpeak arintzen, haren bidez du gizonak berdin jasaiten berdin ez zaiona. Hura lagun, nekerik gabe jasaiten ditu nekeak, ezti eta gozo kausitzen kirets direnak. Jesusen alderateko amodio arraiak obra handienen egiterat sustatzen du eta bethi gauza hobereenen nahikarirat akulatzen.

Amodioak goienarat du bere deia; lurreko gauza bihi hatek ez deratxikike beheiti. Amodioak libro nahi du eta lurtiar amodio guzietarik garbi, beldur baita hauiek ilhun dezaten; beldur, lurreko ontasuner josirik berant dadien gizona zerurako bidean, edo nahigabeak jorik eror.

Deusik ez da amodioa baino gozoagorik, deus azkarragorik, deus goragorik, deus zabalagorik, deus atsegingarriagorik, deus betheagorik eta hoberik zeru ala lurrean amodioak Jainkoa baitu ithurburu, eta, kreatura guzien gainez-gain iganik, onik ez baituke Jainkoa baitan baizik.

4. Amodio duena lasterka doa, hegaldaka doa, bazkariotan da, libro da eta deusek ez du baratzen. Oro emaiten ditu, guzien jabe izaiteko, eta orotan guzien jabe da: ororen gainetik, Izaite bakhar soberanoa baitan delakotz indar-berrikatzen, ontasun guzien ithurburuan eta ithurrian. Ez du ukantzari behatzen, bainan ontasun guzietz gorago altxatzen da, emaileraino.

Amodioak ez du maiz negurririk ezagutzen, haren kharrak gaindika irakitzen du. Amodioari deus ez zaio pizu, ez nekagarri; dezaken baino gehiagori da lotzen; ez dezakelako aitzakiarik ez du nehoiz, oro eginkizun baitauzka eta egingai. Orogen egiteko on da beraz, eta izaitz bururatzan ditu asko gauza, amodiorik gabea akit eta alferretan higa lezaketenak.

5. Amodioa bethi atzarririk dago, eta lo dagolarik ere nehoiz ez lo; akiturik ere ez da akitzen, atsegabetan izanikan ere ez lotsatzen, iziturik ere ez zozotzen: hainan zuziaren argia eta suko garra goiti doatzen bezala, amodioak halaber, poxeluak bazterturik, goiti du hartzen oldar.

Amodio duenak, hitz horren indarraren berri badaki. Sua darion arima baten kharra Jainkoraino altxatzen da, oi hu sarkor hunen pare: nere Jainkoa! nere amodioa! nere zira osoki eta ni zurea!

6. Nere amodioa zabal zazu eta bero, nere bihotzak ikas dezan zoin den gozo zure maitatzea, bai eta zure amodioan geza dadin eta urt.

Zure amodioak osoki bere nezala eta nere buruaz gorago altxa bere khar biziaren indarraz. Amodiozko kantika kantatuz, nere arima jarraj bekizu, Jesus ona, zure loriazko goratasunerat; eta bere bozkarioak gain-di eginik zu maitez, zure goretziaren goretzi azhi bedi.

Zure zerbitzariak maita zitzala bera baino gehiago; zure gatik baizik ez dezala bere burua maita; zinez maite zituzten guziak zu baitan maita ditzala, zuk argiratu amodiozko legeak manatzen duen bezala.

Amodio duena erne da, arrai, maitagarri, ezti eta goxo; azkar da, jasankor, jarraile, zuhur, zail, bihozdu, eta berearen ondotik ez dabil nehoiz: nork zertan baitu bere burua bilhatzen alabainan, hartan ere du hak bere amodioa galtzen.

7. Amodioak bazterretarat behatzen ohi du, umila da eta zuzena; ez da malina, ez arina, ez ergelkeriari emana; jan-edanetan izariz dabil, garbitasuna begiratzen du; ez da beratz, pausatua da, gorputza hertsiki du zaintzen.



Amodio duenak badakar jauspen buruzagien alderat; bere ustez erdeinagarri da eta zartzail. Oso osoan Jainkoari dagolarik eta ahal guziaz bethi eskerdun, Jainkoa baitan dauzka bere fidantza eta esperantza, Jainkoak behintzat utzia duela iduri zaiolarik ere: badakielakotz amodio-rik ez ditakela bihozminik gabe.

8. Guzien jasaiterat eta Jesusen nahiaren egiterat ez dagona, Jesusen adiskide izena ez du merezi. Jesus maitearen gatik atsegabe gogor eta kiretsenak onhartu behar ditu Jesus maite duenak, eta, zer-nahi gerta dakion, Jesusen ganik ez du berexi behar.

6. KAPITULUA

Jesus maite duenaren atsegabeez.

1. **JESUSEK.** Haurra, zure amodioa ez da aski azkarra oraino eta argitua.

ARIMAK. Zergatik, Jauna?

JESUSEK. Den nekerik ttipienez uzten duzulakotz hasi gauza eta gose soberarekin zabilalakotz kontsolamenduketa. Azkarki maite nuena, tente dago tentazionetan eta etsai maltzuraren saretarat ez da erortzen. Atseginetan maite nuen bezala, berdin maite nu atsegabetan.

2. Zuhurki maite nuenak, emaitzari ez du hala behatzen, nola emalearen amodioari. Ukantzari baino gehiago emalearen amodioari du esker, eta emalea ukantza guziak baino gorago du ezartzen. Arraiki maite nuenak, bere onaren ithurburua ez dauka ni ganikako dohainetan; bainan, dohain guzien gainetik, ni baitan.

Ez dira beraz zuretzat oro gal, neretzat edo sainduentzat dituzun sendimenduak ez badira noiz edo noiz zuk nahi bezain khartsuak. Artetan sendi duzun Jainkozko khar hori, zu baitan den graziaren ondorioa da eta zeruko atseginaren aitzinetikako jasta bat bezala. Ez zaizkiola haatik sobera finka, airerat baitoa jin bezain laster.

Bihotzeko nahikari makurrekin borrokatzea, debruaren enganio tzarrer bihur egoitea, hori da, hori merezimendu handizko bidea eta bertute gotorraren marka.

3. Asmu arrotz edozoin nondik-nahi jin dakion, zure bihotza ez bedi beraz asalda. Egon tente zure hatzean, atxik hartu xede onak. Ez uste ukan begietako lillura bat dela, noiz edo noiz bihotza zeruetaraino altxatzen bazaitzu, eta gero, handik laster, bere alhapide itsusietarat erortzen. Holakoetan ez zira bada nagusi, norbaiten eskupeko zira; delako alhapideak hastio ditutzuno eta uko egiten diotzuteno zinez, merezimendu da zuretzat eta ez zira leizean.

4. Jakin zazu zure etsai zaharrak zeri buruz hingatzen dituen bere indarrak: zure gutizia on guzietan zuri poxelu egiteari katzakatzen da eta urrats khartsu guzietarik zure urruntzeari. Gibelatu nahi zitu sainduen



gorestetik, gogoan khartsuki nere oinhazeen erabiltzetik, urrikoa bihotzean zure bekatuez orhoitzetik, behar bezala zure bihotzaren zaintzetik eta bertutean aitzinatzeo hartu xedeari jarraikitetik.

Gogoeta tzar hanitz ereiten du zure bihotzean, zure lotsatzeko eta atsegabeen azpian zure lehertzeko, othoitzetik eta liburu khartsuen irakurtzetik zure urruntzeko. Higuin du zure bekatuez egiten duzun aithor umila, eta ahal balu, komunione saindutik bethierekotz urrunt zintzake.

Etsai haren beldur ez izan, ez ikharan egon hurbil dakizun, zu galdu nahiz bere arteak maiz hedatzen badauzkitzu ere. Eman nahi dauzkitzun gogoeta tzar, ahalgegarriak, utz haren gain. Errozu: hoakit, izpiritu likitsa; ahalgez gorri hadi, hizan bezalakoa; holako solasen niri sakatzeko, barnea ez bide duk guti ustela. Ttattolatzale okaztagarria, hoakit urrun nitarik; den gutieneko lotkiarik ez dukek ni baitan hiretzat; eta Jesus nere ondolan atherako baitzaik gudulari gaitza, geldituko hiz ilhaundurik hi. Nahiago diat hil oinhaze handienen erdian, hiri nere baia eman baino. Ixil hakit, ago ixilik, ez hut gehiago entzunen, nahi dukana eginik ere nere durduzatzeko.

Jainkoa da nere salbamendua eta nere argia, noren beldur nitake? Armadak oldar balitzaizkit ere lerroka, ez lezaketet bihotza izi. Jesus da nere laguntzale eta salbatzalea.

5. Soldado bipil baten pare, guduka zite; noiz edo noiz ahuleziaz erortzen bazira, aitzinean baino indar handiago bat bil zazu, nere grazia nasaikiago ukanen duzula fidaturik; oroz lehen zure burua begira zazu bere alderako zurikeriatik, nola urgulutan sartzetik. Hortarik dira hogoi-ta bortz gal-bidean sartzeten eta, zombait aldiz, kasik ezin sendatuzko itsumendurat erortzen. Beren buruari zoroki fidatzen direnen erortze hori balia bekizu, zuhau erne eta umil egoiteko bethi.

7. KAPITULUA

Grazia behar dela gorde umiltasunaren hegalpean.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, hobe duzu eta segurago khartsutasunerako graziaren gordetzea, graziaren ukanaz ez urgulutan sartzeta, hartaz guti mintzatzea, den baino haren ez handiagotzea hobe duzu eta segurago izaitekotz, zure buruaren gutiestea, eta, grazia duzulakoan, gai ez ziren fagore batez bezala hartaz beldurtzea. Egungo sendimendua bertze baterat alda ditakelarik biharko, ez atxikiegi izan haren alderat. Orhoit, grazia hor duzularik, graziarik gabe zoin hits eta herresta ziren.

Bertutean aitzinatzea ez datxiko xoilki kontsolamendu ukaiteari, bainan, hetaz gabetua zirenean, umil eta jasankor egoiteari. Hola, othoitzaren edo ohi ditutzun khartsutasunezko urratsen alderat ez zira nagitzen. Bertutean aitzinatzeo, zure egiteko guziak bethezkitzu ahalik hobekienaz, zure argien arabera; arima idor eta hersturan duzulakoan, ez utz zure bihotza osoki erortzerat.

2. Hanitzak berehala khexatzen dira eta bihozgabekten, gauzak ez doatzilarik beren gogorat. Gizona alabainan ez da bethi bere bidearen nagusi. Jainkoari dago kontsolatzea eta graziaren emaita nahi duelarik, nahi duen izarian, nahi duenari, iduri zaion bezala, ez gutiago ez gehiago.

Batzu khartsutasunerako graziak berak galdu ditu, grazia horren gatik ezazoldu direlakotz: ahal baino gehiago egin nahi zuten, beren ahal ttipiaz ez dira orhoitu, beren bihotzeko suari adimenduko argiari baino jarraikiago izan dira. Jainkoak nahi baino lan handiagoer lotu direlakotz, dute grazia hoin laster galdu. Beren ohantzea zeruetan ezarririk zauden eta lurrean dira gelditu, gaixoak, eskuak hutsik; zoin hitsak eta ezdeusak diren ohartu ondoan, ikas zezaten ez beren hegalekin ibiltzen, bainan nere hegalpean fidantzarekin egoiten.

Jainkoa ganako bideetan sartu berriak gal ditazke erreki eta errekar eror, non ez duten jende zuhurrer argi galdatzen.

3. Zuhurren erraner baino beren asmuari nahiago badute jarraiki, beren salbamendua lanjer handian ditake, non ez duten beren asmuari



uko egiten. Bere burua zuhur daukanak, bakan ditu onhartzen umilki berzeen erranak.

Guti jakitea eta umil egoitea hobe da hanitz jakitea eta urgulutsu izaita baina. Ontasun guti ukaitea ere ba, aberats eta urgulutsu izaita baina.

Bozkarioari osoki emaiten dena guti zuhur, ahanzten duelarik bere lehengo gabezia eta Jainkoaren alderateko beldurra, hunek baitu gizon zuhurra, eskuratu duen grazia gal dezan beldurtzen.

Neke-orduetan eta edozoin atsegabetan sobera etsiturik dagona, ni baitan behar baina fidantza gutiago duena, hura bertute eta zuhurtzia ttipiko gizona.

4. Bake egunetan sobera maldan nahi dena, da maiz gudu-orduetan herabeena eta lotsatuena.

Bazinaki zu baitan umil eta xume egoiten, bai eta zure gogo-bihotzen negurrian eta menean idukitzen, lanjererat eta bekaturat ez zinitazke hoin laster eror. Zuhurtzia handia, zure bihotzak kharra dariolarik, grazia itzaltzearekin zer zitazken gogoratzea. Grazia itzaltzearekin, orhoit berriz ere itzultzen ahal zaitzula, argi hori ezen khentzen dut noiztenka nere osparentzat eta zure onetan.

5. Holako nahigabe bat hobe duzu maiz, oro bethi zuk nahi bezala gertatzea baina. Merezimendu irabazteko, ez da segur aski zerutikako kontsolamenduez bethea izaita, edo Liburu Sainduetan trebe izaita, edo kargu handietarat heltzea; behar da oraino umil umila egon eta Jainkoa osoki maitatu, Jainkoaren ospea garbiki eta errotik bilhatu, bere burua ezdeustat iduki eta zinez erdeinatu eta bertzeetarik ukan laidoez gehiago bozkariatu laudorioez baina.

8. KAPITULUA

*Nork bere buruaren gutiستهaz
Jainkoaren aitzinean.*

1. **ARIMAK.** Nahiz hauts eta erhauts baizik ez nizan, nere Jainko Jaunari mintzaturen nitzaio.

Den baina gehiagotzat badaukat nere burua, horra non altxatzen ziren nere kontra; eta egian zirela hor ditutzu nere bekatuak lekuko, eta lekukotasun hori ez dezaket gezurta. Bainan nere burua gutiesten badut eta ezeztatzen, nitaz dauzkatan urguluzko gogoetak zaphatzen baditut eta hastapeneko erhautserat gogoz itzultzen baniz, orduan alde duket zure grazia eta nere bihotzari hurbil zure argia; orduan, zerbait nitakelako usterkeriarik ttipienak nere ezdeustasunean ithoko dira eta behin bethikotz han galduko.

Han nuzu nihauri erakusten zer nizan, zer izan, zer bilhakatu mailez mail behereraino jautsiz: deus ez niz ezen, eta ez nakien.

Nihau nihauri utzia balin baniz, zer niz? Ahul bat, bertzerik deus; bainan bat-batean behatzen badautazu, berehala azkartzen niz eta atsegin berri batez bethetzen. Nere haztak errekarat nerama bethi, eta, Jauna, ez othe da miresgarri zoin laster nuzun zure ganat altxatzen eta zoin amul-tsuki besarkatzen?

2. Ni maitez egiten duzu hori, nitaz urririk artha hartzen duzula eta nere hainbertze behar-orduetan laguntzen nuzula, bai eta lanjer handienetarik begiratzen eta ehun gaitzetarik atheratzen. Nere burua sobera maitez niz galdu; zu xoilki bilhatu zitularik eta garbiki maitatu, nere buruarekin batean kausitu ere zitut, eta zure amodioak barnago ehortzi nu nere ezdeustasunean.

O Jesus, guziz bihozbera, merezi dutan baina hanitzez gehiago, igurikatzen dutan eta galdatzerat ausarta nitaken baina gehiago duzu egiten neretzat!

3. Izan zite goretsia, nere Jainkoa, hain ona zirelakotz eta esku-zabala non, gu zure ongi bihi baten gai ez izanikan ere, zu guri gau eta egun ongi igortzen ari baitzaizkigu, nahiz eskergabe gauden eta zutarik urrun.

Zu ganat osoki itzul gitzatzu, izan gitezen eskerdun, umil eta khar-tsu, zu baitzira gure salbamendua, zu, gure bertutea eta gure indarra.



9. KAPITULUA

*Gure biziaren azken muga Jainkoa denaz geroz,
hari buruz ditugula guziak egiteko.*

1. JESUSEK. Nere haurra, ni behar niz zure azken azken muga, egiazki zorionsu nahi bazira. Xede horrek garbituren dautzu bihotza, maizegi berari eta kreaturer buruz ixuria dagon zure bihotza. Alabainan zuhauraren ona zerbaitetan bilhatzen baduzu, abian epheltzen zira eta nahasten.

Bihur beraz niri dituzunak oro, ezen nik emanik dauzkatzu guziak. Orhoit gauza guziak Ontasun soberanoaren ganik datotzila; hari bihurtzekoak direla beraz, beren ithurbururat bezala.

2. Handi ala ttipiek, behartsu ala aberatsek nitarik dute, ezin agortuzko ithurbururik bezala, graziaren ihintza ezpainetarat biltzen; eta nereztzat arraiki eta gogotik ari direnek, grazia batentzat biga dituzkete sari. Aitzitik, bere ospea nitarik kanpo bilhatu edo nitaz bertze ontasun batean atsegin hartu nahiko duena, egiazko zorionean ez da sekula finkaturen, ez eta haren bihotza nehoiz ez bozkariaturen egiazki, bainan hanitz traba eta hersturetan koropilaturen.

Ongi mikorik ez ezar zure kondu, ez eta bertuterik gizon bihi baten eskuko, bainan eman Jainkoa guzien jabetzat, ezen hura gabe nehork deusik ez du. Oro nik emanak baitira, gibelerat nahi ditut oro bedera-bedera eta zor zaizkitan eskerrak hertsiki ditut galdatzen.

3. Horra egia bat, urgulua ihes igorri behar duena. Zeruko grazia eta egiazko amodioa bihotz batean sartzen badira, bihotz hak ez du gehiago ez bekaizgorik ez hersturarik ezagutuko, ez bera gehiago maitaturen berak. Alabainan Jainkoaren amodioak oro garaitzen ditu eta arimaren indar guziak handitzen.

Zuhurra balin baduzu, ni baitan zira xoilki bozkariaturen, ni baitan duzu xoilki zure esperantza jarriko, zeren ez baita nehor onik Jainko Jauna baizen, eta oroz gainetik hura behar baita goretsi eta benedikatu.

10. KAPITULUA

*Mundua oinkaturik
Jainkoaren zerbitzatzea gozo dela.*

1. ARIMAK. Berriz ere mintzatuko nitzaitzu, Jauna, eta ez niz solasetik baratuko. Zeru gorenean den nere Jainko Errege Jaunari erranen diot: *Zure beldur direnentzat daukazun gozoa, Jauna, zoin den handia eta nasaia!* Maite zituztenentzat zer daukazu bada; zer, beren bihotz guziaz zure zerbitzuan daudenentzat?

Zinez ezin erranezkoa da eta ezin gozoagoa, maite zituztener othoitzaz emaiten diozuten atsegin. Zure amodioaren gozoa erakutsi dautazu, ez nuen bizia eman dautazularik; zutarik urrun egokita zure zerbitzurat deitu nuzularik eta maita zitatan dautazularik manatu.

2. O bethiereko amodioaren ithurburua! Zer erranen dut zutaz? Nola ahanzten ahalko zitut, zu nitaz orhoitzeko aski ona izan zirenean, nihauk nere arima eihartzerat eta hiltzerat utzia nuelarik? Zure zerbitzariariz urrikaldu zira, berak uste zuen baino amultsukiago; zure grazia eta adiskidantza eman daizkotzu, hartze zituen baino nasaikiago.

Grazia horrentzat zer bihurtuko dautzut? Ez dute orok, utzirik guziak eta munduari uko eginik, komentuan sartzeko grazia. Handi othe da zerbitza zitzatan zu, kreatura guziek zerbitzatu behar zituztena?

Zure zerbitzari izaitea ez zait handi behar; bainan hauxe behar zait handi eta harrigarri: nola ni, hoin ezdeus eta onik-gabea, nuzun zerbitzaritzat nahi eta nola nuzun zure zerbitzari maiteen artean ezarri.

3. Ditudanak oro, zure zerbitzatzeko dituzketan ahal guziak, zuk emanak ditut. Eta bizkitartean zer ari zira? Zuk gehiago zerbitzitzen nuzu, nik zu baino.

Horra hor zeru-lurrak, gizonaren zerbitzuko zuk eginak, zuk manatu guziak egun oroz egiten baitituzte. Eta hori guti zaitzu oraino: gizonari aingeruak eman daizkotzu zerbitzari. Bainan emaitza guzietz nagusi dena, gizona zuhauk nahi duzu zerbitzatu, eta, zuhau emaitzaz haren izanen zirela, diozu hitzeman.



4. Ehun ongi hoientzat nik zer dautzut bihurtuko? Ai! nere bizi guzian zerbitza ahal bazindezat! Egun bakhar bat zure behar bezala zerbitzatzeko on banintz! Zinez guziek zerbitza zitzaten zor zaitzu; zor, ohore guziak eta bethiereko laudorioak. Zinez nere nagusia zira eta ni zure zerbitzari ezdeusa; behar zitut beraz nere indar guziet zerbitzatu eta, behinere unhatu gabe, goretsi. Hori baita nere nahikundea, nere tirria, emadazu othoi hortartzeko eskas duketan grazia.

5. Ohore eta ospe handi, zure zerbitzatzea eta zure gatik bertze guzien oinkatzea. Zure zerbitzu sailduan gogotik ari direnek, sari handia dukete. Zu maitez atsegin lurtiar guziak ostikatzen dituztenak, Izpiritu Sainduaren kontsolamendu gozoenez jabetuko dira. Zure gatik bizitze hertsu bati lotzen direnek eta mundu huntako zurruburu guzier uko egirik daudenek, gogo-bihotzak handizki libro dituzkete.

6. O Jainkoaren alderako zerbitzu maitagarri eta gozoa, gizona librotzen eta saildutzen duena! Oi komentueta bizitze saildua, gizona aingeruer parekatzen duena, Jainkoari laketa eta debruari higuin zaiona, giritino guzientzat ohoragarri dena! O ezin aski bilha eta gutizia ditaken esteka, ontasun guzier nagusi den Ongia merezitzen daukuna, bai eta emaiten bethiereko zoriona!

11. KAPITULUA

*Bihotzaren nahikariak
ikertu behar direla eta negurritu.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, gogoan ontsa hartu ez dituzun asko gauza behar dituzu berriz ikasi.

ARIMAK. Zoin dira, Jauna?

JESUSEK. Zure nahikundea behar duzu osoki nereganatu, zure burua ez maitatu batere, bainan nik nahi dutana lehiatuki obratu. Gutiziek bortizki zerabiltzate ardura, sutan ezartzen zituztela: beha ordean ontsa, nere ohoretan ari zirenetz ala gehienik zuhauren onetan. Neretzat ari bazira, nik zer-nahi mana, atsegin dukezu. Bainan zeure burua maitez den gutienik artzea, horra zerk zituen aurtikitzen eta nahasten.

2. Nere ixilean zuhauk asmatu gutizier ez beraz othoi sobera jarra; laketa zitzaitzuna edo on baino hobetzat zinakana ondolik hastia dezazun beldurrez, bai eta urrikitan sar zitezen eginik. Onak zaizkitzun gutizier ez zira berehala jarraiki behar; ez dituzu ere makurrak zaizkitzunak debalde utzi behar abian.

Xede eta gutizia onetan ere emeki ibiltzea hobe duzu, lasterka ibiliz zure gogoaren ez barreiatzeko; lehia soberarekin ariz, bertzeer gaizbiderik ez emaiteko; edo, bertzeen aiherkundeak nahasirik, ez etsitzeko.

3. Bainan artetan gogorki behar duzu jokatu eta gorputzaren nahikerier gizonki iharduki, gorputzak zer duen nahi edo zer ez, kasurik egin gabe; oroz gainetik gorputza nahi-t'ez iduk arimaren meneko.

Hezi behar duzu zure gorputza eta arimaren esku-makil egoiterat hertsatu, eginbide guzien bethetzerat edo atsegabe guzien jasaiterat jar arte; gutiz deusen ez uzten, gauza xumeenen maitatzen, eta, edozoin nahigabe gerta, deusetaz ez erranguratzen ikas arte.



12. KAPITULUA

Pazientziaren biltzeaz eta azturen hezteaz.

1. ARIMAK. Jainko Jauna, pazientziaren behar handitan nizala ikusten dut; ezen, bizi huntan, hanitz nahigabe gertatzen da. Bakeaz jabetzeko nahi dutana eginik ere, nere bizia ez ditake gudurik eta bihozminik gabe izan.

2. JESUSEK. Hala da, nere haurra. Ez dut nahi gudurik edo bihozminik gabeko bakearen ondotik ibil ziten, baina sinets dezazun, atsegabeek ezarriko zituztenean iraulirik eta nahigabeek porroskatu, orduan duzula zu baitan bakea. Ez dezakezula hanitz jasan balin baderasazu, purgatorioko sua nola jasanen duzu bada?

Bi gaitzatarik ttipiena hautatu hehar bethi: bethiereko oinhazetarat ez erortzekotz beraz, lehia zite oraiko gaitzen gogo onez jasaiterat Jainkoaren gatik. Zer uste duzu, mundutiarrek deusik ez dutela edo deus guti dutela jasaiteko? Holakorik ez duzu ikusiren, atseginean igerika dabilzanean artean ere.

3. Baina, diozu, hanitz atseginen jabe dira, nahi dutena egiten dute, eta hola arintzen zaizkote beren nahigabeak.

4. Hala biz; eman dezagun nahi dutena badutela. Baina noiz arte uste duzu iraunen duela? Lur huntan atseginez okituak daudenak, khea bezala dira itzaliko eta heien mukurruaz batere ez orhoituko. Bizi direno ere, heien atseginek ez dute kirestasun, beldur ez ilhundura eskasik.

Alabainan zertan ere baitute kausitzen atsegina, hartan ere dute ardu-ra nasaiki biltzen bihozmin.

Zuzen da, beren atseginak bilhatu ondoan negurririk gabe hartzen eta, nahasdurarik eta ilhundurarik gabe ez ditzaten goza. Oi zoin laburrak, zoin gezurrezkoak, zoin makurrak, zoin ahalgegarriak diren heien atsegina guziak! Bizkitartean, hordi eta itsu direlakotz, ez dira ohartzen. Abere basak iduri, beren arima gal-bidean ezartzen dute atsegina ezdeus eta galgarri baten gatik.

Zu beraz, nere haurra, *zure azturer ez jarra;* *zure nahikerier egin uko zuk.* *Bozkaria zite Jauna baitan eta hak emanen dauzkitzu bihotzak galdata guziak.*

5. Alabainan egiazki atsegina hartu nahi baduzu eta nere kontsolamenduez nasaikiago jabetu, egin uko lurreko atsegina galgarri guzier; orduan dituzu egiazki kausitaren zoriona eta kontsolamendu ezin agortuzkoak. Zonbat ere baitzira munduko atseginetarik urrunduren, hanbatentz dituzu nereak indardunago aurkituren eta gozoago.

Orobat ez zira gudu ez nekerik gabe hortarat helduko: erro gaitzeko aztura bat edo bertzek poxelu egin dezazukete, baina ohidura on batek garaituren ditu hek. Gorputza erranguraturen zaitzu, bihotzeko kharrak hezi artean. Ohiko suge tzarrak enganatu eta galdu nahiko zitu: othoitzaz da ihes igortzekoa hura, zerbait lan onetan ariz, bihotzeko athea hetsirik datxikozula.



13. KAPITULUA

*Jesus Jaunak bezala,
umilki behar dela obeditu.*

1. JESUSEK. Nere haurra, obedientziako athekatik jauzterat ari denak, grazinari bere bihotzeko athea berak dio hesten; eta nork ere nahi baitu berberetat zerbaiten jabe izan, ororentzat den ontasuna galtzen du hak.

Gogotik eta bere onez buruzagien azpiko ez dagonak, ageri du bere odola ez duela oraino osoki hezia, bainan erranguratzan zaiola eta oldar-tzen ardura.

Ikas beraz buruzagiek manatuen egiten zalu, zure odola hezi nahi baduzu. Kanpotikako etsaia alabainan lasterrago garaitzen da, barneko guduek ez badute bihotza xehatua.

Zure arimak zuhau baino etsai tzarragorik eta gaixtoagorik ez duke, zeure baitan zapartatua zirelarik. Osoki eta zinez zure buruaren gutieste-rat heldu behar zira, zure haragiaz eta odolaz nahi bazira nagusitu. Zeure burua maite duzulakotz oraino negurririk gabe, zira bertzeek manatuen osoki egiterat hoin uzkur.

2. Zu, erhauts eta erhautsa baino gutiago izanki-ta, zer mirakulua gizon bati Jainkoaren gatik mendu zitezen: ni guziz boteretsu eta handia, guziak ezdeusetarik egin ditutana, zure gatik umilki mendu nizanean gizo-nari. Orotako aphalena, ororen azken jarri niz, zure urguluaren garaitze-ko balia dakizun nere aphaltasuna.

Ikas obeditzen, ilhauna; ikas aphaltzen, ziren lohia, eta guzien zan-gopean lepoaren ukurtzen. Ikas zure nahiaren kalitzen eta edozoinen azpiko bizitzen.

3. Khexa zite zuhauri buruz, eta urgulua ez utz zu baitan hanpatze-rat; egin zite hain xume eta eman hain behera non, zure gainean, ixtilaren gainean bezala, baitabilke edozoin.

Ezdeusetarik atheraia zu, zer duzu errangura? Aiher zaitzunari nola zitazke ozar, bekatore beltza, hainbertzetan Jainkoa laidoztatu eta ifernua merezitu duzuna? Bainan, onaren onez, gupidatu nitzaitzu, zure arima balios zaitalakotz eta jakin dezazun zombat zitutan maite; gupidatu ere, nere ongi-eginentzat eskerdun izan ziten bethi, bertzeen meneko zinez bethi umilki egon ziten eta ikas dezazun laidoen jasaiteari iraunkor izai-ten.

14. KAPITULUA

*Jainkoaren jujamendu gordeak
gogon erabili behar ditugula,
gure obra onek urguluz ez hantzekotz.*

1. ARIMAK. Zure jujamenduen ortzantz-karraska aditzearekin, Jauna, ikharak eta beldurrak inharrosten ditu nere hezurak, eta izialdurak jana dago nere arima. Harriturik nago ikustearekin *zeruak ere ez zaizkitzula gar-biak*. *Gaizkia kausitu baduzu aingeruetan* eta ez badiozute barkatu, zer dago bada neretzat?

Zerutik erori dira izarrak; nik, nizan erhautsak, zeren kopeta duket? Beren obretan ohoragarri iduri zuten asko erreka-zolarat erori dira; eta aingeruen ogia zutenak hazkurri, ikusi ditut atsegin hartzen urde-bazkari.

Jauna, ez da beraz saindutasunik, zure eskua urruntzen baduzu gu ganik; ez zuhurtziarik, ez baduzu zuhauk bidatzen; ez indarrik, zuk ez baduzu laguntzen; ez eta garbitasunik, zuhauk zaintzen ez baduzu. Gizona bere buruaren begiratzeari alferretan ditake berma, ez balin bazi-tu alde. Guharen gain uzten bagitutzu, ithotzen gira eta galtzen; gure laguntzerat heldu bazira, goititzen gira eta azkartzen. Alda-maldaka goa-tzi, beharrik zuk ezartzen gitutzu tente; ephel gira, beharrik zuk sustatzen gitutzu.

3. Aphurra nizala eta aphala, oi zombat dutan orhoitzeko! Ni baitan ageri den on izpia, oi zombat dutan gutiesteko! O zoin behera behar nizan aphaldu zure jujamendu ezin gordeagoen azpian, ni baitan ez dutanaz geroz kausitzen deusik, bainan deusik gero! O zure hazta, hazta ez dita-keena! O leihorrik gabeko itsasoa! Itsaso horren zolan nere deus ez dut ikusten, ezdeus bat nizala baizik.

Urguluak non duke beraz gordetzekorik? Nor non bere indarrari fida? Nere urgulu eta harrokeria guzia ithotzen da zure zuzentasunaren itsasoan.

4. Gizona zer da zure aitzinean? *Bere moldatzaleari oldarturen othe zaio buztina?*

Jainkoaren begietan bihotzez egiazki aphal dagona, laudorio alferrek nola hantzen ahalko dute? Jainkoak bere meneko daukan bihotza, mundu



guziak ez dezake aira, ez harro; bere esperantza guzia Jainkoa baitan landaturik daukana, mundutiarren esku-zarta guziek ez dezakete erho. Aho ala esku-azantzak alabainan ez dira deus; laudorioak beren harrabotsarekin itzaltzen dira: Jainkoaren egiak baxharrik dirau menderen mende.

15. KAPITULUA

*Gutizia ditazken gauzetan
nola ibil eta mintza.*

1. JESUSEK. Nere haurra, gauza guzietan hunela mintza zite: Jauna, zuk atsegin duzuna egin bedi. Jauna, holako gauza zuretzat ospe bada, zure izenean egin bedi. Holako gauza on duketala iduri bazaitzu, Jauna, egizu gauza hortaz balia nadin zure ospearentzat. Bainan nere arimak kalte eta galbide dukela ikusten baduzu, khien ezadazu haren gutizia.

Ez dira ezen gutizia guziak Izpiritu Sainduaren ganikakoak, gizonak on eta zuzen kausiturik ere. Gaitz ere da jakitea xuxen, holako gauzaren gutiziatzerat nork zituen hertsatzen: aingeru onak ala gaixtoak, ala zuhaurren gogoak berak. Askok, aingeru onak zerabiltzala iduri hastean-eta, engaturik gelditu dira azkenean.

2. Edozoin gauza gutiziatzearekin beraz, bethi Jainkoaren beldurra-ekin eta umilki duzu gutiziatu behar hura eta galdatu; guziz, nere nahi sainduaren menerat aphaldurik, oro nere gain uzten ditutzula, diozularik: Zuk dakizu, Jauna, zer dutan hobe, egin bedi zuk nahi bezala. Emadazu nahi duzuna, nahi duzun izarian eta zuhauk nahi duzun tenorean. Egizu nitaz iduri zaitzuna, zer ere baitzaitzu on eta haren arabera, bethi zure ospe handienarentzat. Nahi duzun tokian ezar nezazu eta zernahitako har zerbitzarizat. Zure eskuko niz, nahi duzun alderat itzul nezazu eta firurika. Horra non zure muthil nizan orotako; ez dut nahi neretzat bizi, bainan zuretzat baxharrik: agian behar bezala eta osoki!

3. Jainkoaren nahiari daudenen OTHOITZA.

O Jesus, guziz amultsua, emadazu othoi zure grazia, nerekin izan dadin, nerekin lanean ar eta nerekin egon bururaino. Egizu gutizia deztan bethi eta onhar, zuk gehienik nahi duzuna eta atseginenik zaitzuna.

Zure nahia izan dadila nerea, eta nere nahia zureari jarrai bekio, haren ganik baztertu gabe deusetan. Zuk nahiak eta ez nahiak bat egin bezate nik nahiekin eta ez nahiekin; eta zer nahi baituzu eta ez nahi, nik ez dezatala ni baitan bertze zerbaiten nahi ukaiteko edo ez nahi ukaiteko ahalik.



Egizu munduko zer guzier hil nadin, bai eta laidoak eta esker tzarrak maita ditzatan. Egizu nahikari dituzketan guziak baino gorago daikitan zure baitako gozoa, eta nere bihotzak bere bakea zu baitan baizik ez dezan bilha.

Zu zira bihotzaren egiazko bakea, zu haren pausa-leku bakharra; zutarik landa ez da atsegabe eta griñarik baizen. Bake hortan, erran nahi baitut zu baitan, Ontasun oso eta bakharra, o nere Jainkoa, ditut hartuko nere deskantsua eta nere loa. Halabiz.

16. KAPITULUA

*Egiazko zoriona Jainkoa baitan
behar dugula bilhatu.*

1. ARIMAK. Nere zorionarentzat gutizia dezaketana edo asma, ez dut bizi huntan igurikatzen, bainan ba bertzean. Lurreko zorion guziaren jabe banintz, munduko atsegin guziak goza ahal banitza ere, segur ez lezaketate-la luzaz iraun. Ezin duket beraz zorion osorik, ez eta bozkario osorik, jende xumeak laguntzen eta aphaltak gerizatzen dituen Jainkoa baitan baizik.

Nere bihotza, igurika zazu aphur bat, igurika Jainkoak hitzmana, eta zeruan dituzketzu ongi guziak gaindika. Lurrekoen ondotik zilegi den baino goseago balin bazabiltza, zeruko bethierekoak ditutzu galduren. Balia zite hetaz; hotaz baizik ez haatik tirria. Edozoin izan dadin, ontasun iragankorrek ez zitzaizke ase, Jainkoak ez zituelakotz gozatzeko egina.

2. Lurreko ontasun guziak eskuko bazinitu ere, ez zinitazke zoriontsu hortako. Bainan zure zorion osoa, guziak egin dituen Jainkoar datxiko: ez mundutiar ergelek asmatzen eta gutiziatzen duten zoriona, bainan Jesusen zerbitzari onek igurikatzen eta bihotz khartsu garbiek aitzinetik artetan jastatzen dutena. Hok ezen zeruan bizi dira jadanik.

Mundu buntako atseginak, huts eta laburrak; zorion gozoa eta egiazkoa, Jainkoak emaiten daukuna.

Gizon khartsuak berekin dakar bethi Jesus, bere kontsolatzalea, eta hunela mintzo zaio: orotan eta bethi, Jesus Jauna, hel zakizkit. Gizonetarikako kontsolamenduez gabetua izaitetik, eta heien eskasaren gogo onez hartzetik bedi nere kontsolamendua. Eta zureak huts-egiten badaut, Jauna, zure nahia eta zuk igorri nahigabe zuzena bekizkit atseginetarik han diena: *ez baitzira ba hasarre izanen bethi eta zure dixiduek ez baitute iraunen mende.*



17. KAPITULUA

*Zer dukegun hoberenik
Jainkoak ikus dezan behar dugula utzi.*

1. JESUSEK. Nere haurra, zutaz nahi dutanaren egiterat utz nezazu, nik baitakit zer duzun on. Zuk gizon bezala ditutzu zure gogoetak orhartzten, eta zure sendimenduak, asko gauzen gainean, bihotzaren ixurkirat daude.

ARIMAK. Egia zuk, Jauna. Hanitz artha gehiago hartzen duzu nitaz, nihauk har dezaketan baino.

Erorikoaren beldurtzekoa duke laster, zu beraren besoari loturik ez dagona. Jauna, nere xedeak zuzenbidean egoitekotan eta gogortuak zu baitan, egizu nitaz zure gogorat: nitaz eginen duzun guzia ez baititake izan ongi baizik. Ilhunbean nahi banuzu, eskerrak zuri; argian banuzu nahi, nere eskerrak halaber. Atseginetan nahi banuzu, eskerrak oraino; atsegabetan banuzu nahi, eskerrak berdin.

2. JESUSEK. Nere haurra, hola behar duzu izan, nerekin ibiltzekotz. Atsegabearen jasaiteko gai izan behar zira, nola bozkariatzeko. Beharrean eta deus-gabe bizitzea onhartu behar duzu, nola aberats eta ausarki-dun izaitea.

ARIMAK. Erauntsi edozoin igorrikerik ere zuk, Jauna, gogotik dut jasaten zure gatik. Berdin gogotik nahi ditut zure eskutik onhartu ongiak eta gaitzak, gozoak eta kiretsak, alegerak eta hitsak: eta gertatzen zaizkitan guzietan eskerrak daukitzut.

Begira nezazu bekatu guzietarik, eta ez duket ez heriotzearen ez ifernuaren beldurrik. Ez balin banuzu bethikotz han harat igortzen zutarik urrun, eta hautetsien izenak dauzkan liburutik ez banuzu khentzen, bihotzeko ausikirik ere ez da min eginen dautanik.

18. KAPITULUA

*Bizi huntako nahigabeak behar ditugula,
Jesusek bezala, gogo onez jasan.*

1. JESUSEK. Nere haurra, zure salbatzeko zerutik jautsi niz; zure nahigabeak nere gain hartu ditut, ez ezinbertzez, bainan zu maitez: jasan-kor izaiten ikas dezazun eta bizi huntako nahigabeak erranguratu gabe ditzatzun jasan.

Sortzetik ezen kurutzearen gainean hil arteraino, jasaiteko ausarki ukan dut. Bizitzeko beharrenak eskas nituen; maiz entzun dut nitaz asko errangura; trufak eta laidoak amultsuki hartu ditut, nere ongi-eginen sari esker tzarrak bildu, nere mirakuluen ordain ahopaldiak, nere erakaspenentzat erasiak.

2. ARIMAK. Jauna, lur gainean hoin jasan-kor izan zirenaz geroz, guziz hola zure Aitaren nahia bethetzen zinuela; zuzen da ni, nizan bezalako bekatore ez zure nahiaren egiteko pairatzale izan nadin, eta, zuk nahi duzun artio, bizi hits hunen hazta jasan dezatan nere arimaren salbatzeko. Bizi hau alabainan minberatsu bazaiku ere, zure graziak merezimenduz bethe du, eta, bai zuk bai zure sainduak eman erakuspener esker, bizi hau arinago eta ohoragarriago zaiote gogo ahuler.

Lege zaharrean baino gozoago ere da; orduan ezen tinki tinkia hetsirik zagon zeruko athea; eta hain zen nekezago zerurateko bidearen kausitzea non, gutik baitzuten harateko bidearen bilhatzeko kharra. Gainerat, orduko gizon zuzenak, zerukotzat eginak hek, Aitaren erresumarat ezin sar zitazken, —zuk, pairatuz eta hilez, sartze hori erosi ondoan baizik.

3. Zer eskerrak zor daukitzuzun, onez on zerurateko bide segura eta xuxena erakutsi daukuzulakotz niri eta giristino guzier. Zure bizia da ezen gure bidea, eta pazientzia sainduak geramatza zu ganat, zu gure helburua.

Bide hori ez bazinu lehenik hartu eta erakutsi, bide horren hartzerat nor tirria? Ondikotz zombatak urrun eta gibel balagozke, zure oinen hatzak ez balitu argitzen! Zure hoinbertze mirakulu eta erakaspén entzun ondoan, ephel gaude oraino: zer ginitazke bada, zuri larraikitzeo holako iguzkia ez baginu hetarik?



19. KAPITULUA

*Laidoen onhartzeaz, eta egjazko
jasankorra zertarik den ageri.*

1. JESUSEK. Zer derasatazu, haurra? Nere oinhazeak eta sainduenean ikustearekin, ez othoi gehiago errangura. Ez duzu odol ixurtzerainoan iharduki oraino. Beha zonbat oinhaze, zer gudu bortitzak, zer atsegabe dorpeak, zonbat nahigabe eta neke mota jasan dituzten zonbaitek: hoién aldean guti duzu jasaiten.

Zure nahigabe ttipiak arinago kausitzeko, bertzeen handiak erabil bada gogoan. Eta zureak ez bazaizkitzu ttipiak, ikus ez dituenetz zure pazientzia eskasak handitzen. Bizkitartean, ttipi izan ditezen ala handi, lehia zite guzien jasaiterat erranguratu gabe.

2. Zonbat ere baitzaude nahigabe jasaiteari, hanbat zuhurrago zira agertzen eta merezimendu gehiago duzu irabazten; arinago ere ditutzu atsegabeak kausituen, bihotza hoietarat jartzen baduzu lehiatuki.

Ez erran: holako gizonaren ganik ez dezaket neholere egitate hori onhar, ezin jasana baita. Kalte handia egin daut, nehoiz gogoratu ere ez zaitanarentzat nu erasiatu; bertze baten ganik haatik atsegabe gutiagorekin jasan nezake, eta nihauk izartuz nere mina.

Zoroa, holako gogoeta: ez zira ohartzen pazientzia nolako bertutea den eta nork saristatu beharra, bainan jendeak eta laidoak zoin zer diren duzu xoilki behatzen.

3. Ez da egiazki jasanakor, berak nahi duenaren ganik eta berak nahi duen negurrian baizik jasan gogo ez duena. Egiazki jasanakor denak, ez du behatzen laidoa edo atsegabea noren ganik duen: duen hau bere nagusia, bere heinekoa ala bere azpikoa; ala den gizon zuzen edo makurra. Jasanakorak, edozoin eta nahi bezanbat atsegabe gerta dakion eta edozoinetarik jin, guziak berdin gogotik eta eskerrekin hartzen ditu Jainkoaren eskutik, eta handizki irabazitan dela iduritzen zaio; Jainkoak ez du ezen saririk gabe utziko atsegabetarik den ttipiena, harentzat jasana izan bada.

4. Gudukatzeari erne zaude beraz, garaitu nahi baduzu. Gudurik gabe, pazientziari zor zaion sarirat ez zitazke hel; deusik ez baduzu jasan

gogo, saria duzu ez nahi. Saria nahi baduzu beraz, guduka gizonki, jasan iraupenekin. Lanik gabe, ezin dukezu pausarik; ez eta garairik, gudurik gabe.

5. ARIMAK. Graziaren bidez errex ezadazu, Jauna, jitez ezin egin dezaketana. Zoin guti jasan dezaketan badakizu; bai eta zoin laster dutan etsitzen, den gaitz-biderik ttipiena jiten zaitanean. Edozoin atsegabe zure gatik maitagarri eta gutiziagarri bekit: zuretzat laido eta nahigabe jasaitea on baino hobe baitut, nere arimaren salbatzeko.



20. KAPITULUA

*Nork bere ahuleziaren aithortzeaz,
eta bizi huntako nahigabeez.*

1. ARIMAK. Nere hobena aithortuko dautzut, Jauna, aithortuko ere ba nere ahulezia. Ardura ezdeus bat aski dut histeko eta etsitzeko. Lehia badut orai bertutean gogor egoiteko, bainan sarri, tentazionerik ttipiena jin den ber, herstura handi baterat aurtikitzen nu. Ardura gauzarik ttipienak, ezdeuseria batek indarrean baderamakit gogo gaizkirat. Eta deus ez dutalarik hautemaiten ni baitan; guti edo aski atherbean nagolarik nere ustez, horra haizexka batek aurtikitzen nuela kasik.

2. Behozu bada, Jauna, nere ezdeustasunari eta hoinbertze ageri den nere ahuleziatzko ezin-ihardukiari; urrikal zakizkit eta athera nezazu lohitik, ez nadin han leporaino sartua sekulakotz gelditi.

Ardura histen nuena eta ahalgetzen zure aitzinean, da ikustea zoin erorkor nizan eta nere azturer ihardukitzeko zoin malet. Eta aztura hoier baimen osorik ez emanik ere, hoiere jasaitea bizkitartean dorpe zait eta akitgarri, eta hoiekin bethi borroka bizitzeak nardatzen nu.

Huntarik zait nere herbaikeria hobekienik ageri: gogoeta ahalgegarriak jiten baitzaizkit, urruntzen zaizkitan baino errexkiago.

3. O Israelgo Jainko guziz azkarra, girstinoen arimak hain samurki maite ditutzuna, beha zozute othoi zure zerbitzariaren lanari eta griñari, eta bere behar-ordu guzietan hel zakizkio.

Zerutik igor ezadazu zure indarra, gizon berriari nagusi ez dakion zaharra; ez eta arimari, oraino osoki bere meneko ez daukan gorputz lerrakorra, gorputz horri beharko bainiz jazarri, bizi dohakabe huntan hatsa dueno. Zer othe da zorigaitzezko bizi hau, nondik-nahi atsegabez eta kurutzez bethea, alde orotarik artek eta etsaiek inguratua den bezalako hau? Atsegabe bat itzal, bertze bat dathor abian; eta maiz lehenarekin borroka ari nizalarik, huna non dutan bertze andana bat uste gabeen heldua gainerat.

4. Hoin kiretsa, hoinbertze zorigaitzez eta nahigabez bethea izanki-ta, bizi hau nola ditake bada maita? Hoinbertze heriotze eta izurriteen

ithurburua, nola deitzen othe dugu ere bizi? Bizi hau bizkitartean hantzek maite dute eta beren atsegina bizi huntan bilhatzen.

Mundu hau zoin ezdeusa den eta enganakorra maiz artzen gira erraiten, bizkitartean ez diogu uko egiten errexki, jaidura tzarrak nagusituegiak ditugulakotz. Gauza batzuek munduaren maitatzerat geramatzate, bertze zonbaitek aldiz erdeinatzerat. Gorputzaren nahikeriek, begietako atseginek eta bizitzeko urguluak munduaren maitatzerat deramate; baiñan, zuzen bezala, hoier darraizkoten atsegabeek eta bihozminek munduaren hastiatzerat eta higuintzerat.

5. Bainan ondikotz munduari datxikon bihotzaren barnean atsegintzarrak dira nagusitzen, lore xoragarri baitauzka han bildu arrantzeak, zeren ez duen ikusi ez jastatu Jainkoa zoin den gozoa, eta zoin maitagarria bertutea.

Mundua osoki erdeinatzen dutenek eta Jainkoarentzat sainduki bizitzerat lehiatzen direnek, Jainkoa zoin den gozoa badakite segur, Jainkoak munduari zinez uko egiten dutener hitzemanaren arabera; eta ezin hobeki oharzen dira mundua zoin itsuski eta zonbat gisaz den enganatzen eta duen enganatzen.



21. KAPITULUA

*Jainkoa baitan behar dela egon,
bertze ontasun guzien gainetik.*

1. ARIMAK. Nere bihotza, gauza guzien gainetik eta gauza guzietan, goxa zite bethi Jauna baitan, hura bera da ezen Sainduen bethiereko gozoa.

O Jesus, guziz ezti eta amultsua, egizu zu baitan kausi ditzatan nere ona eta bakea oroz gainetik ohore eta ospe, osagarri eta edertasun guzien gainetik; kargu eta nagusitasun, jakitate eta argi guzien gainetik; antze eta aberastasun, atsegin eta bozkario guzien gainetik; laudorio eta aiphamen, kontsolamendu eta gozotasun guzien gainetik; esperantza eta agintza, merezimendu eta gutizia guzien gainetik; ixur eta eman ditzazketzun emaitza guziengainetik; asma eta har ditzazkegun zorion guzien gainetik; azkenean aingeru eta zeruko oste guzien gainetik; ikus eta ezin ikus ditzaken izaite guzien gainetik; hots, zutaz bertze guzien gainetik, o nere Jainkoa.

2. Ezen, nere Jainko Jauna, zu zira guzietarik hobereana; zu xoilki guziz gora, zu xoilki guziz boteretsua; zu xoilki zuhaurentzat aski zirena eta nehoren beharrik ez duzuna; zu xoilki guziz amultsua eta gozoa; zu xoilki guziz aberatsa eta maite gitutzuna; zu xoilki guziz handi eta ospagarria; zu baitan dira ontasun guziak batean eta osoki; zu baitan izan dira ontasun guziak eta izanen bethi: hortakotz, zutaz emaiten dauzkitatzun bertze guziak ez zaizkit aski edo ttipiegi zaizkit; eta zure buruaz agertzen dauzkitatzunak eta agintzen, ez zaizkit aski, ez balin bazituz ikusten zu eta osoki neretzen.

Nere bihotzak ezen onik ez duke zinez eta ez ditake osoki goza, non ez den zu baitan kokatzen, bai eta, ukantza eta kreatura guziez gorago, zure ganat altxatzen.

3. O Jesus, nere adiskiderik minena, garbikienik maite nuzuna, mundu guziaren jabea eta nagusia, nere lokarriak nork hautsiko dauzkit, hegalak nork emanen, zuri buruz hegaldatzeko eta zu baitan kokatzeko? Noiz duket, nere Jainko Jauna, xoilki zuri so egoiteko eta zoin gozoa ziren ikusteko zoriona?

Noiz othe niz ni baitan hainbertzetaraino bilduko non, zu maitez nere buruari ez bainiz ohartuko ere, bainan zu xoilki baitzituz gozatuko, nehork erran ez dezaken eta askok ezagutzen ez duten moldez?

Intziraka nago maiz orai eta nere atsegabea hasperenka deramat nigargarriko haran huntan gaitz frango gertatzen baita, maiz nahasten, histen eta ilhuntsen nutenak. Gaitz hoiek nute ardura trabatzen eta barreiatzen, beren ganat hurruputzen eta saretan sartzen, hola zure ganat jiterat ez bainute uzten eta dohatsuentzat dauzkatzun besarka gozoak khentzen baitauzkitate.

4. Nere auhenek eta jasaiteko dutan gaitz andanak hunkiren zituzte agian, o Jesus, bethiereko ospearen iguzkia, mundu huntako arimen kontsolatzalea. Nere ezpainak mutu daude zure aitzinean; ixil daudelarik hek, nere bihotza zaitzu mintzo.

Nere ganat jiterat-noiz arte beranduko du nere Jaunak? Bethor ni ganat, ni bere zerbitzari gaixo gaixoaren ganat, eta bozkarioz bethe nezala. Bere besoa heda biezat, eta, nizan dohakabea, herstura guzietarik nezala khen.

Zato, zato: zu gabe ez baituket ez egun bat ez oren bat alegerarik, zu baitzira nere zoriona eta zu gabe nere mahaina hutsik baitagoke. Zure begitartearen argia nere azkartzerat, zure arpegi maitagarria nere lokarrien hausterat heldu ez deno, atsegabetan niz, presondegi batean oinak burdinez trabaturik bezala.

Zu utzirik, nahi dutenaren ondolik ibil bedite bertzeak; nik, asteko, ez dut deusik maite ez nehoiz maitaturen zutaz bertzerik, zu nere Jainkoa, nere esperantza, nere bethiereko salbamendua. Ez niz ixilduko, ez othoiztetik baratuko, zure grazia berriz itzuli arte ni ganat eta zu nere bihotzari mintzatu arte.

JESUSEK. Horra non nizan zure ganat jina, deitu nuzulakotz. Zure nigarrek eta zure arimaren nahikariek, zure umiltasunak eta bihotzeko urrikiak hautsi nute zure alderat eta jautsi zu ganat.

5. ARIMAK. Deitu zituz, Jauna, eta zutaz gozatzea dut gutiziatu. Guzien oinkatzerat nago zure gatik: zure bilhatzerat zuhauk bainuzu heratsu lehenik. Milesker beraz, Jauna, zure urrikalmendu nasaiaren arabera zure zerbitzariarentzat hain ona izan zirelakotz.

Zure zerbitzariak zer duke egiteko, bere bekatuez eta ezdeustasunaz orhoituz zure aitzinean are gehiago aphaltzeaz bertzerik? Alabainan zerulurreko ikusgarri guzietan zure idurikorik ez da.



Zure obrak guziz onak dira, zuzenak zure jujamenduak; guziak zuk eman bizipidetik dabilta. Ohore beraz zuri eta ospe, o Aitaren zuhurtzia; nere mihiak, nere bihotzak eta izaite guziek benedikata bezitzate eta gorets menderen mendetan.

22. KAPITULUA

Jainkoaren emaitza nasaiez orhoitzeaz.

1. ARIMAK. Zure legeari, Jauna, idekotzu nere bihotza, eta zuk manatue jarraikitzen erakats ezadazu. Egizu zure nahia ezagut dezatan, eta zuk niri eman guziez orhoit nadin jaupen eta gurbiltasun handienarekin, hola behar bezalako eskerrak bihur dietzatzutan.

Badakit ordean eta aithortzen dut zuk egin emaitza ttipienarentzat ezin ditzaketzutala zor zaizkitzun eskerrak bihur. Zuk eman ongi guziek ahalago niz biziki zure handitasunari so nagolarik, nere gogoa zorabiatzen da.

2. Gorputzean eta ariman ditugun guziak, soin-barnean eta axalean, jitez ala graziaren bidez ditugunak oro, zuk emanak ditugu; eta zure ongiegin guziek erakusten daukute zoin ziren ona, zoin bihozbera, zoin esku-zabala, zu gure ontasun guzien ithurburua.

Oro, arren, zu ganik dathotzi, batek gehiago, bertzeak gutiago ukan badute ere; zu gabe ezin gitazke ontasun ttipienaren jabe. Gehiago ukan duena ez ditake bere merezimenduez urgoi; ez du zeren bertzeek baino gorago altxa burua, ez eta gutiago ukan duena tru a: handiagoo da ezen eta hobea bere buruari merezimendu gutiago emaiten duena eta zuri eskerren bihurtzen guzien artean umilkienik eta khartsukienik ari dena.

Bere burua guzietarik herbailenarentzat eta tzarrenarentzat daukana ditake ukantza handienen gehienik gai.

3. Ontasun gutiago ukan duenak ez du behar histu eta khexatu, ez eta hak baino gehiago ukan duenaz bekaiztu; behar du aitzitik are gehiago bere gogoa zuri buruz altxatu eta zure onezia goretsi, zeren dituzun hain nasaiki, gogotik eta urririk zure emaitzak egiten, nehoren alderako berexkuntzarik gabe. Oro zu ganik dathotzi, eta beraz orotan gorestekoa zira.

Badakizu zuk nork zer duen on; ez da guri ikertzea, bainan ba zuri, hunek zergatik duen guti eta hanitz hak, zuhauk dakizunaz geroz batbederaren merezimenduen berri.



4. Hortakotz, Jainko Jauna, dohain berezi daukat neretzat, ez baitautazu jendeen laudorio eta ohorez estal nidezaken axaleko lilluragarriak deus eman. Bai segur, bere buluziari eta ezdeusari ohartzen dena, ez dagoke neholere hits, ilhun, etsian; boztea duke hak eta arraitzea, izaitekotz; ezen jende herbailak, umilak eta munduak zangopean dauzkanak, zuk, Jainko Jauna, hautatu ditutzu adiskide eta zerbitzaritzat.

Zure Apostoluak hor ditugu lekuko, *munduaren buruzagi zuk ezarriak*. Errangurarik gabe bizi izan dira lur gainean, hain xume eta aphas, maltzurkeria eta enganio guzietarik hain garbi non, *zure gatik laidoen jasaitea atsegin baitzitzaioten*, eta munduari higuin zaiona amultsuki baitzuten hartzen.

5. Zu maite zituena eta zure ongien berri dakiena, deusek ez du hainbertze bozkariatu behar, nola zure nahiaren eta hartaz ditutzun xede bethetzeak. Halako atsegin eta zoriona baduke bide hortarik non, batzu handi-mandi izaiteaz tirriatzen diren bezala, hura ttipi izaiteari berdin gogotik baitago, lehen mailean bezain alegera eta zorionsu azkenean; non berdin gozoki bizi baita laido eta eskarnioen pean, izenik ala omenik gabe, nola bertze batzu ohorez eta karguz gaidian. Zure nahia ezen eta zure ospearen amodioa guzier nagusi behar da; ohiko eta geroko ukantza guziek baino atsegin eta zorion gehiago behar diote eman.

23. KAPITULUA

Bake handia dakarten lau bideez.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, erakatsiko dautzut orai bakearen eta egiazko libertatearen bidea.

ARIMAK. Diozuna egizu, Jauna. Zure entzutea goxo zait.

JESUSEK. Lehia zite, nere haurra, ez zurearen, bainan bertzeen nahiaren egiterat. hauta bethi gutiren ukaitea, hanitzen baino. Har bethi azken maila eta bertze guzien azpiko jar. Egin othoitz bethi eta gutizia, zu baitan egin dadin Jainkoaren nahi guzia. Hola ari dena, bakearen eta sosegua bidean sartua da.

2. **ARIMAK.** Zure solas labur horrek, Jauna, gizonaren hobetzeko badauka indar handi. Solas laburra, bainan mamitsua eta ondorioz aberatsa. Begira ahal baneza leialki, ez nintazke hain errexki asalatu behar. Nere burua khexu eta ilhun sendi dutan aldi oroz, erakaspn hoitarik baztertu nizala ohartzen niz. Bainan zuk, guzien egiteko ahala daukazuna eta bertutean aitzina nadin nahi duzuna, emenda zazu ni baitan zure grazia, zuk errana osoki obra dezatan eta nere salbamendua burura.

3. *Gogoeta tzarren ohiltzeko* OTHOITZA.

Nere Jainko Jauna, ez othoi nitarik urrunt; nere Jainkoa, laguntzerat zatokit laster: gogoeta asko eta izialdura bat gaitza sortu baitira ni baitan, nere bihotza leherturik eta nahasirik daukatela. Osorik nola atherako niz hortik? Nola gairaturen ditut?

Ni, duzu erran, ibiliko niz zure aitzinean eta lurreko handi-mandiak aphauduren ditut. Presondegiko atheak zabalduren ditut eta erakutsiren dauzkitzut ihesbiderik gordeenak.

Diozun bezala egizu, Jauna, eta zure aitzinean sunsi bedite gogoeta lizun guziak. Nere atsegin eta esperantza bakharra hauxe da: atsegabe guzietan zure ganat ihes egitea, zuri bermatzea, bihotzaren erditik zure othoiztea, eta zure kontsolamenduen aiduru pazientziarekin egoitea.

4. *Adimenduaren argitzeko* OTHOITZA.

O Jesus ona, nere bihotzerat ixur zazu zure argia, estalirik daukaten hedoi beltzak urratuz. Hezkitzu, Jauna, nere ehun gogoeta barreiatuak eta



urrunt othoi nitarik leherturik naukaten guduak. Altxa zazu nere alde zure besoa, ehozkitzu ni baitan orrobiaka xutituak diren azturak: zure indarra-ri esker bakea bil dezatan, eta nere bihotz garbituak nasaiki ditzan zure laudorioak kanta.

Mana zozute haizeari eta zirimolari: «jabal hadi», errozu itsasoari; «geldi hadi», haizeari; eta jabaldura handi bat eginen da.

Igor othoi zure argia eta egia, lurraren gainean distira dezaten; ezen, lur agor eta ilhun baten pare nago, zuk argitzen ez nuzuno. Zure grazia gainerat ixur ezadazu eta zeruko ihintzaz busti nere bihotz-xoko guziak: hedazkitzu ur gizenak lur kazkarraren zohitzeko, uzta on eta salbagarria eman dezan. Nere bihotz, bekatuen haztak lehertua daukan hau, altxa zazu; zeruko gauzer lot, othoi, nere gutizia guziak: zeruko zorionaren gozoa jastaturik, lurreko zerez orhoitzea bera hastia dezatan.

Har nezazu eta khen lurreko gauzetarikako atsegin iragankorretarik, kreatura bihi batek ez baitezake ase ez osoki goza nere bihotza. Zuri jos nezazu amodioaren ezin hautsizko lokarriaz; ezen, zu xoilki aski zitu maite zituenak eta, zu gabe, alfer eta ergel zaizko oro.

24. KAPITULUA

*Non nola dabiltzan bertzeak
ez dela gure ikustekoa.*

1. JESUSEK. Nere haurra, ez izan begi-luze, eta behar-gabeko griñarik ez alha. Hau edo hura gerta, ez duzu ikustekorik zuk? Jarrai zakizkit niri.

Hau izan dadin holakoa edo halakoa; hura hola edo hala ibil dadin eta mintza, zer zaitzuke? Ez zira bertzeen berme, baizik zuhauren. Zendako beraz heientzat griña?

Nik ezagutzen ditut gizon guziak; iguzkipean egiten direnak oro ikusten ditut; badakit bat-bederaren berri, gogoan zer daukan, zer duen nahi eta gutiziak zeri doazkion. Oro beraz nere gain utzi behar dituzu: zu aldiz zaude bakean eta utz nehon ez dagokena bere urrats nahasietarat. Egin edo erran duena gainerat eroriko zaio, ni ez bainu enganatzen ahal.

2. Ez ihil omen handi; baten itzalaren ondotik, ez eta adiskide hanitz beharrez; ez eta zonbait bakharren adiskidantza berezia nahiz: hoik guziek gogoa barreiatzen dute eta bihotza handizki hedoitzen.

Gogotik mintza nintzaieku eta gauza gordeenak nauzkiketu ager, noiz nathorkitzun aiduru bazinaude erne, eta bihotzeko atea zabaltzen bazinaut. Erne zaude eta atzarririk othoitzean, eta gauza guzietan umilia zite.



25. KAPITULUA

*Zeri datxizkon bihotzeko bake osoa
eta arimaren egiazko aitzinamendua.*

1. JESUSEK. Nere haurra, erran dut: *Bakea uzten dautzuet, nere bakea enaiten dautzuet, bainan ez munduak enaiten duen aran.*

Bakea orok nahi, bainan nondik nola bil nehor guti axolatzten. Nere bakea umilentzat eta bihotz eztiertzat. Zure bakea pazientzia handi bati datxiko. Entzuten banuzu eta nik erranari bazarraizkio, bake nasaiatz gozatzen ahalko zira.

2. ARIMAK. Zer duket egiteko bada?

JESUSEK. Gauza guzietan gogo emazu zer egiten duzun eta zer erraiten; ez bertze lehiaz ukan nihauri atsegin egitea baizik. Ez gutizia deus, deus ez bilha nitaz bertzerik. Bertzeen solasen edo obren kitzikatzteratez ausarta; zure gain ez diren zeretaz ez sar: hola guti edo bakan zaitzu nahasiko bihotza. Bizkitartean nahasdurarik batere ez ukaitea, gorpuztean edo bihotzean atsegabe bihirik ez jasaitea, ezin ditake hori lurreko bizian, bainan xoilki bethiereko bakean.

Ez uste ukan beraz egiazko bakea kausitu duzula, nahigaberik bate-re ez duzulakotz; ez eta guziak ontsa doatzila, ez duzulakotz etsai bihirik; ez eta bertutearen goienerat heldua zirela, oro punperat jiten zaizkitzulakotz; begira zite urgoitzetik, buruan sartetik Jainkoak molde berezi batez maite zituela, khartsutasun gozo batean bizi zirelakotz: bertutea nork nola maite duen ez da hoitarik ageri, ez datza hor arimako aitzinamendua eta gizonaren saindutea.

3. ARIMAK. Zertan bada, Jauna?

JESUSEK. Saindu zitazke, nere nahiaren meneko gogotik jartzen bazira; deusetan, ttipi ala handi, orai ala gero, zure ona bilhatzen ez baduzu; eskerrak bihurtzen dauzkitatzula begitarte on berarekin, eta oro gogotik jasaiten ditutzula, on ala tzar.

Bihotzeko gozoaz gabetua izanikan ere, esperantza aski azkar eta gogor balin badaukazu bihotzaren aphaintzeko nahigabe bortitzagoen jasaiterat; zure burua xuritzen ez baduzu gaitz hoik merezi ez bazinitu bezala; bainan, zer-nahi gertaturik ere, saindua eta zuzena nizala aithor-

tzen baduzu, orduan zira bide zuzenean, egiazko bakerat deraman bidean, eta duda-mudarik gabe igurikatzen ahalko duzu nere begitarte berriz ikusiko duzula bozkarioekin.

Zure buruaren osoki gutiesterat heltzen bazira, jakin zazu orduan zirela bake nasaienaz gozatuko, lur huntan egin ditaken bezanbatean.



26. KAPITULUA

*Gogoko libertatea othoitzetik dela
hobeki biltzen, irakurgetarik baino.*

1. **ARIMAK.** Jauna, nor zer saildu den ageri da, zeruko gauzetarik gogoia nehoiz ez badu baztertzen; hanitz griñaren erdian, griñarik gabe bezala bada bizitzen; eta hori, ez batere nagia delakotz, bainan zure graziari esker bere gogoia libro daukalakotz, bai eta bihotza lurreko zeren amodio makurretik kanpo.

2. Othoi, othoi, nere Jainko guziz ona, bizi huntako griñetarik begira nezazu, berandets ez nezaten nere bidean; begira gorputzaren mila beharretarik, gurikeria lizunak ez nezan lillura; begira arimaren etsai guzietarik, atsegabeek ez nezaten lotsa eta lehert.

Ez dautzut galdatzen mundutiarrek hain lehiatuki bilhatzen dituzten gauzetarik begira nezazun, bainan guziek, Adamen bekatu madarikatu zinuenaren ondorioz, jasaiteko ditugun atsegabeetarik; hoiek baitiote zure zerbitzariari arima koropilatzen eta berantzen, eta haren gogoia libertateaz gozatzerat ez uzten nahi luken bezanbat.

3. O nere Jainkoa, ezin gehiago amultsua, egizu, othoi, kirets kausi dezatan zeruko gauzen maitatzetik urruntzen nuen atsegin iragankor, orai ondikotz, ona delakoaren idurian, bereganatzen nuena.

O Jauna, nere azturak ez bekizkit nagusi, munduak eta hunen ohore laburrek ez nezatela lillura, ez eta engana debruak, nere etsai maltzurak. Emadazu ihardukitzeko indarra, jasaiteko pazientzia, bururaino tente egoiteko iraupena. Munduko atsegin guzien orde, emadazu zure gozoa; eta lurtiar amodioaren orde, zure izenaren amodioa.

4. Jatea, edatea, eta gorputzak bizitzeko behar dituenak oro poxelu zaizko arima khartsuari. Egizu sokorri hoitaz behar den negurrian balia nadin eta ez ditzatan sobera maita.

Hoi guzien debalde uzterat ez gira haizu; gorputzak berea behar baitu. Halere, hoitarik behar baino gehiagoren hartzea eta atsegin gehiena dakartenen bilhatzea, zure lege sailduak debekatzen dauku, arimari oldar bailitake bertzela gorputza. Hoik hola, zure besoak othoi bida nezala eta argi, soberakin guzietarik begira dezatan nere burua.

27. KAPITULUA

*Gure buruaren maitatzeak gituela
gehienik Jainkoaren ganik urruntzen.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, orotaz jabetzekotz, behar dautazu zure burua osoki eman; zu baitan ez dadila izan zeurerik deus. Jakin zazu zeure buruarentzat duzun amodioa baino etsaiagorik, munduan ez duzula deusik.

Zer negurritan baitituztu maite, negurri ber-berean zatxizkiote gauzer. Heientzat duzun atxikimendua garbia bada, lañoa eta zuzena, ez zira heien meneko izanen. Ez gutizia zilegi ez zaitzuna. Ez atxik arimaren libertatea khentzen ahal dautzunik eta poxelu dukezunik deus. Harritzeko da nola ez ziren bihotzaren erditik nere gerizan jartzen, gutizia ditzazketzun edo eskuko dituzketzun guziekin.

2. Zendako zaude atsegabe hutsal batzuek jana; zendako, griña alfer batzuek urtua? Nere nahi sailduari lot zakizkio eta deusek ez zitu zaurituko. Zure onaren edo nire atseginaren gatik, lekuz leku edo gauzaz gauza balin bazabiltza, sekula ez zira bakean edo griñarik gabe biziko: gauza guzietan eskas zerbait kausituko duzulakotz eta toki guzietan etsai zombait.

Bakea ez datxiko beraz ontasun ukaiteari edo ontasun metatzeari, bainan ba heien erdeinatzeari eta bihotzetik uzteari. Ez diozute xoilki diruari eta ontasuner behar egin uko, bainan ohore-laudorio goseari eta gutziari, ezen hoik oro munduarekin batean suntsitzen dira.

3. Tokiz aldatzea deus guti da, bihotza khartsu ez bada; kanpoan bilhatu bakeak guti du iraunen, haren egiazko zimendua eskas badu bihotzak. Erran nahi dut: ni baitan ez bazaude tente, alda zitazke, bainan ez zitazke hobeki. Ezen lerra-bide bat agertzen bazaitzu, zutarik urrun zinauzkan gurikeriak edireinen ditutzu han, lohiagorik oraino ez bada.

4. *Bihotzeko garbitasunaren eta zerutikako zuhurtziaren ardiesteko OTHOITZA.*

Izpiritu Sailduaren graziaren bidez azkar nezazu, Jauna. Azkar othoi nere bihotzean egiazko khartsutasuna. Maltzurkeriazko dei guziak ithozkitzu nere bihotzean, gauza bihirik, ez txar ez ederrik, ez dezatan gutizia, —orhoit nadin, aldiz, gauza guziak iragankorrek direla eta ni ere heiekin



iragaitekoa nizala: *ezen iguzkipean iraunkorrik ez da deus, oro ezdeuseria baidik ez dira eta bihozmingarri*. O zoin den zuhurra, gauza guzietan hola behatzen diotena!

Emadazu, Jauna, zerutikako zuhurtzia, ikas dezatan oroz lehen zure bilhatzen eta kausitzen, zure goxatzen eta maitatzen, eta gaineratekoen zue egin eta diren bezala hartzen. Egizu lausengatzaleak nitarik zuhurki urrunt ditzatan, niri aihar daudenak jasan ditzatan khexatu gabe; zuhurtzia handia da, ezen, entzun solas guzietan gogor egitea eta laudorio zakurrer beharrien hestea. Hasj bidea hola da bururatzen segurki.

28. KAPITULUA

Mihi gaixtoer nola iharduk.

1. JESUSEK. Ez khexa, nere haurra, nork edo nork zutaz gogoeta gaixtoak alhatzen baditu, edo mintzo bada laket ez zaitzunaz. Zeure burua gutiestekoago duzu oraino zuhauk; sinesteko duzu zu baino arimaz markitsagorik ez dela nehor. Egiazki khartsu bazira bihotzez, axola handirik ez dukezu haizeak deramatzan hitzez.

Egun beltzetan ixilik egoitea eta bihotzez niri buruz itzultzea, zure bihotza jendeen erranek nahasterat ez uztea: hori zuhurtzia, eta ez ttipia.

2. Zure bakea ez jar sekula jendeen aho-mihietan: ezen, zutaz ontsa mintza ditezen ala gaizki, ez zira bertze gizon bat hargatik. Non dira egiazko bakea eta ospe egiazkoa? Ez othe ni baitan?

Gizoner atsegín egiterat edo ez egiterat kilika ez dena, bake nasaie-naz da gozaturen. Zure bihotzeko griñen eta barreiaduren erroa, zure buruaren amodio makurra eta jendeentzat duzun beldur zoroa.



29. KAPITULUA

*Atsegabea jitearekin, Jainkoa
nola behar dugun othoiztu eta goretzi.*

1. ARIMAK. Zure izena goretzia bedi, Jauna, menderen mendetan, oraiko atsegabe hau gerta dakitan nahi ukan duzulakotz. Bazter ez dezaketanaz geroz, zer duket egiteko zure ganat ihes egitea baizik, lagunt neza-zun eta zerbait onik athera dezazun hartarik neretzat.

Jauna, horra hersturan nizala: bihotza eri dut, tinkatzen duen azturak mingaizturik. Eta beraz zer erranen dautzut, nere Aita maite maitea? Hersturak bereturik nauka dena. *Hinka tzar huntarik athera nezazu.*

Neke hau jin zait, goretzia izan ziten altxaturen nuzularik, ni hain behera erortzerat utzi ondoan. Othoi, othoi beraz, altxa nezazu, ezen nik, nizan hezalako ezdeusak, zer ahal duket eta norat noake goiti zu gabe? Pazientzia emadazu, Jauna, oraino aldi huntan. Lagunt nezazu, nere Jainkoa, eta, zer-nahi gerta dakitan, deusen beldurrik ez duket.

2. Eta orai zer erran dezazuket oraino? Zure nahia egin bedi, Jauna, hersturak eta bihozminak, merezi ditut segurki. Oinhazeak baitezpada jasan behar ditut, pazientziarekin agian, zirimola itzul eta aro ederra itzul arte.

Orai arte hainbertze aldiz egin dautazun bezala, nere Jainko urrikal-tsua, zure beso guziz indartsuak gudu huntarik athera nezake oraino, ezti-tuz hunen indarra, errekarat ez nadin arras eror. Eta lan hori zombat ere baitzait niri gaitzago, hanbatez da zure beso azkarrarentzat errexago.

30. KAPITULUA

*Jainkoari laguntzaren
galdatzeaz eta igurikatzeaz.*

1. JESUSEK. Nere haurra, ni niz Jauna: atsegabeen nik dut azkartzen bihotza. Ni ganat zato, atsegabeen zirelarik.

Lasterrago ez baduzu ukaiten laguntza zerutik, berantegi baitzira lotzen othoitzari. Alabainan niri khartsuki othoitz egin aitzin, bazterrerat zeharkatzen zira aringailu bilha eta kontsolamendu andana baten. Bainan diren guziak guti zaizkitzu, ohartu arte nik ditutala altxatzen nere laguntzari daudenak, eta nitaz kanpo ez dela behar bezalako laguntzarik, ez kontseilu onik, ez eta sendagailu iraunkorrik.

2. Orai haatik, ekaitzaren ondotik zure-baitaratua baitzira, indar berriak harzkitzu, nere urrikalmenduaz orhoituz: ezen zuri hurbil nago guzien antolatzeke, ez bakharrik osoki, bainan oraino nasaiki antolatzeke eta gaindika.

Ezin egnik ba othe da deusik neretzat? Ala erraiten eta ez egiten duenaren pare niz ni? Fedea non duzu? Zaude azkar eta tente. Izan zite jasan-kor eta gogor, gizona, bere tenorean jinen zaitzu zoriona. Igurika nezazu, igurika: jinen nitzaitzu eta sendaturen zitut. Debruaren sare bat da zure asal-dadura; zinez ez duzu izitzekorik.

Geroaz duzun griñak zer dakar, atsegaberik eta nahigaberik baizen? Egunean eguneko gaitzbidea bekizu aski. Geroaz histera edo bozte alfer eta debalde da, zuk asmatua ez baita sekula gertaturen orobat.

3. Bainan ametsezko gogoeta hoiek gizona enganatzen dute, jitea halakoa duelakotz; arima oraino ahul delako marka bertzalde, etsaiak gogoratzen dionari hain erreki jarraitzen denean. Huni egia ala gezurra berdintsu zaizko, gizona lillura eta engana dezaken ber; bat bera zaio, oraiko gauzen amodioaz ala geroko gaitzen beldurraz zangopera zitzan, baldin azpiratzen bazitu.

Zure bihotza ez bedi beraz nahas ez beldurretan sar. *Fida zite niri eta berma nere urrikalmenduari.* Nitarik urrun zirela uste duzunean, orduan nuzu ardura hurbilenik. Oro kasik galduak dauzkatzularik, orduan zira maiz merezimendu gehiagoren irabazteko menean.



Ez dira oro gal, ez bazaizkitzu nahi bezala jiten denak. Ez duzu zure oraiko ustearen arahera jujatu behar; ez eta etsitu behar, atsegabea nondik-nahi dathorkizun, atheratzeko esperantzarik gelditzen ez balitzaitzu bezala.

4. Ez uste ukan arras debalde utzia zitutala, noiz edo noiz nahigabe zombait igortzen dautzualakotz, edo nahi zinuken atsegin zerbaitez gabetzen zitutalakotz hola baita zeruko erresumarat heltzen. Zuk eta nere bertze zerbitzariak, oro nahi bezala ukaitea baino, hobe duzue segur atsegabe zombait bidean trebes hatzemaitea.

Gogoeta gordeen berri badakit nik; badakit bihotza agor egoitea on duzula salbatzeko, oro ontsa doazkitzualakotz urgulutan sar ez ziten; ez eta alai zu baitan, ez zirena bazirela ustez. Eman dutana khien dezaket, bai eta berriz eman, nahi dutalarik.

5. Emaiten dutana, bethi nere dago; gibelerat hartzen dutana, ez dut zuretik khentzen: nere eskutik doa ezen ontasun edozoin, edozoin dohain saildu. Zerbait atsegabe edo nahigabe igortzen dautzularik, ez khexa ez etsi, abian ezen arin zitzaket eta zure atsegahea atseginerat dezaket bihur. Bizkitartean, hola ari nitzaitzularilk, zuzenean nago eta eskerrak hartze baino hartzeago ditut.

6. Zuhurra baduzu eta gauzer diren bezala behatzen badiozute, atsegabeak nehoiz ez zitu histu behar etsitzerainokoan; izaitekotz, bozkariatzea dukezu eta niri eskerren bihurtzea. Gehiago dena, zure bozkario bakharra haxe behar litake: *jo zitzatan gupidarik gabe*.

Aitak maite nuen bezala zaituztet nik ere maite, nion nere dizipulu hautetsier, igortzen nituelarik ez munduko atseginerat, bainan ba gudu izigarrienerat; ez ohoretarat, bainan ba laidoetarat; ez lo egiterat, bainan ba lanerat; ez pausarat, bainan ba jasanaren jasanaz arimaren gain gainetik oatzerat. Nere haurra, orhoit nere hitz hoitaz.

31. KAPITULUA

*Lurreko izaite guziak ahanzteko direla,
Jainkoaren aurkitzekotan.*

1. **ARIMAK.** Jauna, grazia handiago baten beharretan niz oraino, deusek ez nehork poxelu egiten ahalko ez dautan heinerat heltzekotz. Zerbaitek, ezen, bere aztaparretan naukano, ez nitake zu ganat aisean hegaldia. Aise horren mina bazuen haxe zionak: *Hegalak nork emanen dauzkit ursoari bezala, eta hegaldaturen niz eta pausa-leku bat aurkituren dut.*

Lur gainean deusik gutiziatzen ez duena baino libroagorik nor da? Lurreko zerez gorago altxatu behar gira eta gure buruari osoki uko behar diogu egin, gure baitatik ilki, gorago igan oraino eta goien goienean ezagutu zu zirela ooren egilea, ez dela deus zu bezanbatekorik.

Gogoia lurreko edozeri loturik daukaguno, ez dezakegu Jainkozko gauzez alha. Hortakotz da bada Jainkoaren begiresle hain guti, bakanak baitira Jurreko gauza iragankorretarik osoki baztertzen direnak.

2. Huntaratzeko, grazia handi bat behar da, arima bera baino gorago altxa dezaken grazia bat. Gizona ez badago gogoia gora eta kreatura guzietarik garbi, bai eta Jainkoari osoki josirik, haren jakitatea eta haren ontasunak arras hazta ttipikoak dira.

Jainkoaz bertze zerbait handizat daukana, erpil dagoke luzaz eta herrestan; Jainkoa da, ezen, xoilki negurririk gabekoa eta bethiereko ontasuna. Jainkoaz bertze guziak deus ez dira, eta ezdeustzat Idukitzekoak.

Jainkoak argitu gizon khartsuaren zuhurtziatik eta jakintsuak libruetarik pirka pirka bildu jakitaterat, ozka bat bada handia. Gizonak berez bere biltzen duen argia baino hanitez gorago da, Jainkoak zerutik igortzen dion argia.

3. Hanitzek Jainkoaren begiresterat heltzeko nahikaria balukete, hortaratzeko bidea ez dutenak ordean hartzen. Zendako guziz ez dira hortarutzen hanitzak? Zure erakaspener ez direlakotz axalez baizik jarraitzen eta beren buruaren nekatzeko lehia guti dutelakotz.

Ez dakit zer giren, zerk gerabiltzan eta zer dugun nahi guk, khartsu omena dugunek, bainan artha eta lan asko derabilagu gauza iragankor eta



ezdeus batzuentzat, eta epherik ere kasik ez aurkitzen arimako zerez bildu-bilduki orhoitzeko.

4. Oi lastima! bilduxe orduko, barreiatzen gira eta nehoiz kasik-ez ditugu gure obrak behar bezain hertsiki haztatzen. Ez gira ohartzen zoin beherakoi den gure bihotzeko ixuria; urrikirik ere ez dugu, giren guzia lohi baizik ez izaiteaz. *Gizon guziek zikindu zutelakotz, beren bidea, zuen Jainkoak igorri delako uhaldea.*

Gure bihotzeko ixuria beraz likitsa denaz geroz, likisten ditu nahi-t'ez gure obrak, eta, hortik barna, agerian ezartzen gure arimako ahulezia. Bizi onaren uzta-bihia bihotz garbian da hazten.

5. Edozoinentzat galde hau aditzen da: zer egin du horrek? Zuzenki egin duenetz haatik, nehork guti behatzen.

Bagaude holakoa bihoz duna denetz, aberatsa, ederra, jakintsua, idazle ala kantari ona, eskuarekoa bere langintzan; bainan nehork guti galdatzen umila denetz, jasankorra, ezta, othoitzegilea, jainkotiarra.

Naturezak gizonaren axalari behatzen, graziak aldiz mamiari eta barneari: ardura enganatzen hura; bertzea Jainkoari bermatzen ez engatzeke.

32. KAPITULUA

Nor-bederak bere buruari uko egiteaz.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zure lokarriak ez ditzazketzu hauts osoki, non ez diozun zure buruari uko egiten. Estekan dira bizi beren burua maite dutenak eta berentzat ari direnak. Beha: goseak dira, begiluzeak; norat haize harat aise dabilta; beren mainak bilhatzen dituzte, ez nere atsegina; amets zoro batzuek derabiltzate har-uzka, ezin eginak nahi baitituzte egin. Jainkoaren ganik ez diren guziak erorkor dira alabainan.

Hitz labor eta mamitsu hoik atxik buruan: utz guziak eta kausituko ditutzu denak; zure nahikerier egin uko eta bakea aurkituren duzu. Hitz hoik alha gogoan; obratuko ditutzularik, orotaz jakintsu izanen zira.

ARIMAK. Jauna, ez da hori egun bateko lana, ez haur josteta bat; aitzitik, hitz labor hoiek saindutasunaren gain gaineko mailerat heltzeko behar den guzia daukate beren baitan.

2. **JESUSEK.** Nere haurra, ez duzu zeren gibelerat egin ez etsi bertu-tearen goienerako bidea zoin den entzutearekin; bainan goien hortarat heltzerat bermatu edo bederen zure ahal guziaz heltzerat lehiatu.

Ah! hortaratua bazina eta zure buruaren ez maitatzerat heldua! Heldua bazina nere eskupeko egoiterat eta eman dautzutan buruzagiaren meneko! Orduan zinitazke nere gizona eta zure egunak oro baloazke bozkarioan eta bakean.

Hanitz gauza badituztu oraino utzi beharrak; nere gatik ez badiozute uko egiten guzier, galdatzen duzuna ez duzu ardietsiko. *Sinets nezazu: aberastekotz, suak garbitu urrea eros ezadazu; hitz garbiz, eros ezadazu mundu guzia oinkatzen duen zerutikako zuhurtzia.*

Hunen biltzeko, lurreko zuhurtziari uko egiozu, bai eta jendeek zutaz diotenari eta zuhauk zeure buruaz daukazunari.

3. Erran dautzut: jendeek balios eta edertzat dauzkatenak utzkitzu, ezdeustzat dauzkatenen erosteko; zerutikako zuhurtzia, ezen, ezdeusa eta txarra zaiote, ahantzirik ere daukate kasik; ez duelakotz hak bere buruaz harrokeriarik eta lur gainean laudoriorik nehon ez bilhatzen.



Hanitzek hura ezpain muturrez goresten dute, baina beren urratsetan hartarik urrun daude; hanitzentzat gorderik dagon perla baliosa delarik bizkitartean.

33. KAPITULUA

*Bihotzaren aldakorrak, eta Jainkoa
behar dugula bethi gure azken xede.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, ez fida zure oraiko kharrari, laster bertze baterat alda ditake. Bizi zireno, aldakor zira nahi-t'ez: batean boz, hertzean hits; orai nahasia, gero bakean; egun khartsu, bihar ephel; batean lantzale, bertzean nag; orai ilhun, gero arrai.

Bainan gizon zuhur eta khartsutasunaren berri dakiena, tente dago aldaira hoi enerdian: zer duen sendi eta haizeak nundik dion jotzen kasurik ez duela egiten, bainan bere gogoa daukala osoki heldu behar den zorionezko mugari. Hala deusek ezin inharrosia da eta den bezala dagoke, hoinbertze gertakarien erdian niri so dagola, xedea laño.

2. Nork bere xedea garbiago eta, ekaitzaren erdian, bide egiteko iraupen gehiago. Bainan xede hori jende hanitzen bihotzean berazten da, kausitu atsegin makur batek ausatzen dituelakotz; bakanak dira, ezen, beren burua batere maite ez dutenak.

Hala nola, delako Juduak Bethanirat jin ziren Martha eta Mariaren ganat, ez *Jesusen gatik xoilki, bainan oraiko Lazaro-en ikusteko*. Xedea garbitu behar da beraz, lañoa eta zuzena izan dadin; eta, ararteko bertze zer guziak gairiditurik, niri buruz itzuli.



34. KAPITULUA

Jainkoa baizik ez ditakela goza, eta gauza guzietan duela gozatzen zinez maite duenak.

1. ARIMAK. Nere Jainkoa eta nere guzia! Gehiagorik eta atsegingariagorik zer dezaket gutizia? O hitz gozo eta ezta, ez mundua eta mundukoak, baina xoilki Jesus maite duenarentzat! Nere Jainkoa eta nere guzia! Hitz hoierraita aski zaio aditzen dituenari eta errepikatzea atsegin zaio maite duenari. Zu hor, oro gozo; zu ez hor, oro kirets.

Zuk duzu bihotza jabaltzen, bai eta bakez eta bozkarioz bethetzen. Zure ariaz ditugu gauza guziak diren bezala ikusten, zure ariaz zitugu behar bezala goستن; deusik ez da zu gabe luzaz atsegin dagikenik; baina zerbaitek, on eta gozo izaiteko, baitezpada zure grazia behar du eta, altxatzeko, zure zuhurtziaren gatza.

2. Berea zituenak, non zer duke gozagarriagorik? Eta berea ez zituenari nondik zer atsegin dathorkioke?

Munduaren araberrako zuhurrak, atseginik ez baita heientzat lizunkerietan baizik, galtzen dira beren zuhurtzia guziarekin: hau ginarri egiazkorik gabekoa baitute eta hilkorra beren arimentzat.

Mundua oinkatuz eta gorputza heziz darraizkitzunak aldiz, egiazki eta zinez dira zuhurrak, gezurretik egiarat, haragitik izpiriturat doatzilakotz goratuz. Holakoer gozoa zaiote Jainkoa, eta lurreko zeretan on zerbaitek kausitzen badute, Jainkoa dute xoilki goستن. Osoki higa dira, ezen, zurekilako gozotasuna eta lurreko gauzetarikakoa, bethiereko bizia eta oraikoa, bethiereko argia eta gure begiek ikusten dutena.

3. O bethiereko argi, zuk egin argi guziez ezin gorago ziren argia, zure inhar bat, ximixtaren garra bezala, jauts dadila ni ganat, sartzen dela nere bihotz-barneko xokorik bizieneraino. Garbi zazu, zabal, argi eta pizkor nere arima bere ahal guziekin, bozkarioz gaidika betherik, zurekin bat egin dezan.

Oren dohatsu eta gutziagarri hura noiz da ethorriren, zure ikusteak bainu zorionez betheko eta osoki baitzitu neretuko guzietan? Hori ez dutano, nere zoriona ezin ditake osoa. Ondikotz oraino nere jaidura tzarrak bizirik daude, ez ditut osoki heziak ez nekatuak; arimari gogorki

jazartzen zaizko oraino, gudu bortitz bat pizturik daukotela, eta bihotza ez daute bakean uzten.

4. *Bainan zu, itsaso izigarriaren nagusia zirena, eta haren uhinen oldarra ezitzen duzuna, xuti zite eta lagunt nezazu. Suntsizkitzu niri aiher dauden etsaiak, zure beso azkarrak porroska bitza; erakutskitzu zure obra miresgarriak, zure indarra gretsia izan dadin; ez dut, ezen, esperantzarik ez ihes-lekurik zu baitan baizik, nere Jainko Jauna.*



35. KAPITULUA

*Nehor ez dela, bizi deno,
tentazionerik gabe izaitez segur.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, mundu huntan nehoiz ez zira maldan; biziak diraukezuno, gudurako zure arima indar beharretan ditake bethi. Etsaiek inguratua zira, eskuin eta ezker zuri aihar daude. Erredola batek bezala pazientziak ez bazitu zaintzen, ez zira zauririk gabe egonen luzaz.

Bertzalde, zure bihotza ez badaukazu ni baitan itzaturik, eta ez badi-tutzu oro lañoki jasan nahi nere gatik, gudu bortitz hoik ez ditutzu jasai-ten ahalko eta dohatsuen korona ez duzu irabaziren. Jasan beraz oro gizonki, eta esku azkar batekin poxelu guziak baztert zutarik. Garaitzaleari, ezen, diot emaiten zoriona, eta nagia atsegabe handitan dut uzten.

2. Bizi huntako bakea bilhatzen baduzu, bethiereko bakerat nola hel-duko zira? Ez uste ukan bakea mundu huntan aurki; atsegabeak ba, sar buruan ausarki dituzketzula hek. Bilha egiazko bakea, ez lurrean, baina zeruan; ez gizonetan, ez eta gauzetan, baina Jainkoa baitan xoilki.

Jainkoa maitez, gogotik behar ditutzu jasan oro: neke, oinhaze, ten-tazione, auhen, herstura, gabezia, eritasun, laido, elhe gaixto, egia samin, ahopaldi tzar, ahalge, erasia, erdeinu. Hoiek zituzte bertuteari buruz lagutzen; hoiek, Jesusen soldado frogatzen; hoiek, zeruko zorionaz jabe-tzen. Neke labor batentzat emanen dut bethiereko saria; ahalge iragankor batentzat negurririk gabeko loria.

3. Zer uste duzu, nere kontsolamenduak zuk nahi bezala ukanen ditutzula bethi? Nere sainduek ere ez dute ez gero holakorik bethi ukan, gudu eta neke hanitz jasan ba. Pazientziarekin diote buru egin, beren indarrer baino gehiago Jainkoari bermatuz: bazakitelakotz *lur huntako nahigabeak ez direla zeruko sariaren bethi*.

Askok nigar hanitzen eta lan handien ondotik ardietsi dutena, zer duzu zuk berehala nahi? *Igurika zazu Jauna, ar gudukan gogotik eta azkar zite*; ez etsi, gibelerat ez egin, baina Jainkoaren ohoretan higazkitzu bethi zure gorputz arimak. Sari bethea emanen dautzut nik eta atheka gaixto guzietan zurekin izanen niz.

36. KAPITULUA

Jendearen jujamendu hutsaler nola iharduk.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zure bihotza emazu gogotik Jainkoaren eskuetan, eta jendearen jujamenduen beldurrik ez ukan, zure kontzien-tziaren arabera garbi zireno eta jainkotiar. Holako zerbaiten jasaitea on duzu eta zorion; bihotz umil, berari baino gehiago Jainkoari fidatzen denari ez zaio gaitz izanen hori.

Jende gehienak hanitz mintzo dira; hainbertze nondik sinets? Bertzalde, denekilakoa nehork ezin egin. Eta Jondoni Paulok, Jainkoa bai-tan guzier atsegín egiterat lehiatu bada eta zen guzia guziekilako bada izan, axola guti zuen bizkitartean jendeen erranez. Bortz egin-ahalak egin ditu bertzeen onetan eta salbamendutako; halere, nahi bazuen edo ez, jen-deek gaizki jujatu dute noizean behinka eta gutietsi. Hortakotz, guzien berri dakien Jainkoaren gain utzi zituen oro, eta bere burua, jasankor eta umil atxikiz, zaindu mihi gaixtoen eztenetik eta beren herraren arabera mintzo ziren jende gezurti eta ezdeusen ausikietarik. Noizetik noizerat ihardetsi diote bizkitartean, beldur baitzen, ixilik egonez, girstino ahulak behaztopa zaizkion.

2. Nor zitut zu, gizon hilkor baten beldur izaiteko? Egun ba, hura, eta biharko orobat hila ditake. Jainkoaren beldur izan zite: eta nehoren beldurrik ez dukezu. Nork zer egin diezazuke, elhez ala laidoz? Zuri baino kalte gehiago egiten dio bere buruari, eta, nor nahi nahi izan dadin, Jainkoaren jujamenduari ez dezake ihes egin.

Begien aitzinean atxikiz Jainkoa, utz zuk eztabadak eta zinkurinak. Eta orai iduri bazaitzu erortzerat zoazila eta merezi ez duzun ahalge bat duzula jasaiten, ez khexa horrengatik eta zure koronari lorerik ez motz, pazientzia eskasez; izaitekotz, beha zerurat niri buruz, nik baitaukat ahal-ge eta laido guzietarik zure jalgitzeko ahala, eta nik baitut saristatzen nor bere obren arabera.



37. KAPITULUA

*Nork bere buruari osoki eta zinez uko egiteaz,
bihotzeko lokarri guzaien haustekotz.*

1. JESUSEK. Nerf haurra, zure buruari uko egiozu, eta kausitaren nuzu. Ez egin sekula hauturik ez berexkuntzarik, ez izan deusen jabe; eta irabazitan izanen zira bethi. Ezen, zuretzat deusik atxiki gabe zure buruari uko egiten diozun ordutik, grazia handiago bat duzu ardietsiren.

2. ARIMAK. Jauna, nere buruari zonbat aldiz behar diot egin uko? Eta zertan?

JESUSEK. Bethi eta edozoin tenorez; gauzarik ttipienetan nola handienetan. Deusik ez dut berexten; zu ganik nahi dutana da, zeure ez ziten gehiago izan den gutienik. Nola zitazke nerea, eta ni zurea, zure nahikundeak ez badituzu kanpo eta barnez uzten? Zonbat lasterrago baituzu egiten hori, hanbatez ere zitazke hobeki; zombatez osoki eta zinez uko egingen ere baitiozu zure buruari, hanbat ere zitut nik gehiago maitaturen eta aberasturen.

3. Badira beren buruari uko egiten dutenak, baina berentzat zerbait atxikiz: ez direlaket Jainkoari bermatzen osoki, beren zurruburuetan derabilate gogo. Bertze batzu, aldiz, osoki niri emaiten dira hastetik; baina gero, tentazionea jitearekin, beren zeretarat itzultzen, eta hortaket bertutean arras guti aitzinatzen.

Holakoek bihotz garbien egiazko libertatea eta nere adiskidetasun gozoaren grazia ez dute ardietsiren: non ez duten beren burua osoki nere gain uzten eta egun oroz nekatzen, hori gabe ez baita eta ez baititake nerekilan gozameneko batasunik.

4. Hamar aldiz erran dautzutana errepikatuko dautzut: zure buruari uko egiozu, eman zakizkit osoki, eta bihotzean bake nasaia dukezu. Emazkidatzu oro, ororen ukaiteko; deusen ondolik ez ibil; ez galda deus: niri baxharririk atxikian egon azkarki, eta, nitaz jabetuko zira. Zure bihotza orduan izanen da libro eta ilhuntzen duten hedoiatarik garbi.

Hauxe ukan zazu nahikari, hauxe bilha eta othoitzean galda ditzun guziez buluzirik Jesus buluziari jarraitzea, zeure buruari hiltzea eta nerezat bethi eta bethi bizitzea. Orduan suntsitaren zaizkitzu gogoeta hutsal guziak, asaladura tzarrak eta behar gabeko griñak. Orduan ere itzaliren behar gabeko beldurrak eta bihotzeko nahikeria makurrak.



38. KAPITULUA

Kanpoko gauzetan nola ibil, eta lanjeretan Jainkoaren ganat nola ihes egin.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, huna zertarat behar ziren azkarki lehiatu: edozoin toki, edozoin obra ala kanpoko urratsetan bihotza libro egoiterat eta zure buruaren jabe; gauza guzien zure azpiko atxikitzerat, eta ez zu heien meneko; zure obren nagusi eta bidatzale egoiterat, eta ez heien zerbitzari eta esku-makil.

Izaitekotz, egiazko Israeldar baten pare, lokarri guziak hautsirik Jainkoaren haurretaratu behar zira, hok bezala libro eta zorionsu hok, lur huntako zerez gorago altxaturik, beren gogoa bethierekoetan finkaturik baitaukate; gauza iragankorrek ezkerreko begiarekin baitiote behatzen eta zerukoer eskuinekoarekin; beren bihotza ez baitute mundu huntako lotzerat uzten; baina, oldez eta moldez, Jainko Nagusi Soberanoak manatu bezala baitira gauza hoitaz baliatzen, Jainkoak bere obretarik bat bakharra ez duelakotz utzi, zoakon mailean ohatu gabe.

2. Bertzalde, gertakari guzietan tente balin bazaude, itxurer so baratu gabe, eta ikusi ala entzun gauzer ez badiozute zure haragizko begiekin behatzen, baina, nahi dena gerta, Mois bezala Jainkoaren etxean sartzen bazira Jainkoari argi galdatzeko, maiz ihardetsiren dautzu Jainkoak, orai-ko bai eta geroko gauzez argitua itzuliren baitzira. Mois alabainan Jainkoaren ganat zoan bere duda-muden eta nekeen argitzeko, eta othoizta zuen lagun bere lanjeretan eta gizonen maltzurkeriaren hausteko.

Hola behar duzu, zuk ere, zure bihotzaren barnean sartu, Jainkoaren laguntza minkiago galdatzeko. Liburu Sainduek diote Gabaondarrek enganatu zituztela Josue eta Israeldarrak, *hok ez zutelakotz aitzin Jainkoari argi galdatu*; ezta zarioten solaser fidegiturik, urrikalmendu zoro batek galdu zituela.

39. KAPITULUA

Gure obrak ez ditugula tarrapataka egin behar.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zure egitekoen artha bego bethi nere gain; oro antolaturen ditut, jin arau, zure onetan. Zaude nik mana, eta onik baidzik ez dukezu hortarik.

2. **ARIMAK.** Nere egiteko guziak zure gain uzten ditut, Jauna, gogotik: nere argiekin, berdin, ez nitake urrun joan. Geroaz griñarik gabe, orai beretik agian jarriko niz zinez zure nahi bethearen meneko!

3. **JESUSEK.** Nere haurra, gutiziatzen duenaren ondotik kalda sobe-rarekin dabil maiz gizona; baina beretu dueneko, gauza hari bertzela dio behatzen, gizonaren gutiziek ez baitiraukete luzaz gauza berari buruz; aitzitik, batetik bertzerat derabilate nahi-t'ez. Ez da gauza ttipia, segur, gauza ttipienetan ere nork bere buruari uko egitea.

4. Nork bere buruari uko egitea, bertutean egiazki aitzinatzea. Bere buruari uko egiten diona, egiazki libro da eta atherbean. Baina ohiko etsaia, ongi guzien etsaia, guri jazarri gabe nehon ez dagoke; gau eta egun bere sare izigarriak hedatzen dauzkigu, bere burua zaintzen ez duena hetan sartu beharrez. *Egon atzarririk eta egin othoizta*, dio Jaunak, *tentaziotan ez erortzekotz.*



40. KAPITULUA

*Gizonak berez-bere onik ez duela deus,
eta deusetaz ez dezakela egin espanturik.*

1. ARIMAK. *Gizona zer da, Jauna, zu orhoit zaizkion? Zer othe gizonaren semea, fin zaizkion ikusterat zu?* Nondik nola merezitu duke bada gizonak zure grazia?

Zertaz duket erranguratzeko, Jauna, debalde uzten banuzu? Edo zuzenez zer duket erraiteko, nik galdatua ez baduzu egiten? Zinez hauxe baizik ez dezaket asma eta erran: deus ez niz, Jauna, deusik ez dezaket, nerez-nere ez dut deus onik; orotan hautemaiten dut ordean nere ahulezia eta orok ilhauntzerat baneramate. Laguntzen ez nuzularik eta barnetik sustatzen, epheltzen niz eta nagitzen osoki.

2. Zu aldiz, Jauna, bethi bera zira; bethi on, zuzen eta saindu badirauzu menderen mendetan, —gauza guziak ontsa, zuzenki eta sainduki egiten ditutzula eta antolatzen. Ni ordean, aitzinatzerat baino gibelatzerat ixurriago, ez nagoke bethi ozka berean, bainan egunean zazpi aldiz aldatzen zait gogoa.

Hobetzen niz bizkitartean, nere laguntzerat aphaltzen zireneko, zeren zuk baxharrik, nehoren laguntzarik gabe, laguntzen ahal bainuzu; bai eta hainbertzetaraino azkartzen ahal non, nere begitarreak ez baitu gehiago bere galduren eta nere bihotza zuri buruz xoilki baita itzuliko, zu baitan pausatuko.

3. Hortakotz, gizonen kontsolamendu guzier banaki uko egiten, bai khartsutasunaren ardiesteko, bai ezinbertzez zure bilhatzeko, —gizonetan nehor ez denaz geroz nere atsegabea arin dezakeenik—, orduan zuzenez zure graziaren aiduru banagoke gostuan, eta zerutikako kontsolamendu berri zombaiten ukaitez botz nintazke.

4. Eskerrak zuri, gauzak ontsa gertatzen zaizkitan aldi oroz. Eskerrak zuri, ongi guzien iturburua. Deus ez niz ni zure aitzinean, deus baino gutiago: gizon aldakor, ahul bat. Zertaz zer espantu dirot egin? Bertzeek gorestea nondik dezaket gutizia? Ezdeus nizalakotz othe? Ezin handiagoko zorokeria, hori.

Harrokeria zinez izigarriko izurria da eta zorotasunik handiena: egiazko loria khentzen baitaiku eta zure graziaz baikitu gabetzen. Bere buruaz alaitzen dena, zuk laster higuin duzu; jendeen laudorioen, ondotik dabilanak, egiazko bertutea du galtzen.

5. Gizonaren egiazko ospea eta bozkario saindua, zu baitan loriatzea, ez bere baitan; zure izenaz bozkariatzea, ez bere bertuteaz; eta lurreko gauza bihi batean atsegirik ez hartzea, zure gatik baizen.

Zure izena bedi goretsia, ez nerea; ez nere obrak, bainan zureak; eta gizonen laudorioetarik neretzat ez bedi bihirik geldi. *Zu zira nere ospea eta nere bihotzaren bozkarioa; zu baitan niz loriatuko eta bozkariatuko, bizi nizano; nik aldiz espanturik ez dut eginen nere ahuleziaz baizik. Gizonek elgarri emaiten duten ospea bezate bilha juduek: nik Jainkoaren ganik heldu dena baizen ez dut bilhatuko.*

Mundu huntako ospea eta handitasun guziak huts eta erho dira bet-hiereko ospearen aldean. O nere Jainkoa, nere Egia eta nere Urrikalmendua! Trinitate Saindua! Zuri xoilki laudorio, ohore, botere eta ospe negurririk gabeko menderen mendetan!



41. KAPITULUA

Mundu huntako ohore guzien oinkatzeaz.

1. JESUSEK. Ez hits othoi, nere haurra, bertzeak ohoratuak eta goretsiak ikustearekin, zu aldiz gutietsia eta aphaldua. Zure bihotza altxa zerurat niri buruz eta gizonen erdeinuek ez zituzte ilhunduko lur gainean.

2. ARIMAK. Hain gira itsuak, Jauna, non ezdeuseria batzuek laster enganatzen baikituzte. Nere buruari ontsa behatzen badiot, kreatura bihi batek ez daut egundaino zuzengabekeriarik egin, eta beraz, ez dut zutaz erranguratzekorik. Baina laidoztatu zitutalakotz maiz eta larriki, zuzenez zaizkit jazartzen kreatura guziak.

Ahalgeak eta erdeinuak hartze ditut beraz egiazki; zuk aldiz laudorioak, ohoreak eta ospea. Eta onhartzen ez badut gogotik jendeek gutiets nezaten, debalde utz eta ezdeustzat har, nere bihotzak ez duke bakerik ez sosegurik; ez zure graziaren argirik, ez eta zurekilako batasun osorik.

42. KAPITULUA

*Nork bere bakea ez duela
gizonen gainean jarri behar.*

1. JESUSEK. Nere haurra, zure bakea norbaiten gainean jartzen baduzu, gogo berekoak zirezelakotz eta harekin bizitzea zaitzulakotz laket, bethi durdurikan izanen zira eta griñan. Baina bethi bizi eta bethi bera dagon Egiaen ganat ihes egiten baduzu, adiskide baten galtzeak edo hiltzeak ez zitu histuko.

Adiskide batentzat duzun atxikimendua ni baitan behar duzu jarri: atxikimendu egiazkorik eta garbirik ez da, non ez den nik koropilatua. Atxikimendu mota guzietan hainbertzetaraino behar diozute egin uko non, zutan denaz bezanbatean, ez baitzinue nehoen adiskide izaiteko gutiziarik ere.

2. Baina berez-bere zerbait onik baduela daukanak, Jainkoaren grazia ez du hak bere baitarat jausterat uzten: Izpiritu Sainduaren graziak bihotz umilak bilhatzen dituelakotz bethi.

Zure buruaren osoki ezeztatzen eta kreaturen alderateko amodio guzietan uko egiten bazinaki, zure bihotzerat jauts nintazke, nere grazia nasaienen ixurtzerat. Kreaturer beha dagonak, Kreatzalea begietarik galtzen. Kreatzalearen gatik, ikas zure buruaren garaitzen orotan: orduan zira Jainkoaren ezagutzerat helduko. Den gauzarik ttipienak, izariz kanpo gutiziatzen duzun ber eta maitatzen, arima zikintzen dautzu eta urruntzen zitu Jainkoa den Ontasun osotik.



43. KAPITULUA

Zoin huts eta ezdeusa den munduko jakikatea.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, ez utz zure burua jendeen solas eder eta legunek xoratzerat: Jainkoaren erresuma ez datza elheetan, bainan ba obretan. Nik erraner zaude erne: bihotza berotzen dute eta adimendua argitzen, bihotzean urrikia pizten eta atsegin guziak emaiten.

Irakurtze bihirik ez egin, jakintsuago edo zuhurrago agertzea gatik. Azturen hezterat lehia zite: asko gauza gaixtoen ikastea baino gehiago baliaturen zaitzu hori.

2. Asko irakurri eta ikasi ondoan, bethi gauza guzien ithurbururat dukezu itzultzea. *Gizoner nik diotet jakitatea emaiten eta haurren adimendua nik dut gehiago argitzen*, gizonak bere erakaspenekin egin dezaken baino. Nori ere mintzo bainiz eta hura laster ditake jakintsu, bai eta bertutean azkarki aitzinatze bidean.

Zorigaitz, asko ergelkeria jakin beharrez gizonen ondotik dabiltzaner eta nere zerbitzatzeko bideez axola guti dutener! Jinen da tenorea, Jesus erakasleen erakaslea eta Aingeruen Nagusia agerturen baita, nork zer ikasi duen entzuteko, erran nahi baitut bat-bederaren bihotzaren ikeretzeko; *orduan argiekin miatuko du Jerusalem eta ilhunbean dauden gauzak argiratuko ditu*, eta guziek beren estakuruak ixilduko dituzte.

3. Umilak nik ditut, ephe laburrik barne, hainbertzetaraino altxatzen non zeruko gauzen berri baitakite, asko bezala hamar urthe liburuetan ari izan balira baino hobeki. Elherik gabe erakasten dut nik eta ezbai-ik gabe, espanturik gabe eta hizkatu gabe. Nik erakasten dut lurreko ontasunen gutiesten, oraiko gauzen hastiatzen, bethierekoen bilhatzen eta goxatzen, ohoreer ihes egiten, laidoen jasaiten; nik erakasten nor-bederari esperantzaren ni baitan jartzen, nitaz landa deusen ez gutiziatzen, eta oroz gainetik minki nere maitatzen.

4. Batzuek, bihotzaren erditik maitatu nutelakotz, dituzte Jainkoarekilako gauzak ikasi, hotaz gero ezin ederkiago mintzo baitziren. Beren buruari uko eginez gehiago ikasi dute, liburu ederrenetan ikasiko zuten baino.

Guzier doazkoten gauzez mintzo nitzaiote batzuer, beren gauza bereziez bertzeer; itxuretan eta alegietan goxoki agertzen nitzaiote zombaiti; bertze batzuer aldiz nere gauza gordeenak argi handitan ditut erakusten.

Liburua berdin mintzo guzier, bainan ez guziak berdin argitzen: bihotzari nik baitiot egia erakasten, bihotza nik ikertzen, gogoetak nik xilatzen, artzeko indarra nik emaiten, eta nere emaitzak baititut egiten nori bere merezimenduen arabera.



44. KAPITULUA

Kanpoko zerek ez gitzutela beretu behar.

1. JESUSEK. Nere haurra, asko gauza jakin gabe behar zira egon eta munduarentzat hila bazina bezala bizi, mundua zuretzat ez balitz bezala. Beharriak hetsirik dituzu entzun behar asko solas, eta bakea dakarketen gauzak gogoan erabili.

Hobe duzu laket ez zaizkitzun gauzatarik begien baztertzea, eta nor bere gogoan dituenekin uztea, harekin kalapitan artzea baino. Jainkoarekin ontsa bat egiten baduzu eta haren jujamenduz orhoitzen bazira, errexki jasanen duzu bertzeen azpiko egoitea.

2. ARIMAK. O Jauna, zertaratuak gira? Galtze iragankor batentzat nigarretan gaude, irabazi xume batentzat lehertzen gira eta lasterka gabil-tza, arimako kalteak aldiz ahantzirik dauzkagu, edo gure baitan ez gira berant eta doi-doia baizik sartzen. Gutirentzat edo deusetako baizik ez dugun zerbaiti begiak xurituak eta baitezpadako ginukeena dugu bazterrerat uzten, gizona kanpoko zeretarat ixuria dagolaketz dena; bai eta, bere baitan ez delakotz berehala sartzen, han delakotz atseginekin gelditzen ithorik.

45. KAPITULUA

Ez direla oro sinestekoak eta elheetan huts-egitea errex dela.

1. ARIMAK. Hel zakizkit, Jauna, nere hersturetan, gizonaren laguntzak ez bainezake athera. Laguntza zombat aldiz ez zait eskastu, ukaitea nondik ere uste bainuen! Eta zombat aldiz ez dut kausitu, non ere gutienik bainuen uste! Ez dugu zeren gizoner fida beraz: jende zuzenen salbamendua zu baitan dago xoilki, Jainkoa. Gertatzen zaizkigun guzietan goretsia izan zitezela, nere Jainko Jauna.

2. Ahulak gu eta aldakorrek, laster enganutzen gira eta aldatzen. Nor non da, gauza guzietan aski atzarri eta begiraturik, noiz edo noiz uste gabean enganatua ez izaiteko edo zer egin bethi ontsa ikusteko?

Zuri bermatzen dena, Jauna, eta bihotza lañorik bilhatzen zituena, ez da hain errexki erortzen. Eta atsegabetarat erortzea gertatzen bazaio, nola-nahi behaztopaturik ere laster duzu altxatuko zuk, bai eta atseginetan ezarriko, bururaino zuri fida dena ez duzulaketz zuk debalde uzten.

Bakan da gertatzen adiskide ona, bere adiskideari herstura guzietan tinki datxikona. Zu, Jauna, zuzira xoilki guzietan guziz leiala, zutaz bertzerik nehor ez.

3. O zoin zen zuhurra, hauxe zion arima saindu hura: *nere bihotza finaturik eta itzaturik daukat Jesus Jaunari*. Ni ere hala banintz, gizonen beldurak ez nindezake hain errexki bere, ez eta heien solas tzarrek hain aise nahas.

Nor non da aski zuhur, aitzinerat guzien ikusteko eta geroko gaitz guzietarik zaintzeko? Aitzinerat ikusi gaitzek hain saminki jotzen-eta, uste-gabekoak zombatez ez dira garratzago? Nizan bezalako dohakabea, nere burua zergatik ez dut hobeki zaindu? Zendako ere niz bertzeer hoin itsutuki fidatu? Bainen gizonak gira, gizon ahul batzu baizik ez, askok aingeruak girela uste ukanik eta erranik ere.

Nori fida, Jauna, nori, zuri ez bada? Zu zira egia: zu ez zira enganutzen eta ez duzu enganutzen ahal. Gizon guziak aldiz gezurtiak, ahulak, aldakorrek eta erorkorrek guziz solasetan; hainbertzetaraino non ez baitzaizkote kasik sinetsi behar berehalakoan, egia diotela iduri dutelarik ere.



4. O zonbat zuhurki erran daukuzun gizoner ez fidatzeko, gizonak etsaitzat dauzkala etxekoak berak, eta nor-nahik erranik ere: *Kristo nerekin da* edo *hor da*, ez dugula sinetsi behar! Hori nere gostuz ikasirik nago: agian ez hain zoro, baina atzarriago izaitekotan.

«Gure artean dagola hemen errana, gure artean», daut othoizka galdutzen norbaitek. Eta ni ixil ixila nagolarik eta hak errana nehork ez dakikela uste dutalarik, horra non bera ez dagoken ixilik, niri ixilik egoiteko galdatu ondoan; horra non abian saltzen nuen, saltzen ere ba bere burua, eta badoan han harat.

Hortakotz, Jauna, ahopetik beharirako segetu airakorretarik begira nezazu; zaint nezazu aho bildu zabal-erretarik; hek bezelako ez nadin bilhaka. Elhekoak eta zinezkoak emaitzu nere ahoan, eta nere mihiak ez dezala jukutiarik erabil. Bertzeetarik onets ez dezaketanetik begiratu behar dut neure burua hertsiki.

5. O zer zoriona eta bakea, bertzeez ez mintzatzea; edozeren nolanahi ez sinestea; entzun gauzen ez errepikatzea; bakhar batzuer baizik bihotzaren ez agertzea; zu bethi gure bihotzaren leuko hartzea; elheek norat haize harat aise ez eremaita; baina gu baitan eta gutarik kanpo diren guziak zure nahi sainduaren arabera gerta ditezten agiantza!

Zeruko graziaren begiratzeko zer bide segura, bertzalde, gizonen edertzat dauzkaten guzier ihes egitea; goستن dituztenen ez gutiziatzea, baina bihotza zuzent eta kharrez bethe dezaketan guzien bilhatzea artha handienarekin!

Zonbat ez dute askok galdu, bertutea jendeek ezagutu diotelakotz eta goretsiki goizegi! Bertze batzuek aldiz zonbat ez irabazi, grazia ixil ixila begiratu dutelakotz, tentazionekilako gudua athertzen ez zaikon bizi huntan!

46. KAPITULUA

*Jainkoari girela bermatu behar,
mihi gaixtoek jorratzen gützelarik.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, tente zaude ni baitan eta berma zite niri. Elheak zer dira, elhe baizik? Airean jotzen dute, baina harria ez hausten. Hobendun bazira, orhoit zure nahikaria zure hutsetarik zuzentzea behar dela izan. Bihotzean deus errangurarik ez baduzu, erabil gogoan mihixix-tak bihotz onez behar ditutzula jasan, Jainkoaren gatik.

Erauntsi handirik oraino ezin jasan-eta, sobera othe zaitzu noiz edo noiz elhe gaixto zombaiten jaisaitea? Holako gauza ttipiek zendako dautzute bihotza jotzen, baizik haragiaren menea zirelakotz oraino eta gizoner behar baino gehiago diozutelakotz behatzen? Jendeek gutiets zitzaten beldur zirelakotz, duzu zure hutsentzat erasiarik ez nahi, eta estakuru bilha zabilta heien estaltzeko.

2. Baina zeure buruari behatuz hobeki, onhartuko duzu mundua zure bihotzean bizi dela oraino, bai eta gizonen errankizunek gogoetatzen zituztela. Alabainan, zure hutsentzat ez duzunaz geroz erasiarik ez larderiarik onhartu nahi, ageri duzu garbiki ez zirela oraino egiazki umil; ez eta munduari ez zirela egiazki hila, ez eta mundua zuretzat.

Nere hitza entzun zazu, eta jendeen hamar mila elheez ez dukezu axolarik. Ditazken elhe tzarrenak zuretzat erranik ere jendeek, zer kalte zinue, lasto-fits baten pare airez aire haizeak ereman ditzan uzten bazinutu? Burutik hilo bat bera khentzen ahal othe dautzute?

3. Bihotza khartsu ez duena eta Jainkoa begien aitzinean ez daukana, erasia txar batek erreki du asaldatzen. Niri bermatzen denak aldiz eta bere hartan egon beharrez ez dabilanak, gizonen beldurrik ez duke. Jue ni niz ezen, nik ditut gauza gordeenak ezagutzen; badakit nik gauza non nola gertatu den, laidoa nork nori duen egin.

Holako elhea nere ganik jin zaitzu, holako gauza nere haiarekin gertatu, hanitzen bihotzean gorderik zauden gogoetak argi betherat ager zitezten. Hobenduna eta hobengabea nik ditut egun batez jujaturen; baina nihauk dakitan jujamendu gorde batez nahi ukan ditut, aitzinetik, bat eta bertzea haztatu.



4. Gizonen lekukotasuna maiz enganakorra, nere jujamendua aldiz egia: bethi bera egonen da eta ez da kordokatuko. Ardura gorderik dago, jende bakhar batzuer diotet xoilki agertzen gertakari bakotxean, baina nehoiz ez du enganutzen, ez enganatze ahal, zuhurtziarik gabekoer ez dela zuzena iduriturik ere. Edozeren jujatzea bego beraz nere gain; ez bedi hortan nehor bere burutarik sar.

Jende zuzena ez da nahasiko, zernahi gerta dakion Jainkoaren nahiz. Ez duke axola handirik, hoben emaiten badiote ere jendeek zuzengabeki. Eta bertze batzu, alde jarririk, heltzen bazaizko xuritzerat, ez da ere horren-gatik zoroki bozkariaturen. Orhoit da hura *nik bakharrik dakitala bihoiz eta gerruntze barneen ikertzen*, eta ez dutala axaleko iduriaren eta itxuren arabera jujatzen. Maiz jendeek laudagarri daukatena, niri osoki gaizki zait.

5. **ARIMAK.** O Jainko Jauna, juje zuzen, azkar eta jasankorra, gizonen ahuleziaren eta tzarkeriaren berri dakizuna, izan zite othoi nere indarra eta nere zurkaitza, ezen nere bihotzaren lekukotasuna ez zait aski. Zuk badakizu nik ez dakitana: erasia guziak beraz umilki behar nituen hartu eta ezti-etzia jasan.

Barka ezadazu othoi, hola egin ez dutan aldi guzientzat, eta pazientziarekin jasaiteko grazia emadazu ausarkiago. Barkamenduaren ardieste-ko hobe segur zure urrikalmendu nasaia, nere kontzientzia uherraren xuritzeko duketan alegiazko zuzentasuna baino. *Bihotzean deus erranguririk ez ukanikan ere, ez dut hori aski bizkitartean zuzen izaiteko:* zure urrikaria khen, gizonetarik nehor ez baita saildu zure aitzinean.

47. KAPITULUA

*Nahigaberik handienak behar direla jasan
bethiereko biziaren irabazteko.*

1. **JESUSEK.** Ez lotsa, nere haurra, neretzat hasiak dituzun lanetan; ez etsi den gutienik, heldu zaizkitzun atsegabeetan; baina, zer-nahi gertaturik ere, nere agintzak azkar bezitza eta altxa. Nehoren beharrik ez dut, negurririk gabe zure saristatzeko.

Mundu huntan ez zira luzaz nekaturen, bihozminek ez zituzte leher-turen bethi. Aphur bat igurika zazu, eta zure gaitzak bururatzen ikusiko dituzu laster. Tenore bat jinen da, zure lanak eta nahasdurak bururatuko baitira. Egunean batean itzaltzen direnak oro, gauza guti dira eta guti dute irauten.

2. Egin, egiteko duzuna; nere mahastian ar lanean leialki: nihau izanen niz zure saria. Idaz, irakur, kanta, ar oiuhu-minka, egon ixilik, egin othoitz, nahigabeak jasan gizonki: bethiereko biziak gudu hoik oro eta handiangoak balio ditu. Bakea jinen zaitzu, Jainkoak dakien egun batez: orduan ez da orai bezala egunik ez gauik izanen, baina bethi argia, bethi iguzkia, bethi bakea eta pausu geldit bat.

Ez duzu erranen orduan: *gorputz hilkor huntaz nor gabetuko nu;* ez eta oiuhu eginen: *oi zer nere zorigaitza, oi nere desterruaren luzea!* Ezen herioa leizerat aurtikiren du Jainkoak, eta zoriona ezin galduzkoa izanen da; orduan ahen bihirik ez, baina bozkario dohatsu bat; orduan gozotasuna eta ospea, biak elgarrekin.

3. O! sailduen koronak ikusten bazinitu zeruan! Munduak lehenago, bizitzeko gai izan ez balira bezala, zangopean zauzkanak, zer ospearen eta bozkarioaren jabe diren orai bazinaki, segur abian lurreraino apha zintazke, eta nahiago zinue guzien azpiko jarri, bati berari manatzea baino. Mundu huntako atseginak ez zinitazke gutizia ere: Jainkoaren gatik zerbaiten jasaiteaz ba, bazinuke atsegin; eta jendeen artean ezdeustzat hartua izaitea irabazietan handiena litzaitzuke.

4. O! egia hoik goxo balitzaizkitzu eta bihotzaren zolaraino sar bazinitza, nondik zinue behin erranguratzeko kopeta? Neke guziak ez othe



dira jasaitekoak, bethiereko biziaren irabazteko? Jainkoaren erresumaren galtzea edo irabaztea ez ahal da?

Altxa beraz begitartea zeruari buruz: han nago ni; nerekin han daude mundu huntan azkarki gudukatu diren saildu guziak. Orai bozkarioetan hek, orai atseginetan, orai beldur guzietarik atherbean, orai pausuan; eta menderen mendetan nerekin egoitekoak nere Aitaren erresuman.

48. KAPITULUA

*Bethiereko zorion betheaz
eta bizi huntako hersturez.*

1. ARIMAK. O zeruko egoitza guziz dohatsua! O bethiereko egunaren distiranta, gauak nehoiz ilhuntzen ez duena! Egun bethi bozkariozkoa, bethi segura, eta nehoiz bertzelaka ez ditakeena! O egun hura jina balitz, lur huntako zer guziak suntsituak balira!

Jadanik badute sailduak argia darion bethiereko egun hura: bainan lur gainean dabilzanek ez dute ikusten oraino, urrunerat eta itzal hanitzen artetik baizen.

2. Zeruko egoiliarrek egun hari zer bozkario datxikon badakite: oraino lur gainean diren Ebaren semeak, aldiz, hasperenka daude, hemengo egunak zoin kiretsak eta okaztagarriak diren ikusiz.

Lur huntako egunak laburrak eta tzarrak, auhenez eta hersturaz betheak: hemen bekatuek zikintzen dute gizona, aztura hanitzek beren saretan sartzen, asko beldurrek dardarikatzen, asko griñek tirabiratzen, asko ergelkeriek barreiatzen, asko ezdeuskeriek berduratzen, hanitz gezurrek inguratzen, ehun lanek lehertzen, mila tentazionek ethentzen, gurikeriak zaingabetzen, beharrak mingaizten.

3. Oi gaitz hoik noiz dira itzaliko? Noiz suntsituko, koropilatua naukaten jaidura tzarrak? Zutaz bakharrik noiz othe niz orhoituren, Jauna? Zu baitan noiz bozkariaturen osoki? Deusek ez nehork poxelurik egin gabe, noiz othe niz biziko egiazki libro, arimako ala gorputzeko gaitz guzietarik atherbean? Noiz duket bake azkarra, bake iraunkor eta segura, barneko eta kanpoko bakea, deusek ez nehork nahas ez dezaken bakea?

O Jesus ona, zure ikusterat noiz othe niz helduko; zure erresumaren ospea noiz dut begiretsiko; noiz izanen zaizkit guzietan guzia? O noiz aurkituren niz zure erresuman, *bethieretik zure hautetsientzat daukazun erresuman?* Etsaien artean nago gaixoa bakharrik, nere herritik urrun, egun oroz gudukan eta ezeria gorrienean.

4. Nere zorigaitza arin zazu eta nere auhena ezti, nere gutizia guziak, ezen, zuri buruz doatzi, dei errepiketan. Munduak eskaintzen dauzkitan



laguntza guziak nekagarri zaizkit. Nere bihotz guziaz zutaz gozatu nahi nuke, baina hortarat ezin helduz nabil. Zeruko gauzer nahi nintazke josi, baina ontasun iragankorrek eta nere jaidura tzar, heziak ez ditutanez leherturik naukate. Gauza guziez gorago altxatu nahi nuke gogoia, baina gorputzak heien menerat aphaltzen nu nahi-t'ez. Hola, nizan bezalako dohakabea, nihaurekin borroka ari niz; nere burua zama bat zait, arimak goiti eta gorputzak beheiti aherka deramatena, zoinek bere eskualde.

5. Oi zer nere bihotzeko auhena, gogoia zeruko gauzetan izankita, gogoeta tzarrak nere othoitzaeren nahasterat metaka heldu zaizkitalarik!

Nere Jainkoa, ez urrunt othoi nitarik eta zure hasarrean ez baztert zure zerbitzariaren ganik. Aurtik othoi zure ortzia, eta barrea gogoeta hoik; bota gain-beheiti zure guziak, eta suntsituko dira etsaiaren maltzurkeriak. Bil zazu zure ganat nere izaite guzia; egizu munduko zer guziak ahantz ditzatan, nitarik urrunt ditzatan eta ostika nere jaidura tzarretarikako ametsak.

Hel zakizkit, o bethiereko Egia, eta ezdeuseria bihi batek ez biezat bar bihotza. Zato, zeruko egoiliarren Gozoa, zure aitzinean ihes joan bedite lizunkeria guziak. Barka ezadazu niri ere, barka othoi, othoitzean zutaz bertze zerbait gogoan derabilatan aldi oroz.

Zinez aihortzen dut, gogoia maiz bertze nonbait dutala. Xutik ala jarririk, ez niz ardura gorputza dutan tokian. Nere gogoak norat ere bainerama eta han aiz maizenik. Nere gogoia non, ni han; ardura nere gogoia maite ditutan zeretan. Jitez maite dutana edo laket ohi zaitana, hura lasterka heldu zait bururat.

6. Hortakotz diozu garbiki: *Non zure ona, han zure bihotza.* Zerua badut maite, zeruko gauzez niz gogotik orhoitzen. Mundua badut maite, munduko onek nute bozkariatzen eta hango gaitzek ilhuntsen. Gorputza badut maite, gorputzari doazkon zerak zaizkit maiz gogoratzen. Arima badut maite, arimari doazkonak ditut gogoan erabiltzen. Alabainan zer ere baitut maite, eta hartaz mintzatzea dut gogotik entzuten haren itxura dakarrat nerekin etxerat.

Dohatsu, zure gatik kreatura guziak urruntzerat uzten dituen; bere jite tzarra hezten duena nahit'ez; bihotza khartsu daukalarik, haragiaren gutziak zaphatzen dituen; hola haren bihotzak, bakeaz jabeturik, othoitze garbiak eskaintzen baitauzkitzu, eta, kanpoz ala barnez lurtiar guzier uko eginik, on baita zeruko aingeruen lerroetan sartzeko.

49. KAPITULUA

Bethiereko biziaren goseaz, eta gudulari bihozduer hitzeman ontasunez.

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zeru gainetik bethiereko zorionaren gosea emana zaitzularik, bai eta gorputzeko bahitegitik atheratzekoa, nere argi itzalik ez hitsaldirik gabekoaren begiresteko, —zabal zazu zure bihotza eta zerutikako asmu saindu hori onhar amodiorekin. Jainko guziz onari bihur esker minenak, hain samurki arthatzen zituelakotz, hain amultsuki ikuskatzen eta, zuhauren haztak lureko gauzetarat lerraraz ez zitza, hain azkarki altxatzen.

Gutizia hoik, ezen, ez dute zure gogoan edo zure ekintzetan beren ithurburua, baizik zeruko grazian. Jainkoari daizkotzu zor, zure ganat aphaldu nahi ukan baitu bere behakoa, bertutean eta umiltasunean geroago gehiago aitzina ziten, jinen zaizkitzun guduer buruz azkar dezazun zure bihotza eta, zure indar guziez niri loturik khartsuki, nere zerbitzazterat gogotik lehia ziten.

2. Zonbat-nahi bizia izan dadin sua, kherik gabe bizkitartean ez da altxatzen kharra. Halaber, zeruaren gutziak erreka daude batzu, gorputzeko irrisk eta tentazionetarik ez direnak oraino osoki garbi. Hortarik da ez baitabilta Jainkoaren gatik bakharririk, *arren* eta *arren* galdeka ari zaizkolarik.

Holakoak ere dira maiz zure gutziak, zinezkoak eta kharrez betheak dauzkatzularik zuhauk. Nork bere goxoki-nahitik sortzen dituen gutziak ez dira garbiak, ez onak osoki.

3. Galda, ez laket zaitzuna edo on duzuna, baina niri on eta ohoragarri zaitana; ezen, zuhurra baduzu, zure gutziak eta munduko gauza guziak baino nahiago behar duzu ukan nik manatua dautzutana eta huni behar zaizko jarraiki.

Badakit zure nahikariak zer diren; entzuten ditut zure auhenak. Nahi zintazke jadanik Jainkoaren haurren artean izan, libro eta lorios; atseginarekin ez zagozke bethiereko egoitzaz eta bozkariozko zeruaz orhoituz; baina hartarako tenorea ez duzu oraino jina: gerlanean zira oraino, lanartearen, nahigabe jasaiteko urthetan. Ontasun soberanoaz nahi zintazke



ase, bainan ez ditakeena da oraĵ. Ni niz ontasun hura: *zagozkit aiduru, Jainkoaren erresumako aldia jin arte*.

4. Lur gainean asko nahigabe jasan behar ditutzu oraino, eta hanitz atsegabetarik barna duzu iragaiteko. Zoriona badukezu noizetik noizerat, bainan ez zorian nasai, osoa. Azkar eta tente zaude beraz, zure naturalezari ez doazkonak bai egiten bai jasaiten ditutzula ontsa. *Gizon berria jauntzi behar duzu eta bertze gizon bat bilhakatu*. Nahi ez duzuna, maiz egin behar; eta nahi duzuna, utzi.

Bertzeak beren urratsetan ontsa heltzen ikusiko ditutzu: zuk, zure bidean, harri mokorrak ditutzu joko milaka. Bertzeak entzunik izanen dira: zuri itzuliko zaizkitzu aditzaleak bizkarrez. Bertzeek galdatzea askiko dute ukaiteko; zuk, aldiz, galdatuko eta ez ardietsiko. Jendeen aho-mihitan handiak izanen dira bertzeak: zu nehork ez zitu aiphatuko ere. Hau edo hura emanen diote bertzeer egiterat: zu, deusetako on ez bazina bezala, zituzte bazterrerat utziko. Hortarik bihotza ilhunduren zaitzu artetan; zerbaiz izanen zira, bazagozke halere ixilik.

5. Nahigabe hoiien eta holako hanitzen bidez, ohi da ezagutzen nor den Jainkoaren zerbitzari; hoitarik da ageri nork nola dion bere buruari uko egiten eta nola duen hau garaitzen, edozoin aldartetan.

Deusek ez dautzu, nere ustez, zure buruari hil behar zirela erakusten, nola gutienik nahi ditutzun gauzen begiz ikusteak eta jasaiteak, bereziki laket eta deusetako on ez zaizkitzun gauza batzuen egiterat manatua zirelarik. Buruzagi baten azpiko zirenean, nagusi hari jazartzeko kopetarik ez duzulakotz, garratz zaitzu haren eskumakil bizitzea eta zuhauren nahikundeer uko egitea.

6. Bainan, nere haurra, lan hoiien ondorioak erabilzkitzu gogoan; orhoit bururaturen direla laster eta zer sari handia darraikoten: hola ez ditutzu dorpeak kausituren, bainan zure pazientzia ezin gehiago azkarturen da.

Zure nahikeri txarrer oraĵ beretik eta gogotik uko egiten badiozute, zeruan nahi duzuna egiten duzu bethi. Han nahi ditutzun guziak eta gutizia ditzazketzunak oro kausituko ditutzu; han ontasun guziez jabetzen ahalko zira, galtzeko beldurrik gabe. Han zure nahiak nerearekin bat egiten du: nitaz landa ez duzu ontasun bihirik nahiko. Han nehor ez zaitzu jazarriren, nehork ez dautzu kalapitarik emanen, nehor ez dukezu poxe-lu, nehor aiher: bainan gutiziatu guziak han badituzketzu batean, zure

bihotza osoki asetzen dutela eta gaindika bethetzen. Hartu laidoentzat han emanen dautzut ospea, jasan auhenentzat ohorea; han, lur gaineko azken mailaren orde, bethiereko errege-alki bat. Obedientziaren ondorioak han dira ageriko; han da bozkariaturen bere burua nekatu duena; umilki bertzeen azpiko egon dena, Jainkoak han du saristatuko ederki.

7. Oraĵ beraz umilki apha zite bertzeen eskupean, nork zer dautzun erran ala manatu kasurik egin gabe. Galdatu ala manatu guziak artha handienarekin onharzkitzu eta gogotik egin, galdatzalea edo manatzalea izan dadin zure buruzagi, zu baino gazteago ala zure kideko. Batek hau deza-la bilha, bertzeak hura; bat aho betheka espantuz ar dadiela huntaz, bertzea hartaz; hamar mila jendeen laudorioak ditzatela bil; begozi: zu, ordean, ez bozkaria ez huntan ez hartan, baizik zure buruaren gutiestean, nere ospean eta nere nahi sainduan. Hauxe bakharrrik duzu gutiziatu behar zuk: *bai bizitzeaz bai heriotzeaz Jainkoa izan dadin bethi gretsia zu baitan*.



50. KAPITULUA

*Auhenetan dagonak, bere burua
nola behar duen Jainkoaren eskuetan ezarri.*

1. **ARIMAK.** Jainko Jauna, Aita guziz saildua, izan zitela goresia ora; eta bethi, oro egin izan direlakotz zuk nahi bezala, eta zuk egin guziak ontsa baitira. Zu baitan bedi bozkaria zure zerbitzaria, ez bere baitan, ez eta bertze bihi baten baitan: zu zira xoilki bozkario egiazkoa, zu nere esperantza eta nere loriazko saria, zu nere zoriona eta nere ohorea, Jauna.

Zeren jabe da zure zerbitzaria? Xoilki zuk eman diozunaren jabe, deusen gai ez zelarik bizkitartean. Oro zureak dira, oro zuk emanak, oro zuk eginak. *Beharrea nago ni eta lanetan haurzarotik;* batzutan hits dago nere arima nigarretaraino, batzutan ere nahaspilatzea da, jaidura tzarrek hertsaturik.

2. Bakeari darraikon bozkarioa dut gutiziatzen; zure haurrek duten bakea dut eskatzen, zure zorionaren argiarekin hazten dituzun zure haurren bakea. Bake hori emaiten badautazu eta zorion saildu hori bihotzerat ixurtzen, bozkarioz betheko da zure zerbitzariaren arima eta zure goersten ariko khartsuki.

Bainan, ardura egiten duzun bezala, itzaltzen bazaizko, ibiliko da las-terka zure manamenduen bidean; belaunikatzea ez zaio gelditzen orduan eta bere bulharren jotzea, ez diolakotz aitzineko egunetan bezala burua- ren gainerat distiraten zure argiak, eta zure hegalpeak ez baitio tentazio- netarik begiratzeko emaiten atherbe.

3. O Aita zuzen eta bethi goresgarria, zure zerbitzariaren frogatzeko tenorea jina da. Aita guziz maitagarria, zuzen da zure zerbitzariak zerbañt jasan dezan orai zuretzat. Aita bethierekotz adoragarria, jitekoa zela zuk bethidanik zinakien tenore hura jina da: zure zerbitzaria ephe labur baten- tzat eroriko bezala da orai, bainan bihotzez bethi zu baitan bizitzeko, Jendeek behin guti edo aski erdeinaturen dute, aphalduren, erhautsiren; jasanaren jasanaz ehoa izanen da, ezin xutitzeko heinean mamitua: bainan egun berri baten argi-urratzearekin batean zurekin pizteko eta zorionez- ko ibaian sartzeko, zeruetan. Aita guziz saildua, zuk hola nahi ukan duzu, hala duzu manatu, eta zuk manatua bethi izan da.

4. Hau da zure adiskidearentzat daukazun grazia: nahi duzu atsegabeak jasan ditzan mundu huntan zu maitez, zuk nahi duzun negurrian eta iduri zaitzun edozoinen bidez. Deus ez da gertatzen lur gainean itsurat, gibelon- do zerbañt zuk emana ez zaionik, zure zuhurtziak manatu ez duenik.

Zuk aphaltzea on nuen, Jauna, zure legeen ikasteko, nere bihotzetik harro- keria eta urgulu guzien khentzeko. *Ahalgeak begitarte estal zezatan on nuen,* nere atseginarene zu baitan bilhatzeko, ez gizonetan. Ikasi ere dut zure jujamendu gordeetat beldurtzen, bai eta jende zuzena kaskatzen duzula nola bihurria, zoin bere negurrian haatik eta sekula zuzenik gabe.

5. Eskerrak zuri, nik egin gaizkientzat zure besoak ez nuelakotz gupidetsi; aitzitik, ukaldi garratzenez porroskatu nuzulakotz, kanpoz ala barnez min eta hersturak igorriz.

Iguzkipean ez da deus ez nehor, bihotza altxa dezaketanik, zu bai- zen, nere Jainko Jauna, arimen arthatzalea. *Zuk duzu zauritzen eta sendatzen, zuk ifernurat eremaiten eta handik gibelerat bidatzen, Zure erakaspenez naukate sailean; zure zigorrak argituko nu berak.*

6. Huna non nizan zure eskuetan, Aita maitea; zure zaharoaren ukal- dier nago. Jo nere bizkarra eta nere lepo-hezurra, zure nahi sailduaren araberalat xuxent ditezen nere nahikunde makurrak.

Hain ontsa dakizun bezala, haur khartsu eta umil bat egizu nitarik, zure nahi sailduaren bethetzerat dagokeena bethi, lehen keinurat. Nizan guzia, ditutan guziak zure eskuetan emaiten ditut, zuk zuzentzeko: zigo- rraz hemen joa izaitea hobe dut, bertze munduan baino.

Guzien berri badakizu xeheki eta gizonaren bihotzak deus gorderik ez du zuretzat. Geroaren berri badakizu, gertatu aitzinetik eta nehoren beharrik ez duzu nork zer egiten duen jakiteko. Zuk badakizu bertutean aitzinatzeo zer dutan on: nahigabea zoin on dutan nere hutsetarikako herdoilaren garbitzeko. Egizu nitaz zure olderat; debalde ez utz nere arima bere bekatuen gatik, nehork baino hobeki ezagutzen daizkotzun bekatuen gatik.

7. Egizu, Jauna, jakin behar dutana jakin dezatan, maite behar duta- na maita, gehienik laket zaitzuna goretz, on zaitzuna kausi dezatan on, gaizki zaitzuna dezatan gaitzets. Ez nezazula utz *nere gorputzeko begiek iku- siaren arabera jujatzerat,* ez eta entzuten ditutan elhe arinen arabera mintza- tzerat, bainan egizu gorputzeko zerak eta arimakoak elgarretarik zuzenki



zeihar ditzatan nere iduripenean, eta guziz lehia nadin zure nahia nolako den ezagutzerat.

8. Gizona maiz enganatzen, bere naturalezaren arabera jujatuz; ba mundutiarra, begiz ikusten dituenak baizik ez maitatuz.

Gizon batek gehiago balin dukea, den baino handiago egiten duela-kotz norbaitek? Gezurti batek gezurti bat du enganatzen, ezdeus batek ezdeus bat, itsu batek itsu bat, eri batek eri bat, gizon batek bertzea aho-betheka handiesten duenean; eta finkarik gabeko laudorioek ahalgetzen baizik ez dute, egiazki, emanak zaizkona. Ezen, san Frantses umilak ziona, nor zonbat ere baitaukazu zuk, Jauna, eta izaitez da hura hanbat, den gutienik ez gehiago.

51. KAPITULUA

*Obra handientzat on ez dena,
tipietan egon behar dela.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, bertuteari buruz ez dezakezu bethi berotasun bera atxik; ez zagozke ere bethi khartsutasunaren ozka berean: noizean behin, sortzez eta izaitez makurra zirelakotz, nahit'ez zira jautsiren beherago, eta zure bizi galkorraren hazta ezinbertzez eta hasperenka duzu jasan beharko. Gorputz hilkor hori deramazuno, unhadura eta bihozmin asko badukezu. Gorputz hori baduzuno, gorputz horren haztak maiz auhenkaraziko zitu, bihotza hertsatzen dautzula, ez baitzitu arimako zere-tan geldi-geldia utziko, ez eta Jainkoaren behin bethikotz begjresterat.

2. Orduan dukezu on, orduan, kanpo lanpide xumeetarat ihes egitea; obra on zonbaitetan zure gogoaren jostatzea; fidantza handienarekin nere ikustaldiaren aiduru egoitea; jabaltzerat itzuli ez nitzaitzuno, zure biho-tzeko agorraren eta arrotzaren pazientziarekin jasaitea. Itzuliko nitzaitzu bada segur. Nekeak ahantz-araziko dauzkitzut. Gozaraziren zitut biho-tzeko bakeaz. Zabalduren dauzkitzut Liburu Sainduetako alhor bihitsuak: bihotza zorionak hanturik nere manamenduen bideari abia ziten lasterka. Eta erranen duzu: *Bizi huntako minak ez dira, egun batez agertuko zaitan ospea-ren bethi.*



52. KAPITULUA

*Gizonak ez duela uste ukan behar
atseginak dituela hartze,
bainan ba zigorradak.*

1. ARIMAK. Zure kontsolamenduen ez niz gai, Jauna, eta nere bihozterat jauts ziten ez dut merezi. Zuzenki ari zaizkit beraz, gabezia eta auhenetan uzten nuzularik. Itsasoaren bethe nigar egiten ahal banu ere, ez nintazke oraino zuk kontsolatzeko gai. Zigorra eta zaharoa baizik ez ditut hartze, ardura eta handizki laidoztatu zitutalakotz eta mila gisetarat dutalakotz bekatu egin.

Oro ontsa haztatu ondoan, aithor dut ez nizala atsegin ttipienaren gai. Bainan zuk, Jainko samur eta urrikaltsua, zuhauk eginak suntsi ditzeten nahi ez duzuna, —*zure oneziaren aberaslasuna urrikalmendu-ibaietan ixurtzea gatik*, zor ez zaion negurrian zure zerbitzariari bihotza altxatzen diozu, Jainko bati doakon aran. Zure kontsolamenduak, alabainan, gizonen arteko solas hutsaletarik bertzelakoak dira.

2. Zer egin dut, Jauna, zuk niri zerutikako kontsolamendu ttipienaren emaiteko? Nere orhoitean, deus onik ez dut egin; gaizkirat aldiz ixuria nintzan bethi eta biziaren zuzentzerat nagi. Horra egia, nik ezin ukatua. Bertzerik banerasa, niri bihur zinitazke eta ez nuke nehor aldekorik.

Nere bekatuentzat zer dut hartze, baizik ifernua eta bethiereko sua? Zinez aithortzen dut laido eta trufa guziak merezi ditutala eta zure zerbitzari khartsuen lerroetan sartzeko ez dutala nik. Eta, nahiz bihozmin dutan huntaz, egiaren alde jarriko dut lekuko nere burua bera: hobendun nizala aithortzen dut, zure urrikalmenduaren errexxiako ardiestekotan.

3. Nizan bezala hobendun eta ahalgeak urtua, zer erran dezaket? Hitz hau baizik ez dut utziko erortzerat: Bekatu egin dut, Jauna, bekatu egin, urrikal zakizkit, barka ezadazu othoi. *Nere atsegabea nigar xorta zombaiten ixurtzerat utz nezazu, leku ilhun eta herioak goibeldurik daukan hartarat joan baino lehen.*

Hobendunari, bekatore dohakabeari zer diozu galdatzen, bere bekatuen urriki minarekin apha dadin baizik? Egiazko urrikitik eta bihotzeko umiltasunetik sortzen da barkamenduaren esperantza; hek dute jabaltzen

bihotz iraulia; hek gibelerat itzultzen galdu grazia; eror ditaken Jainkoaren hasarrea hek baztertzen, eta besarka saildu batean hek batzen arima urrikitua Jainkoarekin.

4. Bekatorearen urriki umila laket zaitzu, Jauna, isentsuaren usaina baino biziki laketago. Hura da zure oin sailduen gainerat ixurtzea nahi zinuena gantzugailua, *ezen bihotz urrikitu eta umila ez duzu behinere arbuaitu.* Urrikian da etsai errabiatuaren kontrako ihes-lekua; urrikiak du onerutzen eta garbitzen bide bazterretan ohitu eta zikindu den bihotza.



53. KAPITULUA

*Lurreko zerer atxikiak daudenen baitan
ez duela graziak uztarik emaiten.*

1. **JESUSEK.** Nere haur handizki baliosa da nere grazia; atze dituen zerekin eta lurreko gozakariek ez dezake nahas-mahasik onets. Graziak poxelu dituen guziak behar ditutzu beraz baztertu, bihotzeratu nahi baduzu. Urrunt zite guzietarik, bakhar bakharri egoitea maita zazu, solas alferretarik egizu ihes, othoitz zazu geroago gehiago Jainkoa eta khartsukiago, urrikitan eta garbi idukitzea gatik bihotza. Munduari begiak hets, den guzia ez balitz bezala, eta Jainkoari lot lurreko gauzer baino hertsikiago.

Ez dezakezu gogoa ni baitan finka eta, orozbat, gauza iragankorretan atsegin har. Ezagunetarik eta adiskideetarik urrunduz behar zira eta lurreko gozakari gutietarik kanpo egon. Gristinoer hau zioten galdatzen Jondoni Petrik: *Arrotz eta bidekari batzu bezala ibil zitezen mundu huntan.*

2. O zer fidantza duken hiltzerat doanak, atxikimendu bihi batek ez badauka munduari josirik! Bainan eri den arima ez dagoke guzietarik hola bazter; eta lurreko gauzer josirik dagon gizonak ez daki, zonbat bere buruaz jabeago den bere baitan bizi den gizona.

Egiazki khartsu nahi bazira, bai hurbilekoer bai urrunekoer behar diozute egin uko eta zeure buruari nehoi baino gutiago fidatu. Zeure buruaren osoki garaitzerat heltzen bazira, etsai guziak errexki azpiratuak dituzketzu. Garai-ik handiena, nork bere buruaren garaitzea. Bere burua hezten duena, alabainan, gorputza arimaren sehi eta arima nere zerbitzari ezartzeko gisan, hura da, hura, bere buruaren jabe eta mundu guziaren nagusi.

3. Goien hortarat heldu nahi bazira, gizonki behar duzu, hasian hasi, haizkorarekin erroari lotu, zure buruaren eta lurreko ontasunen alderat duzun amodio gorde eta makurraren mozteko.

Bere buruaren sobera maitatzetik dathorzki gizonari, ondoan garaitzeko eta errotik khentzeko dituen aztura guziak. Bere alderako amodio itsutik athera bezain sarri, bake eta jabaldura handia duke bihotzean.

Bainan beren buruari hiltzerat gutiak direlakotz ari eta beren hartarik ilkitzerat gutiak lehiatzen, hartakotz daude, bethi berdin, jaidura tzarren esku-makil, eta gogoa ezin dakiokete beren buruaz gorago altxa. Bere buruaren jabe nerekin ibili nahi duenak, bere bihotzaren lerrabideak gogorki behar ditu zaindu eta kreatura bakhar bati ere atxikimendu berez ez lotu.



54. KAPITULUA

*Graziaren urratsak naturalezaren
urratsetarik bertzelakoak direla.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, beha ontsa graziaren eta naturalezaren urratser: nahiz biziki aiher diren elgarri; non zoin diren nekez da ikustea; jende khartsu eta argituenek berek batzu bertzeelarik doi-doi dituzte berexten.

Orok ongia nahi segur, eta, beren elhe eta obretan, guti edo aski bilhatzen; hortakotz ditu bada ongiaren itxurak enganatzen gizon hanitz.

2. Naturaleza maltzurra da, jende hanitz bereganatzen du, saretan sartzen eta enganatzen, ba eta da bethi beretzat ari; grazia, aldiz, lañoki dabil, gaizkiaren itzalari berari ihes egiten du, arte bihirik ez hedatzen, oro Jainkoarentzat ditu egiten garbiki eta Jainkoa baitan da pausatzen bere azken mugan bezala.

3. Naturaleza heriotzeari bihurri; hertsaturik izaitea ez du onesten, gaitzi zaio azpira dezaten edo eskupeko ezar; bere oldez eskuperatzeak latz egiten dio. Graziak aldiz zeure buruaren nekatzerat zeramatza, zure jaidura tzarrer ihardukitzerat, bertzeer mendutzerat. Harekin zure libertateaz ez duzu axolarik; garaitua izaitea, bertzeen azpiko bizitzea berdin zaitzu; zure buruaren jabe ez eta nehoren nagusi izaitea ez duzu nahi, baina ba Jainkoaren eskuko bizitzea, egoitea eta izaitea bethi eta Jainkoaren gatik *edo zoinen eskupean umilhi aphaltzea.*

4. Naturaleza beretzat ari da lanean, nork zer on ekarriko dion begiak landatuak dago. Graziak aldiz ez du behatzen nondik zer on duken nor-berak beretzat, baina ba zer onik duketen ere bertze zonbaitek.

Naturalezak ohore eta jauspen gogotik du hartzen; graziak aldiz ohore eta ospe guziak Jainkoari ditu leialki bihurtzen: Naturaleza laidoen eta ahalgeen beldur da; grazia aldiz, Jesusen izenean, laidoen jasaiteaz botz. Naturalezak alferkeria eta pausa maite ditu; graziari aldiz lana besta bat baitzaio, lanean gogotik da ari.

5. Naturaleza gauza pollit eta ederren ondotik dabil, txar eta itsusiak bere ganik urrunduz. Graziari aldiz gauza bakun eta aphalak laket zaizko; den kazkarrenak ez du lotsatzen, piltzardunak berak ez izitzen.

Naturaleza lurreko ontasun gose, heien ukaiteak du bozkariatzen, galtzeak ilhutzen, elhe gaixto ttipienak khexatzen. Grazia aldiz, bethiereko ontasuner beha dagola, lurrekoer ez da lotzen, hauien galtzeak ez du histen, elhe makurrenek ez hasarretzen: bere ontasunak eta zoriona zeruan ezarririk dauzkalakotz, deusik galtzen ez den zeruan.

6. Naturaleza zikoitza da. Emaiten baino gogotikago du hartzen. Berea du xoilki maite. Graziak aldiz berea gogotik emaiten orori, beretzat baxharrik deusik ez nahi, beretzat aski guti. Badu uste *emaiteari atsegin gehiago darraikola hartzeari baino.*

Naturalezak lurreko zeretarat, atsegin tzarretarat, esdeuskerietarat eta solas alferretarat du bere ixurkia. Graziak aldiz Jainkoaren ganat eta bertute biltzerat altxatzen gizona. Ordutik hunek lurreko ontasuner uko eta munduari ihes baitu egiten, gorputzaren nahikeriak zaphatzen ditu, barrea-bideak bakantzen, jendeetarat agertzeak berak ahalgetzen.

Naturalezak bere atsegina gorputzari doazkon gauzetan gogotik du hartzen; graziak aldiz bere zoriona Jainkoa baitan baizik ez du bilhatzen eta, lurreko zer guztiak oinkaturik, bere atsegina Ontasun soberanoa baitan jartzen.

7. Naturaleza bethi beretzat eta bere onetan ari da. Urririkakorik ez du deus egin nahi. Bertzeentzat ari da, uste duelarik hok ordaina edo zer-bait gehixago emanen diotela dela fagore, dela laudorio. Egiten duen izpia, emaiten duen poxia zer-nahi bazaizko, zer-nahi badirela nahi luke erakuts balezote lagunek.

Grazia aldiz ez dabil urtheek deramatzatzen ongien ondotik: Jainkoaz bertze saririk ez zaio sori. Bizitzeko baitezpada behar dituen berer ez da atxikia, bethiereko biziaren irabazteko on dituen negurrian baizik.

8. Naturaleza adiskide eta ahaide hanitz ukaiteak alaitzen du; sortzez handietarik balin bada edo nolazpeit handien lerrorat heldua, dagon mailaz da hanpatzen. Handien alderat dena agur, aberatsetarat dena elhe zuri, bere kidekoen goresle bethi.

Graziak aldiz bere etsaiak ere maite ditu; grazia adiskideen ketaz ez da urgulutan sartzen. Grazian denari ez zaio deus aitoren- seme edo familia zaharretarik izaitea, non ez zituen bere arbasoak bertutez bertzeer



nagusi. Gabezia denari aberatsari baino begitarte hobe ohi du egiten; hobenik-gabearen aldea gogotikago hartzen, azkarraren aldea baino. Egia maite duen gizona du laguntzat nahi, Gezurtiaren ganik baztertzen da. Jende onen sustatzetik ez da baratzen, onak hobetzerat lehia ditezen oraino, beren bertuteaz Jainko-Semearekin eite hartzeko xedetan.

9. Naturaleza eskas ala poxelu duenaz laster erranguratzen da; graziak aldiz gabezia pazientziarekin du jasaiten. Naturalezak beraren ontsatzerat bidatzen ditu oro; bere intresentzat gudukatzen kalapitan. Graziak aldiz guziak Jainko ithurburuaren ganat ditu itzultzen; ongia bere ganik eta berez-bere dukelakorik ez du. Eztabada ez zaio laket; bere iduripenean ez da thematzen, hobeia iduriturik. Bere asmu eta gogo guziak onhartzeko uzten ditu bethidanikako Zuhurtziari; jujatzeko, Jainkoari.

10. Naturaleza berri eta segetu gose da; bere buruaren erakusterat irrikatua da, nola gauza guzien ikusterat, ikuskatzerat bere begiz; ezagutua izan dadin, laudatua, miretsia, horra zer tirriak derabilan.

Grazia aldiz ez da berriketari, ez begi-luze: badaki aztura hoik harjoaren ustel usain bat badutela, —berririk deus, deus iraunkorrik ez denaz geroz lur gainean.

11. Graziak erakasten dauku beraz gorputzeko nahikerien negurritzen, geure baitan ez alaitzen, gure buruaren behar gabe ez agertzen, gorderik egoiten, laudatuak eta miretsiak izaitea merezi dugularik. Nahi du, jakitate ala bertze edozeretan, arimarentzat on dukeguna baizik ez dezagun bilha, hau orozbat Jainkoarentzat ohore delarik eta ospe.

Bere alde diren edo egiten dituen ongientzat ez dabil laudorio-keta; du bakharrik nahi Jainkoa izan dadin goretzia, bere amodio garbian igortzen dituen emaitzetan.

12. Grazia hori naturalez goragoko argi bat da, Jainkoaren emaitza berezi bat, hautetsien zigiloa edo marka eta salbamenduaren finka: gizona lurreko gauzetarik zeruko maitatzerat derama lehen gorputzeko atseginetarat zagona arimako zeretarat sustatuz.

Herstuago beraz eta heziago naturaleza, eta graziaren ihintza egunetik egunerat nasaikiago heltzen xoko guzietarat, gizona baitan alki berri egiten duela Jainkoarentzat.

55. KAPITULUA

Gure jitearen tzarraz eta graziaren ondorio onez.

1. ARIMAK. Nere Jainko Jauna, zure eite eta idurirat egin nuzuna, emadazu, othoi, nere salbamenduko hain baitezpadakoa erakutsi dautazun grazia handi hori, nere jite tzar, bekaturat eta galbidetarat herrestan neramana hez dezatan. *Nere gorputzean sendi dut alabainan bekatuaren legea, arimaren legeari aiber dagona* eta nere gutizia tzarren bethetzerat neramana, nahi badut ala ez. Nere jaidura tzarrer ez dezaket iharduk, zure grazia saildua bihotzerat bero beroa ixuriz laguntzen ez banuzu.

2. Zure graziaren beharretan niz eta behar handitan, nere jite, haurzarotik gaizkirat ixuria dagonaren garaitzeko. Adam lehen gizonaren bekatuak kotsatu du gure jitea. Haren hutsaren ondorio gaixtoa jautsi da gizon guzien gainerat. Oro lehertuak gauzka. On eta zuzen egin zinuen naturalezak, arbasoaren bekatutik ahulezia dakar eta makurkeria. Bere gain utziz, ez doake makur baizik, lurreko gauzetarat eroriz buruz beheara. Gelditu zaion ahal izpiak iduri du hauspean gorde pindarñoa.

Ahal ttipi hori sortzetik dugun adimendua da, hedoi lodi batzuek alde orotarik inguratua. Badaki oraino ongiaren berexten gaizkitik, gezurretik ere ba egiaren, bainan ontsa zaionaren obratzeko ez du ordean ahalik: egiaren argi bethea ez baitauka arren bere baitan eta bihotzeko kharra ez baitu osoki garbia.

3. Hortako dut bada, Jauna, gizon khartsu bezala zure legean atsegin hartzen; hortako niz ohartzen zure manamenduak onak direla, zuzenak eta sailduak, gaizkia gaitzesten dutelakotz eta gutarik bakotxa bekatutik zehartzan. Bainan nere larruaren barnean, bekatuaren legeak bere lokarriez tinkatua nauka adimenduari baino jarraikiago niz gorputzeko nahikerier.

Hortako dut ni bailan ongiaren gutizia, bainan ezin egin era ba. Hortako ditut xede onak hartzen ardura; bainan nere ahulezia zurkaizten duen grazia eskasten zaitanean, den trabarik ttipienari amor emaiten diot eta erortzen niz. Saindutasunerako bidea itsu-mandoka hatzemaiten dut,



garbiki ikusten orduan zer dutan egiteko; bainan, nere ustelduraren haztak lehertua, ez nitake deusetan ont osoki.

4. Oi Jauna, zure graziaren zer behar handitan nizan, ontzen haste-ko, onbideari jarraikitzeke, onbidearen bururaino heltzeke! Hura gabe, ezen, deusik ez dezaket; zu baitan ordean urrats on guzien egiteko ahala badut, zure grazia lagun.

O zinez zerutikako grazia, nehork merezimendurik ez baitu hura gabe; hura gabe sortzez ditugun dohainak ez dira deus. Jakitate, aberastasan, edertasun, indar, antze, aho eder, hoik oro, Jauna, graziarik gabe deus ez dira zure begietako. Naturalezako dohainak erkide dira alabainan onentzat nola gaixtoentzat; bainan grazia ala karitaterako lehia hautetsiek dute baxharrik ukaiten dohainez; hartarik dira ezagun bethiereko biziaz gai direnak.

Grazia hain da gauza handia non, hura gabe, geroaren asmatzeko ahala, mirakulu egitekoa, Jainkoaren begirestekoa bera deus ez baitira. Zer diot? Ez fedea ere, ez esperantza, ez bertze bertuteak ez zaizkitzu laket, grazia eta karitaterik gabe.

5. O grazia guziz dohatsua, adimendu laburreko gizona bertutez aberasten duzuna eta ontasan handienen jabea umiltzen, zato, jauts zite ni ganat; zure kontsolamenduez bethene nezazu goizean jeiki orduko, agortasanak sobera akiturik etsi ez dezan nere bihotzak.

Othoi, othoi, Jauna, urrikal zakizkit: zure grazia aski dut alabainan, jitez nahi dutana ez ardiexirk ere. Guduek eta hersturek leherturik ere, gaitz bihi baten beldurrik ez duket, zure grazia nerekin dutano. Hura da nere indarra; hura, nere argia eta laguntza. Etsai guzier nagusi da indarrez; jende zuhur guzier, zuhurrez. Hak du erakasten egia, bizia hak oneratzen, argitzen bihotza eta hersturetan jabaltzen; hak ditu ilhundurak arintzen. beldurra khentzen, othoitzerako kharrari hazkurri emaiten; hak jauz-arazten urrikiaren nigarrak.

Hura gabe zer niz ni, doi-doi suko on den egur eihar bat baizik? Aitzin-biderat jinik, zure graziak bethi lagunt nezala beraz, Jauna; hertsatuki neramala obra onetarat: deiadar egiten dautzut, Jesu-Kristo zure Semearen bitartez. Hala biz.

56. KAPITULUA

*Gure buruari behar diogula uko egin,
eta kurutzarekin Jesusi jarraiki.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zeure buruari zombat ere baitiozu eginen uko, hanbatez zira ni baitan sarturen. Hala nola bihotzean bakea baitauka kanpotik deus gutiziatzen ez duenak, halaber, bere buruari uko eginez da nor-bedera batzen Jainkoarekin. Nakaizdurarik eta errangurarik gabe nere nahi sainduaren egiterainokoa, zeure buruaren erdeinatzen nahi dautzut erakatsi.

Jarrai niri: *ni niz bidea, egia eta bizia.* Biderik gabe ezin aitzina; egiarik gabe ezin ezagut; bizigailurik gabe ezin bizi. Ni niz hartu behar duzun bidea; ni, sinetsi behar duzun egia; ni, iguriki behar duzun bizia. Ni niz bide zuzena; ni, lehen eta azken egia; ni, egiazko bizia, bizi dohatsua, bere baitarikako bizia. *Nere bidean balin bazaude, egia ezaguturen duzu; eta egjak zure buruaren jabe ezarriko zitu, eta bethiereko bizia duzu ardietsiko.*

2. *Nerekin bizitzerat heldu nahi bazira, jarrai nere manamenduer.* Egia nahi baduzu ezagutu, sinets ni baitan. Osoki saindutu nahi bazira, sal oro. *Nere ondotik jin gogo bazira, egin uko zure buruari.* Bizi dohatsuz nahi bazira jabetu, erdeina oraiko bizia. Zerurat altxatu nahi bazira, umilia mundu huntan. Erreginatu nahi baduzu nerekin, ereman nere kurutzea. Kurutzareen zerbitzariak dute baxharrik zorionaren eta egiazko argiaren bidea kausitzen.

3. **ARIMAK.** O Jesu Jauna, munduak erdeinatzen duen bizi hertsia ereman duzunaz geroz, emadazu, othoi, mundua oinkatuz zuri jarraikitzeke grazia. *Sehia, ezen, ez da bere nagusia baino gehiago, ez eta haurra bere erakalea baino gorago.*

Zu bezala bizitzerat ar bedi zure zerbitzaria, hartarik baitu bere salbamendua eta egiazko saindutasuna. Zure biziaz kanpo irakurtzen edo entzuten ditutan guziak ez dautet atsegin ez zorion osorik emaiten.

4. **JESUSEK.** Nere haurra, gauza hoik oro badazkitzunaz geroz, dohatsu zu, egiten baditutzu. *Nere manamenduak ezagutzen dituenak eta begiratzen, hak nu maita. Eta nik ere maitatuko dut hura, nere burua hari agertuko diot eta nerekin dut jar-araziko nere Aitarean erresuman.*



5. **ARIMAK.** Jesus Jauna, zure erranaren, zuk hitzemanaren arabera egina izan bedi: zuri esker, negurririk gabeko zorion hartaz izan nadila gai. Zure eskuetarik hartzen dut, ba hartzen, kurutzea; eremanen dut, ba eremanen zuk nahi ukan duzun bezala, hil artio.

Zinez, jainkotiarraren bizia kurutze bat da, bainan zeruko osperat deramana. Abiatu niz; gibel egiterat ez niz haizu; gelditzerik ez dut.

6. Ea, aneia maiteak, goazen elgarrekin: gurekila izanen da Jesus. Jesusen gatik dugu hartu kurutzea, Jesusen gatik dezagun ereman bururaino. Jesus izanen da gure laguntzalea, gure aitzindari eta biderakusle den bezala. Horra gure Erregea aitzinean doakigula; gure alde joko du haren besoak. Garraizkiola gizonki; nehor ez bedi izi; *gauden gogo bethez galtzeari gidu hortan*; bainan ohorea ez dezagun beltza, Kurutzeari ihes eginez.

57. KAPITULUA

*Nehork ez duela behar etsitu,
huts zombaiten gatik.*

1. **JESUSEK.** Nere haurra, zorion aldartetan botz eta khartsu baino, nahiago zitut nahigabetan jasankor eta umil ikusi. Zendako ilhun, jendeek gain emaiten dautzuten huts ttipi baten gatik? Handiagoa izan balitz ere, ez zinuken gogoetazterik. Utz elheak erortzerat. Egina zaitzun zimikoa ez da lehena, badakizu holako baten berri; ez da ere izanen azkena, luzaz bizi bazira.

Baduzu bihotzik aski, deus khexabiderik gertatzen ez zaitzunean. Kontseilu onen ere emaiten badakizu eta elhe onez bertzeen pizkortzen; bainan, bat-batean nahigabeak jo orduko, horra non ziren zuhau argi eta indarrrik gabe. Beha zombatetaraino ziren beratza, gauzarik ttipienetan hoin ardura ikusten duzun bezala, eta bizkitartean Jainkoaren oldez da hori, nahi baitu salba ziten.

2. Khen ahal bezanbatean bihotzetik pilpirak; atsegabeak hunkitzen badu, gaina har bezo berehala, lotsa nagusitzerat utzi gabe. Jasan bederen pazientziarekin, ez badezakezu arraiki jasan. Zerbait entzunik bihozmin baduzu eta sumintzen bazitu, zaude ezteki; zure ahotik atheratzerat ez utz deus, jende ahulak ahalge ditazkeenik. Zure zainak laster jabalduko dira eta itzultzearekin graziak gozatuko dautzu bihotzeko kiretsa.

Bizi niz bethi, dio Jaunak, zure laguntzeari nagola eta sekula baino gehiago zure kontsolatzeari, baldin niri fidatzen bazira eta dei egiten badautazu khartsuki.

3. Izan bihoz dunago eta gehiagoren jasaiterat zaude. Ez dira oro gal, atsegabeak eta gudu bortitzak maiz gainerat dituzulakotz. Gizon zira, ez Jainko; gorputz zira, ez aingeru.

Bertutearen ozka berean nondik zindagozke alderat, aingeruek zeruan eta lehen gizonak lurrean ez dutenaz geroz iraun ahal ukan? Auhenetan daudenak nik arintzen ditut eta salbatzen; eta beren ahuleziaren berri dakitenak, nere Jainkotasunerat nik altxatzen.



4. ARIMAK. Jauna, goretsia izan bedi zure hitza, *nere ahoarentzat erlearen eztiá baino eztiagoa den zure hitza*. Hoinbertze atsegabeen eta hersturen erdian zer egin dezaket nik, zure elhe onek altxatzen ez banute?

Azkenean zerurutzen baniz, zer zaiket jasaitea, jasanik ere hoinbertze? Emadazu heriotze on bat; mundu huntarik bertzeratze dohatsu bat duketala zu ganik. Orhoituz nitaz, nere Jainko Jauna, bide xuxenaz neza-zula ereman zure erresumarat. Halabiz.

58. KAPITULUA

Gure ikusmenetik gorago ez dugula zeren beha; Jainkoak beretzat dauzkan jujamenduetan ez dugula sartzerik.

1. JESUSEK. Begirautzu, nere haurra, zure adimenduaz goragoko zeretan eztabadan artzetik eta Jainkoaren jujamendu gordeen kitzikatetik; zendako den bat debalde utzia eta bertzea graziaz gaindika bethea; zendako den hau auhenez ithoa eta bertze hura ohorez estalia. Gizonen argi guziez gorago daude gauza hoik; gizonaren adimendu eta jakitate guziak ez du Jainkoaren jujamenduen xilatzeko ahalik.

Beraz etsaiak holako tirriak igortzen dauzkitzularik edo oraino lagun begi-luze batzu gauza hoik jakin beharrez dabiltzalarik, ihardets zuk profetarekin: Zuzena zira, Jauna, eta zuzenak dira zure jujamenduak. Edo oraino: Egiak dira Jainkoaren jujamenduak eta berenaz zuzenak. Gizonak nere jujamenduen beldurti behar du, ez zilatzale, haren adimenduaz gorago direlaketz.

2. Sainduen merezimenduak ere ez hazta; heien gainetik ez kalapita, zoin den sainduago edo zeruan handiago. Hortarik dira sortzen ardura eztabada alferrak eta aharrak; burgoikeria eta urgulua du hazten, bekaizgoa pizten eta herra, hau ari dela saindu baten goresten, hura bertze saindu batez espantuka.

Holako zeretan sartzeak ez dakar gibelondorik deus; dena, sainduer gaitzi zaiote; Jainkoa, ezen, ez da lipiztari, bainan baketiar, eta bakea egiazko umiltasunari datxiko, ez urgulari.

3. Batzuek saindu bat maiteago dute bertze bat baino; bainan hortan beren bihotzak derabiltza, Jainkoak baino gehiago. Saindu guziak nik ditut eginak, nik graziaz duntuak, nik saristatuak zeruan.

Heien artean nork zer merezimendu duen badakit nik; ukan dituzten grazia guziz gozoak nik emanak naizkoten aitzinerat; mendeak mende ziren baino lehen, nere hautetsiak ezagutzen nituen. Nik ditut mundutik bereziak, ez nute hek hautatu lehenik; nere graziaz deitu ditut eta nere urrikalmenduan nereganatu. Gudu mota askoren artetik nik ditut athera,



atsegin espantagarrienak heien bihotzerat nik ixuri, iraupena nik diotet eman, heien pazientzia nik saristatu.

4. Azkena ezagutzen dut nola lehena, eta direnak oro negurririk gabeko amodio batez ditut besarkatzen. Nere saindu guzietan ni nuzu behar goretsi, oroz lehen ni benedikatu eta ohoratu, nik ditut guziak hoin gora altxatu bethiereko ospean, aitzinetik gai ez zirelarik hautetsi baini-tuen.

Saindu ttipienetarik bat gutiesten duenak, handiena ez du gorensten, handia, ezen, eta ttipia nik eginak ditut. Saindu bat aphaltzen duenak, zeruan diren bertze saindu guziak eta nihau gitu aphaltzen.

Saindu guziak amodiozko lokarri batek elgarri josirik dauzka: denek gogo bera dute, nahi bera, eta orok elgar maite dute maitetasun beraz.

5. Bainan oraino gehiago dena, beren burua eta merezimenduak baino maiteago nute ni. Beren buruaz gorago nik altxaturik, berentzat zuten amodioa suntsiturik, nere amodioan osoki barna daude, eta ni baitan pausatutik gozagarritzko bake batean. Deusek ez ditu handik bazter-tzen ahal, ez histen ahal; bethiereko Egjak bethetzen dituela, amodio ezin hil batek sutan dauzka.

Gizon lurtiarrak ez ditezela beraz sainduak zer eta nola diren ondoti-til ibil, beren atsegin makurren berri baizik ez dakitenaz geroz. Sainduen ospea ttipitzen dute edo handitzen beren ixuriaren arabera, eta ez bethie-reko Egjiaren araberan.

6. Asko ez-jakinean mintzo dira: heien artean guziz, Jainkozko argiak hunkitzen ez dituenak, bakan baitute hok norbait maite buruzko amodio garbi, oso batez. Bihotzeko ixuri batek, gizonaren gizonerako amodio batek deramatza holako edo halako sainduaren alde; uste baitute zeruko bizia lurreko biziaren idurikoa dela. Bainan lurtiarrek uste dutena bertze-rik da, bertzerik, Jainkoak argitu gizonen ikusten dutenetik.

7. Beraz, nere haurra, zure jakitateaz gorago diren gauza hoitan ez zirika zure adimendua; izaitekotz, artha handienarekin lehia zite egun batez Jainkoaren erresuman leku baten hatzemaiterat, azkena bada ere izanen.

Zeruan nor den sainduena eta handiena norbaitek balaki ere, zenda-ko luke ezagutza hori, umil ez badago nere aitzinean eta nere Izen sain-dua gorensten ez badu are gehiago? Bere bekatuen izigarriaz, bere bertu-

teen ttipiaz orhoit dena, ikusiz sainduen saindutasunetik zonbat dabilan urrun, Jainkoak hura maiteago du, zeruan zoin den saindu handiena edo ttipiena ari dena baino.

Khartsuki sainduen othoiztea eta, umil bihotza, heien arartekotasu-naren eskatzea hobe da biziki, zer eta nola diren behar gabe bilhatzea baino. Sainduak botz dira, osoki botz beren dohatsuan, bertzerik zer dukezu jakin beharrik hetaz? Nola diren badakizunaz geroz, zendako era-bil zure mihia solas alferretan?

8. Beren merezimenduez ez dute espanturik sainduak; beren baitarik deus onik ez dutela aithortzen dute eta duten ongi guzia niri bihurtzen, ezen nik emanak daizkotet oro, nere negurririk gabeko amodioan. Hain nute maite eta zorionez hain dira betheak non, heien ospeak deusik ez baitu eskas eta heien zorionak ez baituke eskasik deus.

Saindu guziak zonbat ere baitira zeruan gorago, hanbatez dira beren baitan umilago, hanbatez ere nitarik hurbilago, eta nik hanbatez ditut mai-teago hek. Hortakotz da errana: *beren koronak Jainkoaren oinetarat aurtikirik, ahospez erori zirela Bildotsaren aitzinean eta menderen mendetan bizi dena adoratu zutela.*

9. Hanitzak badaude nor othe den zeruetan handiena, ez dakitelarik ttipien artean sartzeko gai ditazkenetz berak. Zeruan oro handi dira, tti-pienak ere, *oro Jainkoaren haur deituak izanen baitira eta deitu bezala izanen. Ttipiena gızadi handi baten buruzagia bezala izanen da, bekatoreak bizitze luze baten ondarrerat ez duelarik aurkituko heriotzea baizik.*

Nere dizipuluak elgarri baitzauden nor othe den zeruetan handiena, nik hauxe nioten ihardetsi: *ez bazirezte itzultzen gaizkitik ongrat eta haur tti-pien idurikotzen, zeruko erresuman ez zirezte sartuko. Nork ere baitu bere burua aphalduren haurño hunen heinerat, hura da handiena izanen zeruko erresuman.*

10. Zorigaitz, beren burua haurñoek bezala aphaldu gogo ez dutener: zeruko athea hain da aphala non, ez baitira sartu ahalko. Zorigaitz ere, beren atseginak lur gainean hartzen dituzten aberatser, gabezia daude-nak sartzearekin zeruan, kanpoan baitagozke hek orrobiaka.

Eta zuek, jende xumeak, alegera zitezte eta bozkaria: zuendako baila Jainkoaren erresuma, baldin egari doakon bidez bazabiltzate.



59. KAPITULUA

*Nork bere esperantza eta fidantza
xoilki Jainkoa baitan behar dituela jarri.*

1. ARIMAK. Jauna, bizi nizano, zeri edo nori berma? Zerupearan ageri diren guzietan nor da nere atsegin handiena? Ez othe zu, nere Jainko Jauna, negurririk gabe urrikaltsu zirena? Non izan niz ontsa zu gabe? Non gaizki zurekin? Gabezian nahiago dut zu gatik, aberats baino zu gabe. Lur gainean ibilkari nahiago dut zurekin, zu gabe zeruaz gozatzale baino. Zu non, zerua han; zu non ez, heriotzea han eta ifernua.

Zu zira nere gutizia guzia, zure ondotik behar niz beraz hasperenka, auhenka eta othoizka ibili, Zuri baizik ez nitake osoki fida, laguntza zu baitan baizik ez dezaket igurika behar-orduetan, nere Jainkoa. Zu zira nere esperantza, zu nere fidantza, zu bethi nere kontsolatzale jarraikiena.

2. Oro beren onaren ondotik dabilta: zuk nere aitzinamendua eta nere salbatzea duzu xoilki bilhatzen eta oro nere ontzekotan ditzazu antolatzen. Guduen eta nahigabeen erdian uzten nuzularik ere, nere geiagotzea gatik zira ari: ara hortaz frogatzen ohi baitituztu maite ditzuzunak. Eta ez zitut gutiago maitatu behar, ez gutiago laudatu nere gorabeheretan, kontsolamendu handienez bethetzen banintuztu baino.

3. Zu baitan beraz, Jainko Jauna, dut finkatzen nere esperantza guzia eta nere ihes-lekua, zure eskuetan ezartzen nere nahigabe eta herstura guziak: zutaz bertze guziak aldakor baitzaizkit eta ahul.

Adiskide hanitz ukanikan ere, lagun azkarrenek lagundurik ere, jende zuhurrenek behar bezala argiturik ere, jakintsu handienen liburuek bihotza goraturik ere, nere buruaz jabetzeko ontasun handienak bildurik ere, leku gordeenean eta laketgarrienean gorderik ere, zertan nitazke, zuk ez banuzu laguntzen, gerizatzen, azkartzen, goratzen, argitzen eta begiratzen?

4. Bakea eta zoriona iduriz dakarten gauzak deus ez dira zu gabe; egiazko zorion mikorik ez dute emaiten. Zu zira beraz guzien burua, biziaren ithurburua, jakitate guzien erroa; eta oroztik gainetik zuri bermatzea eta zure zerbitzariaren atseginik altxagarriena.

Nere begiak zuri buruz dauzkat; zure eskuetan jartzen niz, nere Jainkoa, urrikalmenduen ithurria. Zerutik benedika eta saindu zazu nere arima, zure egoitza sainduaren han egiteko, zure bethiereko ospearen han finkatzeko, eta zure Jainkotasunari aiher ditakeenik ez dadin ere han aurki deus.

Guziz ona eta urrikaltsua zirenaz geroz, beha ezadazu othoi; ilhumbetan eta herioarekin borroka zutarik urrun dabilan zerbitzariaren othoizta entzun zazu. Bizi huntako galbideen erdian geriza zazu eta begira zure zerbitzari xumearen arima; zure graziak lagunt beza eta ereman, bakezko bidean gandi, bethiereko Argiaren egoitzarat. Halabiz.



LAUGARREN LIBURUA

SAKRAMENDU SAINDUAZ

Mahain saildurako Jesusen dei khartsua.

JESUSEK. Zatozte ni ganat, lanaz akituak eta nekeetan zirezten guziak, eta nik arinduko zituztet. Nik emanen dautzuetan ogia, nere haragia da, munduari bizia emanen diona. Har zazue eta jan: hau da nere Gorputza, zuentzat emaiten dutana; egizue hau nere orhoitzapenetan. Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, ni baitan dago eta ni haren baitan. Nik zuer erran hitzek egiazko argia eta bizia dauzkate.

LEHEN KAPITULUA

*Zonbat jauspenekin dugun behar
Jesus bihotzeratu.*

1. ARIMAK. Zure hitzak dira hoik, o Jesus, bethiereko Egia, nahiz ez dituzun oro egun berean erranak, nahiz ez ditugun oro leku berean irakurtzen. Zureak direnaz geroz eta egiak, eskerrekin eta fedeeekin ditut behar hartu. Zureak dira, zuk erranak direnaz geroz; nereak ere dira, nere salbatzeko erranak dituzulakotz.

Zure ahotik zorionekin hartzen ditut, nere bihotzean barnago sartzeko. Sustatzen nute hitz ezti, gozo eta amultsu hoiek; bainan nere bekatuek lotsaturik naukate eta nere bihotzeko lohiak sakramendu guziz saildu hortarik urruntzen nu. Zure hitz amultsuek biltzen nute zu ganat, nere bekatuen haztak aldiz tokiari lotzen.

2. Manatzen dautazu, zeruan zurekin nahi baniz, fidantzarekin mahain saildurat nadin hurbil eta, bethiereko biziaz eta ospeaz nahi baniz jabetu, zerutikako Ogitik jan dezatan. *Zatozte ni ganat*, diozu, *lanaz akituak eta nekeetan zirezten guziak, eta nik arinduko zituztet*. O hitz ezti, maitagarria bekatorearen beharientzat! Zuk, nere Jainko Jauna, gizon ezdeus eta herbaila zure Gorputz Sailduaren jaterat deitzen duzu! Bainan ni nor niz, Jauna, zu ganat hurbiltzerat ausartatzeko? Zuk, zeruetako eremuen eremuak bethetzen dituzunak: *Zatozte ni ganat!* diozu.

3. Zeren gatik zure jauspen urrikaltsu hori, zeren gatik holako dei amultsua? Nondik ausarta ni zu ganat, nihauren baitan fidantza zerbait eman dezaketan onik deus ikusten ez dutana? Nola zuri idek nere etxeok athea, zure begitarte guziz amultsua hainbertze aldiz laidoztatu ondoan?

Aingeruek ikharetan zituzte adoratzen, sailduak zure aitzinean beldurrarekin josiak daude, eta: *Zatozte guziak ni ganat*, zuk diozu! Zuharen ganik ez balitz dei hori, Jauna, egia dela nork sinets? Eta hurbil gaizkitzuzun zuhauk ez bazinauku manatzen, gutarik nor mentura?

4. Noe gizon sailduak, bertze zonbaitekin bere buruaren salbatzekotan, arkharen egiten ehun urthe zituen eman: eta nik nere burua non-



dik dezaket aphain oren bat barne, zeru-lurren egilearen bihotzeratzeko doakon jauspenarekin?

Mois zure zerbitzari handi eta adiskide bereziak, ezin ustelduzko zurez moldatu zuen arkha bat, urre garbienaz aphaintzen zuelarik, legearen bi harri-lauzen ezartzeko barnean: eta nik, nizan bezalako har-joak, nondik duket lege-egilearen eta bizi-emailearen hain errexki nere baitarat hartzeko kopeta?

Salomon Israelgo errege zuhurrenak zazpi urthe eman zituen tenplo espantagarri baten eraikitzen zure Izen Sainduaren ohoretan; bururatu ondoan eskaini zautzun, eskerrak zaizkitzula bihurtzen zortzi egunez; eta, turrutek bazter guziak inharrosten zituztela, oihuka ari zelarik jendea bozkarioz, ospe handitan pausatu zuen batasunezko arkha aitzinetik berezia zaion tokian. Eta nik, gizonetarik herbailenak eta ezdeusenak, oren erdi bat doi-doi ez baineramake khartsuki, —ha! oren erdi bat baino gutiago higatu banu behin behar bezala!— nola zitzaizket sar-araz nere etxean?

5. O nere Jainkoa, zer kharrarekin lehiatu diren gizon saildu hoik guziak zuri atsegin egiterat! Eta nik ondikotz zoin guti dutan egiten! Zoin den laburra, komuniatu aitzin, nere bihotzaren aphaintzen deramatan ephea! Bakan niz nere baitarat osoki biltzen, bakanago nere gogoia batei barreiatu gabe egoiten.

Bizkitartean zure aitzinean, nere Jainkoa, behar ez bezalako gogoeta bihirik ez lakiket jin behar, ez eta lurreko deusek ez nehork gogoia hartu: bihotzeratu behar dutana, ez aingeru bat, bainan aingeruen Nagusia bera denaz geroz.

6. Batasunezko arkha, barnean zauzkan gauzeekin, eta zure Gorputz guziz garbia, bere ezin erranezko bertuteekin, ez dira bat bertzearen bethe, hurbilik ere; ez elgarren bethe halaber Juduek legearen arabera egiten zituzten sakrifizioak eta zure Gorputzeko sakrifizioa, hek itxurazkoak baitziren eta heien eskasa hunek baitu orai osoki estaltzen.

7. Zendako beraz ez dut su gehiago zure aitzinean? Zure Gorputz Sainduaren jateko zergatik ez dut bihotza khar gehiagorekin aphaintzen, ohiko Patriarka eta Profeta saildu hek, bai eta errege eta aitzindariak beren azpiko zituzten jende guziekin, hainbertze artha ukan dutenaz geroz zorzaizkitzun ohoreen bihurtzeko?

8. David errege guziz khartsua bere indar guziez jauzika arizan zen batasunezko arkharen aitzinean, Jainkoak haren arbasoer egin ongien orhoitzapenetan; asko musika-tresna mota ere egin-arazi zuen; psalmo batsu moldatu, gero jendeak bozkariotan kantatzen zituenak; berak halaber, Izpiritu Sainduaren graziak gogoia beroturik, xirribinka joz errepikatzen zituen; erakatsi zuen Israelgo jende guzietara nola beren bihotz guziaz Jainkoa goretz; erakatsi oraino, elgarrekin Jainkoaren ohoratzen eta handien egun oroz.

Batasunezko arkhak holako kharra eta Jainkoaren alderat holako ohoreak sortzen bazituen orduan, zer sua eta jauspena ez dugu behar, nik eta girstino guziek, Sakramendu Sainduaren aitzinean, Jesusen Gorputz guziz Sainduaren jaterat goatzilarik!

9. Hanitzak tokiz toki badabiltza Sainduen erreliken ikusteko; harriturik daude hek egin gauzak entzutearekin, heien ohoretan altxatu eliza ederrak ikustearrekin; heien hezur saildu zetaz eta urrez estalientzat badute behako eta musu: eta zu, hemen zitut aldare gainean, nere aitzinean, zu nere Jainkoa, sailduen Saindua, gizonen Kreatzalea eta aingeruen Nagusia!

Beilari hoik begi-luze izanez dabilta ardura eta zerbait berririk ikusi beharrez; nehork guti, aitzinean baino prestuago itzultzen denik; bereziki, bihotzean egiazko urrikirik gabe, arinkeriaz dabiltzanean.

Hemen aldiz, aldareko Sakramenduan, oso osoa hor zira, o Jesus, egiazko Jainko eta egiazko gizona, eta bethiko salbamenduarentzat hazkurri nasaia zu baitan dugu biltzen, khartsuki eta behar bezala bihotzeratzen zitugun aldi oroz. Ez gituzte ez arinkeriak, ez jakingurak, ez gorputzeko atseginak zugaratzen, bainan ba fede biziak, esperantza khartsuak eta egiazko amodioak.

10. O ezin ikus zitzaizkegun Kreatzalea, zoin den miresgarria guretzat egiten duzuna! Zoin ziren gozo eta urrikaltsua zure hautetsientzat, zure Gorputz Saindua jaterat emaiten diozutenaz geroz! Zure egitate hori gure adimenduaz goragokoa da; horrek dautzu bereziki jende khartsuen bihotza biltzen, horrek diote berotzen zu ganako amodioa. Alabainan zure zerbitzari on, egun oroz beren buruaren hobetzerat ari direner, sakramendu guziz saildu horrek maiz emaiten diote khartsutzeko ahal bizia eta bertutearen amodio errea.



11. O sakramendu horrek daukan grazia espantagarria, zure zerbitzariak baizik ezagutzen ez dutena, gaixtaginek eta bekatuaren meneko daudenek ezagut ez dezaketenez grazia!

Sakramendu horrek dauku Izpiritu Sainduaren grazia ixurtzen bihotzerat; arimak hor ditu berritzen galdu indarrak, eta bekatuak khendu edertasuna hor beretzen berriz. Grazia hori batzutan hain da handia non, darraikon khartsutasunari esker, ez bakharririk arimak, bainan ere gorputz ahulduak indar berri bat baitu.

12. Hortako bereko da saminki deitoragarri, ephel eta nagi baikaude, Jesusen bihotzeratzeko nahikari gutirekin, hura delarik bizkitartean hautetsien esperantza eta sari bakharra. Alabainan Jesusek gitu salbatzen, hak gitu erosi, hura da gure atsegina lur gainean eta sainduen zoriona zeruan.

Oi deitoragarria! zombat jende sakramendu salbagarri hortaz axola guti dutenak, sainduen bozkarioa delarik eta mundu guziaren zurkaitza! Oi gizonaren bihotza zoin den itsu eta gogorra, sakramendu espantagarri hortaz axolatuago ez izaiteko, iduri-ta, egun oroz har ditakelakotz, gutiag duen balio!

13. Sakramendu guziz saindu hori toki batean baizik ez balitz obratzen eta obratzeko aphez bat baizik ez balitz munduan, zer lehiarekin loazken jendeak toki hartarat eta aphez haren ganat, sakramendu hori obratzen ikusi nahiz! Bada ordean aphez bat baino gehiago, mezak hanitz tokitan badira: zombat ere lur gainean komunione saindua hedatuago baitoa eta hanbatez garbikiago ager ditezen Jainkoaren urrikalmendua nola amodioa gizonaren alderat.

Eskerrak, zuri, o Jesus ona, bethiereko Artzaina, zeren gitutzun gure desterruan eta gabezian zure Gorputz eta Odol sakratuaz hain amultsuki hazten eta sakramendu horren hartzerat zuhauk deitzen, diozularik: *Zatozte ni ganat, lanaz akituak eta nekeetan zirezten guziak, eta nik arinduko zituztet.*

2. KAPITULUA

*Sakramendu Sainduak erakusten daukula
Jainkoa zoin den ona eta zoin maite gituen.*

1. **ARIMAK.** Jainko on eta urrikaltsua baitan fedez betherik, hurbiltzen nitzaitzu, Jauna: eri, nere Salbatzalearen ganat nathor; gose eta egarriak zipildua, biziaren ithurbururat; orotaz gabetua, zeruko Erregearen hegalperat; meneko, nere Nagusiaren eskuetarat; kreatura, Kreatzalearen alzorat; auhenek urtua, nere kontsolatzale amultsuaren ganat nathor.

Bainan zer duket nere ezdeusean, zu nere ganat jiteko? Zer niz ni, zuhauren niri emaiteko? Bekatoreak nondik du zure aitzinerat agertzeko kopeta? Eta zu nola zira bekatorearen ganat jausterat aphaltzen?

Zure zerbitzaria ezagutzen duzu; badakizu bere baitan deus onik ez duela, zuk emaiten diozunaren gai izaiteko. Zoin ezdeusa nizan aithortzen dut beraz eta zu zoin ona ziren eta amultsua ezagutzen; zuk neretzat duzun amodio negurrigabearentzat eskerrak bihurtzen dauzkitzut. Ezen zeure baitarik duzu egin hori, ez nere merezimenduen gatik; egin, zoin ona ziren hobeki jakin dezatan, geroago gehiago zitzatan maita eta barnago nadin finka umiltasunean.

Hori laket zaitzunaz geroz eta hola daukuzunaz geroz manatu, atseginekin dut hartzen nik ere zure emaitza: nere bekatuek ez dauret agian poxelurik eginen.

2. O Jesus guziz on eta ezitia, zer jauspena, zer eskerrak, zer laudioak dauzkitzugen zor, zure Gorputz Saindua daukuzulakotz emaiten! Gizonik nehor ez da emaitza hori zoin den handia behar bezala erran dezakeenik.

Komuniatzean, nere Jaunaren ganat hurbiltzearekin, zer gogoetak dituzket, doakan bezala ez dezaketanaz geroz adora; hainbertzerainokoa dutalarik bizkitartean haren nere bihotzeratzeko gutizia! Gogoeta hoherik eta salbagarriagorik zer duket, zure aitzinean osoki umiliatzea baino? Goresten zitut, nere Jainkoa, eta bethi goretsiko; nere burua gutiesten dut eta zure peko ezartzen, ezdeusa nizan bezain behera.

3. Sainduen Saindua zu, eta ni bekatore zirtzil bat! Ni zuri behatze-ko ere on ez izanki-ta, horra non zu nitaraino ziren aphaltzen. Horra non



heldu ziren nere ganat; nerekin nahi zira, zure mahainerat deitzen nuzu. Jaterat eman gogo dautazu zerutikako hazkurri bat: aingeruen ogia. *Eta ogi hori zuhau zira, bizirik den ogia, zerutik jautsia, munduari bizia emaiten duena.*

4. Horra non den ageri zure amodioa; horra non dugun garbiki ikusten zoin ziren ona! Zer esker minak eta laudorioak ez dituzu hartze hortakotz! O zer xede on eta salbagarria zurea, sakramendu hori egin zinuelarik! O zer afari gozo eta atsegingarria, zure Gorputz Saindua zinuelarik jaterat eman! O zoin espantagarria zure obra, Jauna; zoin handia zure ahala, zoin miresgarria zure egia! Erran duzu eta oro egin izan dira, eta zuk manatua da gertatu.

5. O gauza harrigarria, federik gabe ezin sinetsia eta gizonaren adimendua leherturik daukana: zu, nere Jainkoa Jauna, egiazko Jainko eta egiazko gizona, ogi poxi baten eta arno xorta baten itxuren azpian oso osoa hor zira, eta jaten zituenak ez zitu suntsitzen. Zu, guzien Nagusiak, deusen ez nehoven beharrik ez duzunak, sakramendu horren bidez nahi ukan duzu gu baitan egon: nere gorputz eta arima garbirik atxik ditzatzu, bihotza botz eta garbi zure Gorputz Saindua maizago har dezatan nere salbamenduaren onetan, sakramendu hori, ezen, zure ospearentzat egin duzu, zure amodioaren orhoitzarentzat.

6. Bozkaria zite, nere bihotza; bihurzkioztu eskerrak Jainkoari ukantza espantagarri horrentzat eta nigarrezko haran huntan utzi dautzun kontsolamendu paregabearentzat. Ezen sakramendu hori berritzen eta Jesusen Gorputza bihotzeratzen dugun aldi oroz, gure erospeneko obra dugu berritzen eta Jesusen merezimendu guziez gira jabetzen.

Jesusek guretzat duen amodioa alabainan nehoiz ez da ttipitzen eta haren urrikalmendu handia nehoiz ez agortzen. Gure bihotza behar dugu beraz sakramentu horri buruz geroago khartsukiago aphaindu eta misterio salbagarri hori artha handienarekin gogoan erabili.

Emaiten edo entzuten dugun meza saindua behar zaiku handia, berria eta atsegingarria iduritu Andre dena Mariaren sabelerat jautsirik egun, egun gizon egiten balitz bezala Jesus, edo, gizonen erosteko, egun hiltzen balitz bezala, kurutzetik dilindan.

3. KAPITULUA

Ardura komuniatzea on dugula.

1. **ARIMAK.** Huna non heldu nitzaitzun, Jauna, zure emaitzaz baliatzeotan, bozkariatzeotan halaber zure onezian aphaindu daukuzun aphairu sainduan. Gutizia dezaketan, gutiziatu behar dutan guzia zu baitan dago: zu zira nere Eroslea eta Salbatzalea, nere esperantza eta indarra, nere ohorea eta ospea. *Bozkaria zazu beraz egun zure zerbitzariaren arirna, zuri buruz baitut altxatu nere bihotza, o Jesus Jauna.*

Nahi zitut orai khartsuki eta jauspenekin bihotzeratu, nere etxean sar-arazi: Zakeok bezala merezi dezatan zuk benedikatzea eta Abrahamen haurren artean jartzea. Nere arima zure Gorputza beretu nahiz dago eta nere bihotza zurekin bat egin nahiz.

2. Eman zaizkitan aski dut: zutaz kanpo egiazko altxagarriarik ez baita. Zu gabe ezin egona niz; nere ganat heldu ez bazira, ez nitake bizi. Zu ganat behar niz beraz maiz hurbildu, nere gaitzen sendagailutzat behar zitut bihotzeratu: bidean eroriko niz, zerutikako hazkurriaz gabetua baniz.

Alabainan, o Jesus urrikaltsua, osteari mintzatu eta eriak sendatu ondoan, zinion egun batez: *Ez ditut beren etxelarar barurik igorri nahi, bidean alditzar ez ditezen.* Hori egizu neretzat ere, zure Gorputza girstinoen altxagarritzat sakramendu hortan utzi daukuzunaz geroz. Ezen zu zira arimaren hazkurri gozoa; eta doakizun aran hartzen zituena, bethiereko loria- ren ondoko da bilhakutzen.

Hain ardura bekaturat erortzen, hain laster nagitzen eta lotsatzen nizanaz geroz, behar dut baitezpada, maiz othoitz eginez eta kobesatuz, nere bihotza berritu, garbitu, sustatu zure Gorputz Sainduaren jateko; bertenaz, luzazegi barur egonez, nere xede oner huts-egin beldur baniz.

3. *Haurzarotik, ezen, gizonaren jitea gaizkirat ixuria dago,* eta gaizkian barnago sartzen ditu erroak, zure sendagailuek laguntzen ez badute. Komunione sainduak gaizkitik khentzen du eta ongian gogortzen.

Ora, komuniatzen edo meza emaiten dutalarik, hain ardura ephel eta nagi balin banago, zer nintazke bada sendagailu horri uko egiten banio eta holako laguntza handiaz gabe banintadi? Eta ez baniz egun oroz



komuniatzeko edo mezaren emaiteko on, egin-ahalak ditut eginen noiztenka bederen komuniatzeko eta grazia handi hortaz jabetzeko: bere gorputz hilkorak zutarik urrun daukano, girstino baten atsegin lehena, atsegin baxharra bere. Jainkoaz maiz orhoitzea baita eta bere Jesus maitearen khartsuki bihotzeratzea.

4. O guretzat duzun onezia harrigarria! Zu, Jainko Jauna, izpiritu guzier bizia eta izaitea emaiten daizkotzutena, nere arima gaixo gaixorat nahi zira jautsi eta zure Jainkotasun eta gizontasunarekin haren gosea nahi duzu ase.

Dohatsu bihotza, dohatsu arima, khartsuki bere Jainko Jaunaren jateaz gai egiten dena! Zoin den maitagarria bereganatzen duen Arrotza! Zoin gozoa bihotzeratzen duen Laguna! Zoin jarraikorra bere-baitaratzen duen Adiskidea! Zoin ederra besarkatzen duen Maitea, maite dituen guziak eta gutizia dezazken zer guziak baino maiteago behar duena!

Zeru-lurrak eta hango edergailuak oro ixil bedite zure aitzinean, o nere Jesus maite guziz gozoa, dituzketen gauza eder eta espantagarriak zuk emanik baitauzkate denak, eta ederrez eder ez baitira zutarik hurbiltzen ere, *zu negurrigabeko Jainko zuhurretik*.

4. KAPITULUA

Komunione khartsuari darraizkon ondorio onak.

1. **ARIMAK.** Nere Jainko Jauna, *zure zerbitzariaren bihotzerat ixurkitzu zure grazia gozoenak*, zure sakramendu guziz eder hortarat khartsuki hurbiltzeko on izan nadin. Zuri buruz susta ezadazu bihotza eta nere nagieria leletik iratzar nezazu. Nere ikusterat zato zure grazia salba arriekin: sakramendu horrek, bere ithurburuan bezala, gorderik daukan zure gozotasuna jasta dezatan eta goza gogoz eta bihotzez. Argizkitzu nere begiak ere sakramendu paregabe horren begiresteko; azkar zazu nere bihotza, duda-mudarik gabeko fede batekin dezatan sinets sakramendu horri datxikon misterioa.

Sakramendu hori zure obra da, ez gizonena; zuk egina duzu, ez gizonek asmatua. Sakramendu horren asmatzeko eta adimentzeko, berez bere nehor ez da on, aingeruen beren adimenduaz gorago baita. Nondik beraz nik, bekatore zarpail, hauts eta erhauts baizik ez nizanak, nondik zer dezaket misterio handi hortan ezagut eta adi?

2. Jauna, laño bihotza, fedea azkar bezain umil, eta zuk manatu dautzulakotz, fidantza eta jauspen handienarekin heldu nitzaitzu zinez sines ten dut hemen zirela sakramendu huntan Jainko eta gizon. Nere bihotzerat jautsi nahi zira, amodioz zuri nahi nuzu josi. Zuri othoitzean nago beraz, Jainko guziz amultsua, eta grazia berezi bat minki galdatzen dautzut: zu maitez urt nadin eta suntsi zu baitan, zutaz kanpo kontsolamendu den gutienik ez dezatan bilha.

Sakramendu guziz handi eta saildu hau, alabainan, gorputzaren eta arimaren salbamendua da eta bihotzaren eritasun guzieren sendagailua; horrek ditu aztura tzarrak xuxentzen, ematen jite bortitza, tentazioneak ezeztatzen edo ahultzen, grazia handiagoak ixurtzen bihotzerat, bertutea gotortzen, fedeari finkatzen erroak, indar emaiten esperantzari, sustatzen amodioa eta zabaltzen.

3. Sakramendu hortan zonbat grazia ez duzu eman, bai eta egun guzietz oraino emaiten, khartsuki komuniatzen duten zure adiskide maiter, nere Jainko Jauna, zu nere arimaren zurkaitz baxharra, gure ahuleziaren sendatzalea eta arimako atsegin guzieren ithurburua. Nahigabe mota



guzien jasaiteko, hanitz kontsolamendu diozute emaiten: lotsatuak daudelarik, zuk gerizaturen dituzulako esperantzarekin altxatzen ditutzu; — grazia berri zonbaitekin bihotza azkartzen diozute eta argitzen; eta hola, komuniatu aitzin griñatsu eta ephel zaudenak, zerutikako hazkurriak azkarturik aitzinean baino hobek direla ohartzen dira.

Zure hautietekin zuhurki ari zira hola: berak ohar ditezen garbiki eta onhar dezaten zinez beren baitarik zoin ahulak diren, eta zuri esker zer graziak eta ongiak beretzen dituzten, berenaz hotz, gogor, idor zirenak lehen, zuri esker berotzen, ernatzen, khartsutzen baitira.

Zu ganat, o gozo guzien ithurburua, nor hurbil ditake umilki, eztiago itzuli gabe? Su handi baten ondoan nor dagoke, berotu gabe aphur bat? Zu zira ithurburua, bethi betherik gaindika dariona; zu, bethi garretan dagon ezin iraungizko sua.

4. Gaindika bethea den ithurri hortan hurrupatzerat eta ase artio edaterat haizu ez baniz, bederen ezpainez tinki lotuko niz uraren askaxiloari, eta han, ahal bezala, xortaño zombait xurgaturen ditut nere egariaren hausteko, egarriarekin ez zizpiltzeko. Ez badut oraino aingeruen garbitasuna eta sua, egin-ahalak ditut eginen halere khartsutzeko eta bihotzaren aphaintzeko; bizia emaiten duen sakramendu hori umilki hartzearekin, zeruko su handitik pindarño bat bedere dezatan bil.

O Jesus ona, Salbatzale guziz saildua, zure graziarekin bethe zazu othoi nihauk eskas dutana, —edo zoini dei egiteko aski ona izan zirenaz geroz, ziniolarik: *Zatozte ni ganat, lanaz akituak eta nekeetan zirezten guziak, eta nik arinduko zituztet.*

5. Bai segur, nekeetan niz ni, begitartea izerdi dut, bihotza herestuetan; bekatuak lehertua naukate, tentazioneez lotsatua, mila jaidura tzarrek tinkatzen nute eta nekatzen. Nehork ez nu laguntzen ahal, nehork ez nezake lohitik athera zuk baizik, nere Salbatzale Jainko Jauna; nizan guzia, ditutan guziak zure gain uzten dauzkitzut, begira nezazun eta bethiereko bizirat hel.

Har eta onhar nezazu beraz, zure Izen sailduaren ohoretan, zure Gorputza hazkurritzat, eta edaritzat zure Odola eskaini dauzkitatunaz geroz. Egizu, Jainko Jauna, nere Salbatzalea, zure sakramendu hortarat maiz hurbilduz nere khartsutasuna geroago handiago jar dadin eta beroago.

5. KAPITULUA

Aldareko sakramenduaren saildutasunaz.

Apheztasunaren goraz.

1. **JESUSEK.** Aingeru bat bezain garbi eta Jondoni Joane bezain saildu bazina ere, Gorputz Sailduaren jateko ez zintazke gai, ez eta hunkitzeko bereko. Alabainan Jesusen Gorputzaren kontsekratzeko, hunkitzeko eta hazkurritzat aingeruen ogiaren hartzeko, nahi bezain saildu izanikan ere, gizonak ez duke zuzenik.

O aphezen kargu espantagarria eta ohore paregabea, aingeruer ez bezalako ahala eman baitiotet! Eliza sailduak bere legeen arabera ordenatu aphezak daukate baxharrik, ezen, mezaren emaiteko eta Jesusen Gorputzaren kontsekratzeko ahala.

Apheza Jainkoaren lekukoa da egiazki. Jainkoak erran eta manatuaren arabera, Jainko bezala da mintzo. Jainkoa da bizkitartean sakramendu horren obratzale nagusia, nehork ikusi gabe ari dena, oro haren nahi sailduaren azpiko direnaz geroz eta orok hak manatua dutelakotz egiten.

2. Sakramendu guziz eder hortan, Jainko boteretsuak errana behar duzu sinetsi, ez zuhauk uste duzuna edo itxuretarik iduri zaitzuna: beraz ikhara saildu batekin eta jauspenekin behar zira aldare saildurat igan. Beha zure buruari eta ikus zer kargua eman dautzun aphezpikuak, bere eskuak zure gainerat hedatu dituelarik.

Horra non ziren aphez, mezaren emaiteko eskuarekin: jarrai zite meza sailduaren khartsuki emaitari, behar den tenorean, eta zure bizia dadila izan itzalik gabea. Zure eginbidea ez da hortakotz arinago; aitzitik, hertsia go dakarrazu uztarria eta bertze jauntzi batean zintazken baino sailduago behar zira. Aphez batek bertute guziet du edertzeko bere arima: bertzeer, bizitze garbi baten erakuspena du emaiteko. Ez da hala hulako jendeak bezala edo bertze arruntak bezala bizi behar, bainan zeruko aingeruak eta lurreko jende sailduenak bezala.

3. Bere eliza-jauntziak soinean Jesusen lekuko, beretzat eta gizon guzientzat umilki eta minki othoitz egiteko da apheza. Aitzinean eta gibelean kurutzearen itxura dakar, Jesusen oinhazeez bethi dagoen orhoit. Aitzinean kurutzea: Jesusen urratser ontsa behaturik, jarraikitzerat khar-



tsuki lehia dakioten. Gibelean kurutzea: bertzeen ganik heldu zaizkon atsegabeen eztiki jasaiteko Jainkoaren gatik. Aitzinean kurutzea: bere bekatuez nigar egiteko; gibelean kurutzea: bertzeak maitez, hauien bekatuez ere nigar egiteko; Jainkoaren eta bekatoreen ararteko Jesusek ezarria dela ez dezan bertzalde ahantz, eta, Jainkoaren urrikalmenezko grazia ardietsi arte, othoitz egitetik nola mezaren emaitetik ez dadien unha.

Meza saildua emaiterekin aphezak Jainkoa goستن du, aingeruak bozkariatzen eta bera Elizaren gizon agertzen; biziak laguntzen ditu, hilak zoriontzen eta bera ongi guziez da jabetzen.

6. KAPITULUA

Komunione aitzineko othoitz.

1. ARIMAK. Zoin handia ziren, Jauna, eta ni zoin ezdeusa orhoitzearekin, ikharetan nago eta ni baitan ahalgeturik. Alabainan zu ganat hurbiltzen ez baniz, biziari diot ihes egiten; eta bihotza lohi baniz hurbiltzen, hasarretzen zitut. Zer egin beraz, nere Jainkoa, zu nere behar-orduetako laguntza, eta argia?

2. Bide xuxena erakats ezadazu, erakats zer araz, laburzki, nere bihotza aphaint dezakezutan ni baitarat sartzeko. Jakitea on dut alabainan nere bihotza nola behar dutan khartsuki eta jauspenekin aphaindu, nere salbamenduaren onetan zure sakramenduaren hartzeko edo oraino meza saildu guziz handiaren emaiteko.



7. KAPITULUA

*Kontzientziaren ikertzeaz
eta hobetzeko xede zinaz.*

1. **JESUSEK.** Oroz lehen, bihotza zinez umil, jaupen aphalenaekin, fede osoaz betherik eta Jainkoaren goresteko xede khartsuenaekin du behar aphezak aldare saildurat hurbildu misterio sailduen obratzeko, Jesusen Gorputzaren hunkitzeko eta bere baitaratzeko.

Iker xeheki zure kontzientzia eta, egiazko urriki eta kobesio umil baten bidez, ahal bezanbat garbi zazu eta argi zure bihotza; haletan non, zure bekatuen zamaz arindurik, nahasmendu eta errangurarik gabe hurbil baitzitazken ni ganat. Duzula barnatik urriki zure bizi guziko bekatuez, bainan bereziki zure egun orotako hutsez, eta epherik aski balin baduzu, bihotzez aithor Jainkoari zure jaidura tzarretarik dituzketzun arimako ithatxurak.

2. Egizu nigar eta auhen, gorputzeko atseginetarat hain ixuria zirelakotz oraino eta munduari hain josia; zure azturak hain guti direlakotz heziak; gutizia likitsez hain zirelakotz bethea; zure gogo-bihotzen zainterat hain ezazol; mila amets ergelek hain ardua lilluratua; kanpoko gauzetarat hain barreiakor, barneko bildutasunerat hain hurri; irri egiterat eta jostatzerat bain zalu, nigar egiterat eta urrikitzerat hain uzkur; ezazoltzerat eta gurikerialat hain lehiatsu, gorputzaren nekatzerat eta arimaren khartsutzerat hain nagi; berrien ikasteko eta ezdeuseria batzuen ikusteko hain begi-luze, ahalge eta laido jasaiteko izipera; ontasun hanitzen biltzerat hain aztaparkari; emaiteko hain zikoitz, atxikitzeo hain tinki; solasetan hain arin, ixilik egoiteari hain bihurri; zure bizimoldean hain harro, zure urratsetan hain bazter-nahasle; jan-edanetan hain sabelkoi; Jainkoaren hitzaren entzuteko hain elkor; lanaren uzterat hain lerrakor, lan egiterat hain muthiri; kondera perttolietarat hain atzarri, gaubeila sailduetan hain logale; hok noiz bururatuko diren hain khexu dirauteno, othoitzetik gogoa hain urrun; meza emaiten hain xoriburu, eliza-othoitzetan hain ephel, komuniatzean hain agor; inguruetarat gogoa hain zeiharkor, hain bakan zure baitan osoki bildua; hain laster odola jauzia, lagunari zimiko egiterat hain trebe, gaizkiari ohartzeko hain begi-zorrotz,

larderian hain garratz; atseginetan hain airos, atsegabeetan hain bihozgabe; xede onen hartzerat hain erne eta hauien bethetzerat hain nagi!

3. Urrikia bihotzean hutz hoik eta gaineratekoak aithortu ondoan, zure ahuleziaz auhen eta bihozmin duzula, xede zin bat har zazu hobeki beitzeko eta bertutean urratsez urrats aitzinatzeo. Gero zeure baitan bihotzaren erditik eta zabalki, aldare gain batean bezala, behin bethikotz zure buruaren eskaintza osoa egidazu nere Izen sailduaren ohoretan, zure gorputz eta arima nere eskuko uzten ditutzula arrunt: ara hortaz Meza sailduaren emaiteko gai izan ziten eta nere Gorputz Sailduaren hartzeo zure salbamenduaren onetan.

4. Alabainan ez da Jainkoari doazkon eskaintzetan ederragorik ez eta bekatuen garbitzeo bide hoberik, mezan eta komunioean Jesusen Gorputza eskaintzearekin batean nork bere buruaren garbiki eta osoki eskaintzea baino.

Egin-ahala egiten badu gizonak eta bere bekatuez egiazko urriki balin badu, barkamendu eta grazia galdez heldu zaitaneko, hitzemaiten diot nik —*biziaren Jainkoa niz ni, ezen, eta ez dut bekatorearen heriotzea nahi, bainan ba ni ganat itzulirik sailduki dadin bizi*— hitzemaiten diot haren bekatuez ez nizala gehiago orhoituren, bainan oro barkaturen daizkotala.



8. KAPITULUA

*Jesusek bere burua kurutzearen gainean
guretzat osoki eman duen bezala,
gu ere osoki eman behar gitarraizkola.*

1. **JESUSEK.** Kurutzearen gainean besoak hedaturik eta buluz, zure bekatuentzat Aitari nere oldez eskaini nizan bezala, nihaurrentzat deusik iduki gabe Jainkoaren baketzeko nizan guzia emaiteraino, halaber zuk ere, egun orotako mezan, zure burua behar dautazu zeure baitarik eman garbiki eta osoki, zure khar eta indar guziekin, ahal bezain gogotik.

Zer dautzut oroz gainetik galdatzen? Nere eskuko osoki jartzerat zitizen lehia. Zutaz kanpo emaiten dauzkitatzun guziak ez zaizkit deus: ez ditut zure emaitzak nahi, bainan zu.

2. Bertze guziak ukanikan ere zuk ni gabe aski ez zinuken bezala, halaber zure emaitzearik bihi batek ez nu atsegintzen, ez bazaizkit eskaintzen zuhau. Zure burua eman ezadazu, eman osoki Jainkoaren gatik eta zure eskaintza onharturen dut.

Nizan guzia zure gatik eskaini diot nere Aitari; nere Gorputza eta Odol guzia hazkurri egin ditut, ni osoki zurea izaitea gatik eta zu nere gelditzeko. Bainan zu baitan biribilkaturik bazaude eta zure burua ez baduzu nere nahi sailduari gogotik eskaintzen, zure eskaintza ez da osoa eta gure artean ez da izanen egiazko batasunik. Zeure jabe izaiteko grazia ardiestekotz, edozoin obrari lotu aitzin behar zira zeure baitarik Jainkoaren eskuko jarri.

Nere argiak ardiesten dituztenak eta beren azturak garaitzen, zenda-ko dira hain guti? Ez dakitelakotz beren buruari osoki uko egiten. Nik errana bethi egia da: *Orori uko egiten ez duena, ezin ditake nere dizipulu.* Zuk beraz, nere dizipulu izan nahi bazira, ziren guzia eman zakizkit zure bihotz-olde guziekin.

9. KAPITULUA

*Ditugun guziekin behar gitarraizkola Jainkoari eman
eta guzientzat dugula behar othoitz egjin.*

1. **ARIMAK.** *Jauna, oro zureak dira, bai zerukoak bai lurrekoak.* Nizan guzia nahi nitzaitzu gogotik eskaini, eta zure egon nahi niz sekulakotz. Jauna, nere burua lañoki dautzut egun eskaintzen zure zerbitzuko; har zazu zure eskumenerat, zure ohoreari doakon guziaren egiteko. Har neza- zu egundanik zure Gorputzaren eskaintzarekin batean, ikusten ez ditutan aingeruak hor berean daudelarik izaitez lekuko; eta egizu nere emaitza hori nihauri eta zure haur guzier balia dakigun, salbamenduko.

2. Bekatu egiten hasiz geroztik hunat zure aingeruen eta zure aitzinean egin ditutan bekatu eta huts guziak eskaintzen dauzkitzut, Jauna, zure urrikalmenduzko aldarearen gainean: zure amodioaren suan erre ditzatzun oro, kontzientzian utzi dauzkitaten lertzoak berak suntsi ditzatzun; eta, bihotza hola garbitu ondoan, bekatuek gal-arazi grazia berriz diezadazun eman, denak osoki barkaturik; azkenekotz, zure haurra amultsuki zureganatuz, baketurik harekin dezazun besarka.

3. Nere hobenak nola ditzazket ordain, bihozmin kiretsenarekin umilki aithortuz baizik eta zurebarkamendua eskatuz gau ala egun? Othoi, othoi entzun nezazu; zure aitzinean ahospez nagonaz geroz, urrikal zakizkit, nere Jainkoa. Nere bekatuek lazten nute, higuin ditut; hitz dautzut ez nizala gehiago eroriko; nere hutsez nigar egiten dut eta eginen, bizi nizano; eta, ordaintzekotan, penitentzia egiterat nago nere ahalaran arabera.

Barka, Jauna, barka nere bekatuak zure Izen sailduaren ohoretan; salba zazu, othoi, zure Odol sailduarekin erosia duzun nere arima. O Jainko urrikaltsua, zure galtzarrean jartzen niz eta zure eskuetan dut ezartzen nere burua; egidazu othoi zure oneziaren arabera, ez nere maltzurkeriaren eta hobenen arabera.

4. Ttipia izan arren eta eskasa, ni baitan ditaken ongi guzia eskaintzen dautzut, zuk garbi dezazun eta saildu, onhar dezazun eta zure gogo-



rakoa izan dadin, hobe dezazun egunetik egunerat eta nizan bezelako gizon nagī eta ezdeusa zorionezko zerurat nezazun ereman.

5. Eskaintzen dauzkitzut ere jende khartsuen nahikunde on guziak, nere burhasoen, adiskideen, anaien, arriben, ahaideen eta zu maitez niri ala bertzeer zerbait ongi egin daukutenen beharrak; eskaintzen ere, berentzat eta berentzat —bai bizientzat, bai hilentzat— othoitzak eta mezak galdatu dauzkitdatenen deiak. Guziek hauteman bezate beren baitan zure graziaren laguntza, zure kontsolamenduen indarra; galbideetarik begirazkitzu, eztizkiotzute bihozminak; gaitz guzietarik arinduak, bozkariotan ditzatzutela beren esker minenak bihur.

6. Bereziki nere othoitzak, mezak eta komunioneak eskaintzen dauzkitzut laidoztatu, histu edo atsegabeen ezarri nutenentzat, edo zerbait kalte eta bihozmin egin dautatenentzat; halaber, nere jakinean edo ustegabeen, hitzez ala obraz histu eta zauritu ditutanentzat, bihozmin eta gaizbide eman diotedan guzientzat, gure bekatuak eta elgarri egin makurrak guzier berdin barka dietzagutzun.

Khen, othoi, gure bihotzetik, Jauna, gogo makur, sumindura, hasarre eta eskatimazko lipizta guziak; khen, othoi, elgarrentzat behar dugun amodioa hauts edo ttipi dezakeena. Urrikal, Jauna, zure urrikalmendua eskatzen dautzutenez; eman othoi zure grazia beharrean daudener; egizu, bizi huntan zure dohainez gozatzeko gai izanik, hel gitezen bethiereko bizirat. Halabiz.

10. KAPITULUA

*Komunione saindutik ez girela
hala hula baztertu behar.*

1. **JESUSEK.** Maiz joan behar zira graziaren eta urrikalmenduaren ithurbururat, oneziaren eta garbitasun osoaren ithurbururat, zure jaidura tzarretarik eta bekatuetarik sendatzekotz: azkarrago, erneago iharduk dezazun debruaren oldarrer eta zure burua zaint haren sare-ukaldi ixiletarik. Etsaiak, komunione sainduan zer ondorio onak darraizkon eta komunionea zer sendagailu gaitza den badakielakotz, bere zazpi egin-ahalez bermatzen da girstino khartsuen mahain saindutik baztertzerat eta urruntzerat.

2. Komunione sainduaren egiterat doatzilarik dituzte, alabainan, batzuek tentazione bortitzenak jasaiten debruaren ganik. Aingeru tzar hau, Job sainduak zion bezala, Jainkoaren haurren arterat dathor, bere ohiko maltzurkeria herratsuaz heien nahasterat, izitzerat, herabetzerat, heien kharraren ttipitzerat edo fedearen kordokatzerat, komunione sainduari uko egin dezoten edo mahain saindurat epheltasunekin ditezen hurbil.

Bainan haren maltzurkeriaz eta hak egorri gogoeta tzarrez, hok nahi bezain izigarriak eta lizunak izanikan ere, ez duzu zeren axola: kaskoari behera aurtizkiotzu denak. Aingeru ahalgearri hori erdeinatu behar duzu eta trufatu; haren tarrapatek nahi bezanbat nahasirik ere, ez duzu zeren komunione saindua utz.

3. Komunione sainduak maiz poxelu du ere khartsu beharrez dukezun griña handiegia eta kobesatu nahiz dukezun keska. Egizu jende zuhurrek errana eta utz behar gabeko keskak eta griñak: Jainkoaren graziari poxelu egiten diote eta bihotzean kharra dute ezeztatzen.

Ez utz komunione saindua, aphur bat nahasia zirelakotz eta kontzientzian baduzulakotz zerbait errangura; bainan kobesa zite lehen bai lehen eta bertzeek egin dauzkitzuten laidoak barkazkiotzute gogotik. Zuhauk norbaiti hoben egin badiozu, umilki galda zozu barkamendu eta Jainkoak gogotik barkaturen dautzu.



4. Kobesioaren edo komunionearen luzatzeak zer duke onik? Bihotza garbi zazu lehen bai lehen, aurtik laster pozoina. Sendagailuaren hartzerat ernatuz, bethi luzatuz baino hobeki zoazke. Egun aitzakia baten gatik gerorat uzten baduzu, bihar orobat handiago batek zitu gibel-araziko; hola luzaz egon zitazke komuniatu gabe eta komuniatzeko geroago utiago zinitazke on.

Zure oraiko epheltasuna eta nagikeria inharroskitzu lehen bai lehen griñaturik eta nahisirik luzaz egoiteak deus, onik ez du, traba batzuek mahain saindutik urrun atxik zitzaten ere ez. Aitzitik, komuniatu gabe luzaz egoitea kaltekor duzu biziki, nagitasun handi bat darraio bethi kasik.

Oi deitoragarria! girstino ephel eta ezazol batzuer estakuru guziak on zaizkote kobesatu gabe egoiteko luzaz eta ondorioz komuniatu ere gabe, bere buruaren hobeki zaintzeko beharretan ez izaitea gatik.

5. Nigar-egingarria! Komunione saindutik hoin errexki urruntzen direnek, zoin guti nuten maite, eta zoin guti diren khartsu! Zoin den dohatsu eta Jainkoak zonbat duen maite, bihotza bethi zilhar daukan gizona, hain zilhar non egun oroz komuniatzeko on baita, gogotik komunia bailezake ere, haizu balitz eta bertzeak ohartu gabe egiten ahal balu!

Norbait artetan komuniatu gabe balin badago umiltasunez edo zerbait aitzakia zuzenez, ohore hari, Sakramendu horrendako duen jauspenarentzat. Bainan epheltasunez badago mahain saindutik urrun, bere burua behar du akulatu eta bere ahal guziaz aitzinerat urrats egin. Jainkoak lagunduko du haren nahikundea, nahikunde onari baitu bereziki behatzen Jainkoak.

6. Ez komuniatzeko zerbait aitzakia zuzen ukanikan ere, komuniatzeko nahikari eta ona balin badu norbaitek, ez da sakramendu horren ondorio onez gabeturik egonen. Alabainan girstino jarraiki edozoin egun oroz eta tenore guziez komunia ditake gogoz, eta komunione horri ondorio hoberenak datxizko; bizkitartean, egun batzuez eta behar orduetan, amodio eta jauspenekin behar duzu Salbatzalearen Gorputz Saindua egiazki bihotzeratu, zure atsegina baino gehiago Jainkoaren ohorea eta ospea bilhatzen ditutzula.

Inkarnazioneko misterioa eta Jesusen oinhazeak gogoan derabiltzan aldi oroz, halaber Jesusen amodioak bihotza sustatzen dion aldi guziez, gogoz komuniatzen da girstino bat eta ikus ez dezaken grazia batek azkartzen du.

7. Besta buruetan edo komuniatzea ohi duen egun batzuetan baizik bere bihotza aphaintzen ez duena, ardura erdi-larre izaiten da komuniatzeko. Dohatsu, bere burua osoki ezeztaturik Jainkoari emaiten diona, meza emaiten duen edo komuniatzen den aldi oroz!

Meza emaiten ez izan zaluegi ez hurriegi, bainan atxik zure herritarer doakoten izar; ona. Ez zira bertzeentzat akitgarri ez lotsagarri behar, bainan ba buruzagiek manatu malda erditan duzu egon behar; ikusiz, ez nondik duken gozo gehiago zuhauren bihotzeko kharrak, bainan nola ditaken hobe jendearen harat-hunatentzat.



11. KAPITULUA

*Komuniatzea eta Liburu Sainduen irakurtzea
guziz beharrezko direla arima jarraikiarentzat.*

1. ARIMAK. O Jesus guziz gozoa, arima khartsuarentzat zer atsegina zure mahainean zurekin jartzea: han, o arima khartsuaren amodio bakharra, bere bihotzaren gutizia guzien gainetik gutiziatu behar zituena, han zure Gorputz Saindua diozu jaterat emaiten, ez bertzerik.

Niri ere gozo litzaiket zure aitzinean nigar zonbaiten ixurtzea zu maitez eta, santa Madalenak bezala, nere nigarrekin zure oinen bustitzea. Bainan khar saindu hori non kausi? Nigar sainduen ithurburua non aurki?

Bai segur, zure aitzinean eta aingeruen aitzinean nere bihotz guzia sutan behar litake jarri eta bozkarioarekin nigarrez urtu. Hor zitut alabainan, sakramendu hortan, egiazki hor, nahiz bertze itxura batzuen azpian gorderik zauden.

2. Izaitez eta Jainko bezala duzun distiradura nere begiek ez lezake te jasan, eta izaitez dariozun argia estaltzen ez bazinu, mundua suntsitua litake. Sakramendu hortan beraz gorderik balin bazaude, bere ahuleziaren gatik zaude hola gordea.

Aingeruek zeruan adoratzan dutena, nere dut egiazki eta hor adoratzan nik ere; bainan nik fedearen bidez baizik ez dut ikusten oraino, hek aldiz den bezala eta estalgirik gabe. Egiazko fedearen argia aski behar zait niri eta argi horri jarraiki behar nitzao bethiereko egunaren argia jeiki arte, itxuren itzalak suntsitu arte.

Bainan itzalik gabeko equn hura jitearekin, ez da gehiago sakramendurik izanen, dohatsuek zeruan ez dutenaz geroz sakramenduetako sendagai-luen beharrik. Bozkariotan daude alabainan alderat Jainkoaren aitzinean, haren ospea bekoz beko ikusten dutela; Jainkozko argian igeri bezala eta berak argi bilhakatuak, Jainko gizon egina gozatzan dute, haste hastetik zen bezala eta bethi dagon bezala.

3. Gauza espantagarri hoitaz orhoitzen nizalarik, arimako kontsolamenduak berak dorpe zaizkit eta higuigarri; munduan ikusi eta entzun guziak, ezen, ezdeustat dauzkat, nere Jainkoa bere ospearen distira osoan ikusiren ez dutano.

Hor zitut lekuko, Jauna, ez dutala nehon kontsolamendurik, pausu-rik ere ez kreaturretan aurkitzen; ez dezaket aurki zu nere Jainko, bethierean begiretsi nahi zituzketanaren baitan baizik. Ez ditakeena da bizkitartean hori, gorputz hilkor hunekin deramatano nere bizia. Pazientzia handi bat hartzeko dut beraz, nere nahikunde guziak zure nahiaren azpiko daudela.

Alabainan, Jauna, zeruan jadanik zurekin bozkariotan diren sainduak ere, lur gainean zireno, fede eta pazientzia handiekin zauden zure egunaren aiduru. Hek sinetsi dutena sinesten dut nik ere; hek zailki igurikatu dutena igurikatzen dut berdin nik; zure graziaren laguntzarekin heltzea badut uste nik ere hek heldu izan diren lekurat.

Anartean, sainduen erakuspenek azkarturik, fedearen arabera biziko niz. Kontsolatzeko eta argitzeko ukanen ditut bertzalde Liburu Sainduak, eta, oroz gainetik, sendagailu eta ihes-lekutzat zure Gorputz Saindua.

4. Lur huntan beraz bi gauza ditut baitezpada behar, bata eta bertzea gabe ezin jasana bailitzaiket bizia. Gorputz barnean bahitua, bi gauza ditut eskas: jatekoa eta argia. Bada, arimaren nola gorputzaren hazteko zure Gorputz Saindua hazkurritzat eman daukuzu; eta argitzat zure hitza aitzinean ezarri. Bi gauza hoik gabe ez nintzan ontsa bizi ahalko: Jainkoaren hitza baita arimaren argia; zure Gorputza, bizitzeko behar den ogia.

Erran ditake badirela bi mahain, Eliza sainduaren ontasunen artean ezker eta eskuin ezarriak. Lehen mahaina: aldare saindua eta hunen gainean Ogi sakratua, erran nahi baitut Jesusen Gorputz sakratua. Bigarrena, Jainko-legearen mahaina: hunek dauka erakaspén saindua, egiazko fedea zoin den erakasten daukuna, —tenploko oihalaren barneraino, Sainduen Saindua dagon lekurat xuxen geramatzan legea.

Eskerrak zuri, Jesus Jauna, o bethiereko argiaren argia, eskerrak erakaspén sainduaren mahainarentzat, —zure zerbitzari Profeten, Apostoluen eta bertze erakasleen bidez eman daukuzunarentzat.

5. Eskerrak zuri, gizonen Kreatzalea eta Eroslea, mundu guziari zure amodioaren erakustea gatik, aphairu espantagarri bat aphaindu daukuzuna. Aphairu hortan ez daukuzu zure itxuralako bildotsa emaiten jaterat, bainan ba zure Gorputz guziz Saindua eta zure Odol sakratua. Aingeruak gurekin parteliar diren aphairu saindu hortan, —nahiz gozakari biziagoarekin hek—, zure erakaspénari dauden guziak bozkarioz gaintitzen ditu-



tzu; bihotza zoratzen diote Odol sailduak, zeruko zorion guziak berekin baitauzka.

6. O zoin den handi aphezetasuna eta ohoragarri! Ahala zuk emanik, aphezen hitz sailduiek dezakete alabainan Jainko Jauna aldare gainean ogi eta arnoaren orde-araz; aphezek ezpainez Jainko Jauna eskerrekin gorets dezakete, beren eskuetan atxik, beren ahorat ezar eta bertze girstinoer eman.

O zoin garbiak behar dituzten eskuak, zoin garbia ahoa, zoin saildua gorputza, bihotza zoin xahua, garbitasunaren kreatzalea hain ardura dutenaz geroz jaten! Jesu-Kristoren Sakramendua hain ardura hartzen duen aphezaren ahotik ez da athera behar solas saildu, zuzen eta ondorio onekorik baizen.

7. Jesu-Kristoren Gorputzaren begirestea ohi duten begiak izan bedite behakoz begiratu, so lizunik gabeak; zeru-lurren Kreatzalea noiz-nahi hunkitzen duten esku hek, zerualde erabiliak, gaizkiaren kotsutik xahu. Aphezarentzat guziz da errana Liburu Sailduetan: *Izan saildu, ni zuen Jainko Jauna saildu bainiz.*

8. Zure graziak lagunt gitzala, Jainko guziz boteretsua, gu aphez girenak, aphezetasunari doakon bezala zerbitza zitzagun, othoitzerako khar egiazko batekin eta kontzientzia garbi. Eta ez bagitazke behar ginuken bezain sailduki bizi, emaguzu bederen gure bekatuentzat zinez nigar egiteko grazia: halaber oraidanik khartsukiago zerbitzaturen zitugulako xedearen umilki hartzekoa.

12. KAPITULUA

*Komuniatzerat doanak artha handienarekin
behar duela bere bihotza aphaindu.*

1. JESUSEK. Ni niz! garbitasunaren adiskidea eta ni ganik dathor arimaren saildutasuna. Bihotz garbiaren ondotik nabil eta han dut nere pausa-lekua. *Aphaint ezadazu jan-toki handi bat eta Bazkoko bildotsa zure etxean janen dut nere dizipuluekin.*

Zure ganat jin eta zu baitan egon nadin nahi baduzu, aurtik zazu altxagarri zaharra eta garbi zure bihotzaren barnea. Khen handik munduko gogoetak eta jaidura tzarren burrunba. *Bazterreko hegatz-azpi batean nigar-tinttaka ari den etxe-txoria bezala, erabilzkitzu bihozminekin gogoan zure bekatuak.*

Adiskideak adiskidearentzat du alabainan bethi leku hoberena eta ederrena aphaintzen eta hola dio erakusten zer atxikimenduz dion idekitzen athea.

2. Jakin zazu bizkitartean, nahi duzuna egirik ere, zure bihotzaren aphaintzeko ez zirela zeure baitarik on, urthe bat osoa ar bazinite ere, bertzerik deus gogoan gabe. Nere oneziari eta graziari esker zaitzu xoilki mahain saildurat hurbiltzea zilegi, hala nola eskaleari aberats baten aphairurat, ez baitezake bertzalde hak ere bere ezagutza erakuts esker on batzu umilki bihurtuz baizik.

Zuk zure egin-ahala egizu, egin arthazki, eta ez bertzeek bezala egiteko edo ezinbertzez; bainan beldurrekin, jauspenekin, amodiorekin har zazu zure ganat jiteko aski ona den Jainko Jaun maitearen Gorputz Saildua. Nik zitut deitu, jiteko nik dautzut manatu; eskas duzuna nik betheko dut, zato eta har nezazu.

3. Khartsutasunaren grazia emaiten dautzularik, bihur eskerrak Jainkoari: grazia hori ez baitzinuen hartze, bainan ni zutaz urrikaldurik baituzu bildu. Grazia hori ardiesten ez baduzu eta zure bihotza agorrigo baduzu senditzen, are gehiago egizu othoitz eta auhen; atheari jotzetik ez bara, nere mahainetik papur zerbait edo graziaren ur salbagarrietarik tinttata bat ukan artio.



Zuk duzu nere beharra, nik ez dut zure beharrik. Ez zira zu nere saildutzerat heldu, ni nathor zure hobetzerat eta saildutzerat. Nere ganat heldu zira saildutzeko eta nerekin bat egiteko, grazia berri baten ukaiteko eta geroago hobeki bizitzerat zure bihotzaren sustatzeko. Grazia hori ez othoi gutiz utz, bainan, Jesus maitearen zeure baitarat sar-arazteko, aphaint zure bihotza artha handienarekin.

4. Ez zira xoilki komuniatu aitzin behar izan khartsu, bainan khar hori ondoan ere behar duzu lehiaz atxiki. Komunione ondoan bildu bildua egoiteko, ez da komunione aitzin bihotzaren aphaintzeko baino artha gutiago behar. Komunione ondoan bildu bildua egoitea, ezen, da grazia gehiagoren ardiesteko bide hobereana.

Komuniatu orduko kanpoko atseginetarat doana, biziki gaizki dabil grazia hoiaren ardiesteko. Urrunt zite solas alferretarik, egon bakhar bakharrik eta goza zure Jainkoaz. Mundu guziak ebasten ahal ez dautzuna bihotzean duzu alabainan. Niri behar zira eman osoki: hemendik harat ez zu baitan, bainan ni baitan griñarik batere gabe, zitezen bizi.

13. KAPITULUA

*Sakramendu huntan arima khartsuak
Jesusekilako batasuna behar duela
bihotzaren erditik bilhatu.*

1. **ARIMAK.** Zoriona noiz duket, Jauna, zure kausitzeko bakhar bakharrik eta nere bihotz guziaren zuri zabaltzeko, nahikari dutan bezala zutaz gozatzeko? Hemendik harat nehork ez nula gutiesten, ez nahasten, ez bilhatzen, zoriona noiz duket zu xoilki niri mintzatzeko eta ni zuri, adiskideek elgarri mintzatzeko eta elgarrekin jateko ohi duten bezala? Huna zer dutan galdatzen, huna zer nuken nahi: zurekin osok bat egitea, kreatura guzietarik nere bihotzaren urruntzea, eta, maiz komuniatuz eta meza emanenez, zeruko ontasan bethierekoen geroago gehiago gozaten ikastea.

O Jainko Jauna, noiz eginen dut osoki bat zurekin; zu baitan noiz niz urtuko eta nere burua noiz dut osoki ahantziko? Nagola zu baitan eta zu ni baitan eta batasun hori neholere ez bedi hauts.

2. Bai zinez zu zira *nere Maitea, milen artean hautatua*; zu baitan izaitea laket zaio nere arimari, zu baitan egon nahi luke bethikotz. Zu zira Errege baketierra; zu baitan dut kausitzen ezin handiagoko bakea eta egiazko deskantsua; zutarik kanpo ez da bihozmin, auhen eta negurririk gabeko nahigaberik baizen. Zu zira egiazki Jainko gordea; federik gabeko gaixtoetarik urrun bazaude, bainan lañoekin eta umilekin solastatzea laket zaitzu.

O zure atxikimendua zoin den gozoa, Jauna: *maite ditutzula jakin dezaten, zure haurrak hazi nahi baititutzu ogi gozo zerutik jautsiarekin.*

Zinez ez da nehon populurik, nahi bezain handia izan dadin, bere jaun-goikoak hala hurbiltzen zaizkonik nola zu, gure Jainkoa, girstinoen batzarrerat baitzira hurbiltzen: zuk egun oroz, heien bihotzaren azkartzeko eta zerurat buruz altxatzeko, ziren guzia emaiten diozute, zure Gorputz Sainduaz hazten ditutzu eta zutaz gozarazten.

3. Egiaz mintzatzeko, badea populurik populu girstioarekin erkida ditakeenik? Zerupearan nor da arima khartsua baino Jainkoak maiteago duenik, bere Gorputz Sainduaz hazterat baitzaio jausten? O grazia pare-



gabea! O fagore espantagarria! O amodio negurririk gabea, gizonari baikirik erakutsia izan ez zaiona!

Bainan Jaunari zer bihurtuko diot nik grazia horrentzat eta neretako duen zedarririk gabeko amodioarentzat? Jainkoari zer egin dezoket hobetik eta laketago zaionik, nere bihotzean osoki hari emaita eta tinki tinkia jostea baino?

Nere barne guzia inharrosiren du bozkarioak, nere bihotzak noiz ere Jainkoarekin osoki bat eginen baitu. Orduan erranen daut Jaunak: nerekin nahi bazira, zurekin nahi niz ni ere. Eta nik ihardetsiko diot: othoi, Jauna, zaude nerekin, zurekin izan nahi errea niz. Nere nahikari guzia da nere bihotzak zurekin bat dezan egin.

14. KAPITULUA

*Arima batzuek Jesusen Gorputzaz
duten gutizia khartsuaz.*

1. ARIMAK. O zoin gozoa ziren, Jauna, zure ahalge direnentzat! Arima batzu zer khartsutasun eta amodiorekin mahain saildurat hurbiltzen diren orhoitzen nizalarik, ahalgetan niz neure baitan, gero herabez gorritzen hain ephel eta hotz aldarerat eta mahain saildurat hurbiltzen nizanean; gorritzen ikustez ez nizala zure aitzinean, nere Jainkoa, osoki sutan jartzen eta komunione sailduarentzat ez dutala bertze hanitzek ukan duten tirria eta khar handia. Arima khartsu hek komunione sailduaren halako gutizia zuten eta heien kharra hain zen bizia non ez baitzagozken nigarririk egin gabe; hasperenka eta pilpiran zauden zuri buruz, o graziaren ithurburua; beren gosea eta egarria ez zezazketen nehondik hil, zure Gorputz Saindua bozkariotan eta janiza handi batekin hartuz baizik.

2. O heien egiazko fede bizia, izaitez sakramendu hortan zirela frogatzen daukuna! Jesus beretu ondoan, ezen, bihotza atseginez zanpaka ari zaiotenenak, ohartuak ziren Jainkoa bera izaitez han zutela, *ogja zutelarik hausten*.

Zoin urrun nagon ardura holako atxikimendu gozo, holako amodio bizi batetarik! Aldeko jar zakizkit, o Jesus on, ezti eta amultsua. Urrikal zite eskale gaixo batez; noiztenka bederen emozu, komunione sailduan, khar hortarik pindar baten senditzeko grazia, nere fedea geroago azkarago dadin, nere esperantza geroago handiago, —zoin ona ziren ikusiz—, eta nere amodioa, zeruko ogitik jastatzeak behin bethikotz piztu ondoan ephel ez dadin gehiago.

3. Zure urrikalmenduari esker, emaiten ahal dautazu grazia hori; zure onezian, zuhauk hautatu egunean amultsuki nere ganat jausten ahal zira. Nere gutziak ez izanikan ere zure zerbitzari berezien gutziak bezain beroak, bizkitartean, zure graziari esker, nere gutzietarik handiena da heien gutizia suharrez jabetzea. Nahi nuke eta eskatzen dautzut arima khartsu hoi en lerroko eta batzarkide nezazun ezar.



15. KAPITULUA

*Umiltasunaren bidez eta
bere buruari egin ez uko
duela nork-bederak ardiesten
khartsutasunaren grazia.*

1. **JESUSEK.** Khartsutasunaren grazia behar duzu alderat bilhatu, lehiatuki galdatu, pazientziarekin eta fidantzarekin igurikatu, eskerrekin hartu, umilki begiratu, artha handienarekin lantu eta, bera jin arte, Jainkoa grazia berriekin noiz nola jinen zaitzun Jainkoaren gain utzi.

Umiliatu behar zira guziz, bihotza ez duzularik batere edo guti bai-
zik khartsu, bainan etsitu gabe eta sobera ilhundu gabe. Luzaz eman nahi
izan ez duena, Jainkoak maiz bat-batean du emaiten. Othoitza hastean
eman ez daukuna, othoitza bururatzean emaiten dauku maiz.

2. Berehala eta galdatu orduko, balu Jainkoak eskua zabaltzen, gra-
ziaren hain errexki ardiesteak ahuletik ahulagoratu leramake gizona.
Hortakotz duzu khartsutasunaren grazia behar igurikatu fidantza zail
batekin, pazientziarekin eta umilki.

Bizkitartean zure gain eta zure bekatuen gain doala, Jainkoak grazia
ez badautzu emaiten edo gutien ustean khentzen badautzu. Batzutan deus
guti aski du graziak ez jiteko edo itzaltzeko; deus guti dela erran baditake
holako ontasunez gabetzen zituen zera. Bainan, ttipi izan dadin traba ala
handi, baztertzen baduzu eta osoki garaitzen, galdatau ardietsiko duzu.

3. Alabainan, bihotzaren erditik zure burua Jainkoari eman bezain
laster, eta, zure nahikari jauzteka zabilatzatener uko eginik, Jainkoaren
eskuetan jartzen ziren bezain sarri, Jainkoari josia zitazke eta bake handi
baten jabe: deus ez baitzaitzu gozoago ez laketago idurituren Jainkoaren
nahi sailduaren egitea baino.

Nork ere baitu, laño bihotza, bere xedea Jainkoari buruz altxaturen,
lurreko zerentzat duen atxikimendu makurra edo herra nork ere baitu
bere bihotzetik hustuko, khartsutasunaren graziaren ukaiteko gai ditake
hura. Jainkoak, ezen, unti garbietarat du bere grazia husten.

Zonbat osokiago baitio gizonak munduari uko egiten, bere burua
gutietsiz ahanterainokoa, hanbat lasterrago zaio grazia etortzen eta

nasaikiago sartzen, hanbat gorago ere dio bihotza altxatzen, lokarriak
huni mozturik.

4. Orduan ikusiko du ikusten ez zuena, ontasun ibaian izanen da eta
zabalduko zaio bihotza, Jainkoa berekin duelakotz eta bera behin bethi-
kotz Jainkoaren eskuetan delakotz osoki jarri.

*Horra nola Jainkoak saristaturen duen Jainkoa bihotzaren erditik bilhatzen
duen gizona eta bere arima haren eskuetarik alferretan ukan ez duena.* Holako
gizonak, komuniatzen duelarik, Jainkoarekin bat egiteko grazia handia du
merezi, ez dituelakotz bere kontsolamendua eta atsegina bilhatzen, bai-
nan ba, atsegin eta kontsolamendu guziak baino lehen, Jainkoaren ospea
eta ohorea.



16. KAPITULUA

*Gure beharrak Jesusi behar daizkogula
agertu Komunioean eta bere grazia galdatu.*

1. ARIMAK. O Jaun guziz gozo eta maitagarria, orai khartsuki bihotzeratu nahi zitutana, nere ahuleziaren eta nere beharren berri badakizu. Badakizu zonbat gaitzek eta azturek herrestan naukaten, nolakoak diren nere nekeak, guduak, nahasdurak, bekatuak. Sendagailu-keta heldu nitzaitzu; othoi, othoi lagunt nezazu, nere nekeak arinduz.

Guzien berri dakienari niz mintzo, nere bihotzeko xoko gordeenak ikusten dituenari, nere minaren ezititzeko eta nere laguntzeko on den bakharrari. Badakizu zer ontasun dutan gehienak eskas eta bertuterik batere edo guti baizik ez dutala. Horra non nagon zure aitzinean deusik gabe eta buluz, zure grazia beharrez eske eta zure urrikalmenduari othoizka.

Zure eskale goseak-hilari emozu jaterat, nere bihotz hotza bero zazu zure amodioaren suan eta nere bihotz itsua argi, nere baitarat zure argiarekin jinez. Egizu lurreko atsegin guziak kirets kausi ditzatan; bihozmin eta nahigabe guziak balia zaizkitan pazientzia doi baten biltzeko, eta munduko zerak oro ditzatan ostika eta ahantz.

Zuri buruz altxa zazu zerurat nere bihotza eta ez nezazula lur gainean bidez nahasterat utz. Oraidanik eta bethikotz deus ez bekit gozo zu baizik, zu zirelakotz bakharrik nere janaria eta edaria, nere amodioa eta bozkarioa, nere atsegina eta ontasun guzia.

3. Zure begitarreak agian dena sutan ezarriko nu eta garretan zure idurirat: graziaren bidez zure amodioaren suan urturik, zurekin bat egin dezatan gogoz eta bihotzez. Ez nezazula zutarik urrunterat utz gosarik eta egarri, baina egidazu zure urrikalmenduaren arabera, zure sailduer hain ardura egin ukan duzun bezala.

Zer da harritzeko zuk ni sutan ezarrikeri ere eta nizan guzia ezeztaturik ere, —bethi pizturik dagon eta sekula hiltzen ez den su bat, bihotza garbitzen eta adimendua argitzen duen amodio bat zirenaz geroz?

17. KAPITULUA

*Jesusen Gorputz Sainduaren
hartzeko gutizia biziaz
eta haren alderako amodio khartsuaz.*

1. ARIMAK. Khartsutasun handien eta amodiorik beroenarekin, nola nere baitarikako oldar bizienarekin nahi zitut bihotzeratu, hain maite zinituen eta hain khartsu ziren sailduiek eta arima onek bihotzeratu nahi ukan zituzten bezala. O nere Jainkoa, bethiereko amodioa, nere ontasun guzia, dohatsutasun mugarik gabekoa, bihotzeratu nahi zitut, edozoin sailduk egundaino ukan duen eta duken gutizia beroenarekin eta jauspen handienarekin.

2. Eta amodiozko sendimendu hoitaz jabetzeko on ez nizan arren, bizkitartean bihotzeko khar guzia eskaintzen dautzut, laket zaizkitzun gutizia bero hoik nihauren baitarik banitu bezala. Arima khartsu batek asma eta gutizia ditzazkeenak oro, jauspen handienarekin eta bihotzaren erditik eskaintzen dauzkitzut. Ez dut neretzat deusik atxiki nahi, baina nizan guzia eta ditutanak oro nere burutarik eta gogotik dauzkitzut emaiten.

Nere Jainko Jauna, nere Kreatzalea eta Salbatzalea, bihotzeratu nahi zitut egun, doazkitzun khartsutasun, jauspen, ospe eta ohoreekin, doazkitzun ezagutza, garbitasun eta kharrarekin, doazkitzun fede, esperantza eta amodioarekin: Andre dena Maria zure Ama sailduak gutiziatu eta bihotzeratu zinituen bezala, aingeru mezulariari umilki eta khartsuki hunela ihardetsi ziolarik: *Huna Jaunaren neskatoa, gerta bekit zuk erranaren arabera.*

3. Hala nola zure Aitzinlari dohatsu Joanes Batista, sailduetarik handiena, bere amaren sabelean zelarik oraino zure aitzinean bozkarioz jauzi baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez; hala nola geroxago hak berak, umiltasun handienarekin eta amodio khartsuenak errea, Jesus gizon batzuekin zoala ikustearekin baitzion: *Jaun esposaren adiskidea, haren lagun fina dena eta haren entzuten dagona, bozkarioz da bozten jaun esposaren mintzoa aditzen duela-kotz,* —halaber nik ere nere barnea holako gutizia bero eta sailduen sustatu nahi nuke eta nizan guzia zuri eskaini bihotzaren erditik.



Hortakotz arima khartsu guzien bozkarioak, heien amodio bizia, othoitzean zure begiresteko ukan dituzten grazia bereziak, heien zerutikako argi eta ikusmenak eskaintzen daukitzute eta aitzinerat emaiten, izaitte guziek beren bertuteen bidez zure goresteko zeru-lurrean eman eta emanen daukitzuten ohore guziekin; eskaintzen daukitzute bai neretzat, bai nere othoitzak galdatu eta nahi dituzten guzientzat, orok gorets zitzaizen zor zaitzun bezala eta ohora menderen mendetan.

4. Onharzkitzu othoi, Jauna, zu guziek ohoratua eta goretsia ikusi beharrez ditutan nahikariak, zure ezin erranezko handitasunak hartze duen bezala. Ohore hoik bihurtzen daukitzute eta bihurtu nahi egun oroz eta ordu guzietz; halaber zeruko aingeru eta saindu guziak, bai eta giristino on guziak, bihotzaren erditik ditut esker eta ohore zuri bihurtzerat deitzen eta minki othoizten.

5. Gizadi, gizaki, mintzai guziek gorets bezitzate; bozkario handienarekin eta khartsutasun bizienarekin ospa bezate halaber zure Izen Saindu gozoa.

Meza Saindua khartsuki eta jauspenekin emaiten duten guziek eta zure Gorputz Saindua fede oso batekin hartzen dutenek, zure ganik ardiets bezate grazia eta urrikalmendu eta nizan bezalako bekatorearentzat minki othoitz egin. Eta noiz ere, zurekin bat egin ondoan tirria zuten bezala, bihotza gozoz igeri eta azkar mahain saildutik itzuliko baitira, othoi orhoit bedite nitaz, nizan bekatore dohakabeaz.

18. KAPITULUA

*Gizona ez dela sakramendu huntan
begi-luzez barnegi sartu behar,
bainan Jesus bezala umil egon,
bere adimendua fedearen azpiko ezarriz.*

1. **JESUSEK.** Sakramendu guziz gorde hau ez duzu zeren begiluzez eta behar gabe mia soberarik, duda-muda izigarri batzuetarat erori nahi ez bazira. *Jainkoaren handitasunaren ikertzen ari dena, Jainkoaren ospeak lehertuko du.* Gizonaren gogoak asma dezaken baino gehiagoren ahala badu Jainkoak.

Umilki eta lañoki egiaren bilhatzea ez zaitzu debekatua, baldin zure buruaren argitzekotan ari bazira, Elizako Aiten erakaspinari jarraikiz. Dohatsu, gogoaren nahasbide diren jakitateak debalde utzirik, Jainkoaren manamenduen bide zuzen eta segurean dabilan gizon lañoa.

2. Askok beren khartsutasuna galdu dute, beren adimenduaz gora-goko gauzak zilatu nahiz. Jainkoak ez dautzu adimendu handi bat galdatzen, misterioen leize zolaraino hel ditakeena, bainan ba fedea eta bizitze saindu bat.

Zutaz beheragoko gauzetan barna zure behakoa hanbat urrun ezin sar-eta, zutaz goragokoen mamian zer dezakezu ikus? Eman zite Jainkoaren eskupean, ezar zazu zure adimendua fedearen meneko eta ukanen dituztu on eta behar dituzketzun argi guziak.

3. Batzuek, sakramendu huni doakon sinesteaz bezanbatean, gaitzeko durduzak badituzte; bizkitartean ez dituzte hoik beren gain ezarri behar, bainan izaitekotz etsaiaren gain.

Durduza hoitan ez itho zu; zure gogoetekin ez ar borroka; debruak sakatu duda-muder ez ihardets; bainan sinets Jainkoak errana, sinets sainduak eta profetak, eta etsai maltzurra ihes joanen zaitzu urrun.

Ardura on baino hobe, Jainkoaren zerbitzariak holako bihotz kilikak jasan ditzan. Debrua ezen ez da tzarrer eta bekatoreer jazartzen, bere eskuko baititu hek jadanik, bainan jende khartsuak ditu oldarka, itzul-inguruka kitzikatzen eta oinhazkatzen.



4. Zoazi beraz mahain saindurat fede laño eta azkar batekin; jauspén umilenarekin hurbil zite komunioerat, ezin adi ditzazketzunak utzirik Jainko guziz boteretsuaren gain.

Jainkoak ez du nehor enganatzen; bere buruari fidegi dena da enganatzen bera. Jainkoa jende lañoetarat da hurbiltzen eta umiler agertzen; Jainkoak jende xumeer emaiten adimendu, bihotz garbiak argitzen, begiluze eta urgulutsuer aldiz grazia khentzen.

Gizonaren adimendua ahul eta enganakor, egjazko fedea aldiz ezin enganatua.

5. Gizonaren adimendu eta ikertze guziak fedearen ondotik doatzila urratsean, ez aitzinetik eta hari uztarka.

Bada, fedeak eta amodioak sakramendu guziz saildu eta eder hontan dute gehien gehienik distirutzen, eta gizonen artean nehor ikus ez dezaken moldez lan ederrenak hortan dituzte egiten.

Bethiereko eta mugarik gabeko Jainko guziz boteretsuak gure adimenduaz goragoko gauza handiak egiten ditu zeru ala lurtean, eta gauza espantagarri hoik ez ditzazkegu zila. Jainkoaren obrak gizonen ezagutzaren menekoak balira, ez litazke miresgarriak eta ezin erranezkoak deitu behar.